ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko irailaren 20a > Astelehena > VII. urtea > 290. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 urte Komunikazio Zerbitzuak www.goiena.net TOKIKOM



"Emakunde geldirik dago; ez dute ideia berririk aplikatu, ezta zaharrik ere"

**Izaskun Moiua**
Emakundeko zuzendari ohia > 08

**G2a** Aretxabaleta Abesbatzaren lana DVDan > 29

**ARRASATE** Migeltxu Kajoi: Maritxuren Iurretako "lehengusua" > 14

**BERGARA** Gaur irekiko dute *Txiki-txokoa* Zabalotegiko eskola zaharrean > 16

**OÑATI** Migel Angel eta Joxe Mari Arzuagak egindako lana eskertu dute > 30

**JENDARTEA** > OSASUNA

# Alzheimerra dutenek eta senideek indarrak batu dituzte

**ARRASATE** Gipuzkoa osotik etorritako 60 bat lagun batu ziren atzo, Afagik antolatutako ospakizunean

**IRAILAK 21** Alzheimerraren Nazioarteko Eguna izango da bihar, martitzena: aldarrikapen eguna mundu osoan

**7.500** Alzheimerrak jotako 7.500 lagun daude Gipuzkoan eta 10 urte barru kopurua bikoiztu egingo dela diote adituek > 04

**ARANTZAZU** > GANDIAGA

## Baketik-en ikasturte irekiera

Anjel Lertxundiren hitzaldiarekin bete egin zen Topaketa eta Batzarretarako Zentroa zapatuan > 06




**EMOZIOA** Auto zaleek bide bazter denak hartu eta gogotsu animatu zituzten pilotuak, zapatuan.

JOSETXO ARANTZABAL

## Aitor Zabaleta bergararra garaile Gatzagako igoeran

22 urteko atsedenaren ostean, indarberrituta itzuli da Gatzagako auto igoera. 46 pilotuk esku hartu dute eta ehunka lagunek jarraitu. Aitor Zabaleta izan da garaile; lau segundoko aldea atera dio Angela Vilariño bigarren sailkatuari.

Nola joan den ikusirik, gustura daude antolatzaileak eta datorren urtean errepikatzeko asmoarekin; litekeena da, hori bai, hurrengoa Arlabango mendatean egitea, ibilbide luzeagoa izanik, ikusgarriagoa izan daitekeelako. > 22-23

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-31
**Sailkatuak** > 32-33
**Telebista-Irratia** > 34
**Berri-zakua** > 35-36
**Argazki lehiaketa** > 37-39

**FOLKLOREA** > DANTZA

## 450 haur dantzari Oñatin

Indartuta eta dantza berriekin ospatu dute Euskal Herriko umeek 40. urteurrena > 11

**JAIALDIA** > ORHIPEAN

## Bergara, parke tematiko

Gure sustraiak ezagutu eta barneratzeko aukera aparta eskaini du Orhipean parke tematikoak asteburuan Bergaran eta erantzun ona izan du: jende asko batu da hitzaldi edota dokumentaletan eta, zer esanik ez, azokan. > 12

Goiena kluba

Arrikrutzerako bi sarrera opari. Nahi?



Zoaz 3. orrialdera


Igor Bauza bergararra, etxeko mahastietan. IGOR BAUZA



Candido Besako Esti, joan den eguenean, Aretxabaletan ardoa banatzen. MIRIAN BITERI


Nagore Etxebarr

**ARDOA** > MAHATS BILKETA

# Errioxako ardoa ere egiten dute gure eskualdekoek

**ARRASATEARRA** Garcia de Olano upeltegikoa da Nagore Etxebarriarteunen senarra; Paganosen bizi da 2005etik

**ARETXABALETARRA** Candido Besako Estik urteak eman zituen Debagoienean bizi izaten; 1991tik Villabuenan bizi da

**BERGARARRA** Igor Bauzak etxea du Eltziegon; hark eta aitak etxekoak laguntzen dituzte mahatsa batzen eta ardoa egiten

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Jakina da gure bailaran txakolin bikaina ekoizten dela. Baina horren ezaguna ez dena da Errioxako ardoa ekoizten duten debagoiendarrak ere badaudela. Horien artean, Nagore Etxebarriarteun arrasatearra dago. Arabako Errioxan dagoen Guardiako Paganos kontzejuan bizi da eta Garcia de Olano upeltegi ezagunekoa da.

Etxebarriarteunek Arabako Errioxara zelan heldu zen azaldu digu: "Txikitan, oporrak Guardian pasatzen nituen, eta, azkenean, Paganosko batekin ezkondu nintzen; Garcia de Olano upeltegikoarekin, hain justu ere. Gasteizen bizi ginen, nik Arrasaten egiten nuen lan eta senarrak Paganosen. Horrela ibiltzeaz kantsatuta geunden eta umea izan genuenean tokiz aldatzea erabaki genuen; gainera, upeltegiko bulegoan lan egiteko pertsona baten bila ari ziren. 2005ean etorri ginen".

**Oso ondo egokitu da Nagore Etxebarriarteun bizimodu berrira, Paganos herria oso txikia bada ere**

**Eltziegoko Bauza upeltegian hiru aste barru hasiko dira mahatsa jasotzen; 120.000 kilo batzen dituzte, urtero**

Oso ondo egokitu da arrasatearra bizimodu berrira, Paganos herria oso txikia bada ere; neguan, 70 lagun bakarrik bizi dira han. Dena dela, gaineratu du Arabako Errioxara iritsi zenean ardoari buruz ez zekiela ezer eta, bi urtean, enologiaren gaineko ikastaroa egin behar izan zuela.

### 1991 EZKERO VILLABUENAN

Esti Besa ere Arabako Errioxan bizi da, baina debagoiendar ere sentitzen da. Aita Villabuenakoa da eta bera ere han jaio zen. Txikia zela, baina, Aretxabaletara etorri zen bizi izatera: "Aita, dena dela, hara bueltatu zen eta ni kanpora joan nintzen ikastera. Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoa ikasi nuen. Iruñean denboraldi bat izan ostean, 1991n, Aretxabaletakoa den Lorentxo mutil-lagunarekin batera joan nintzen Villabuenara. Ordutik hona han bizi naiz, askotan Aretxabaletara etortzen banaiz ere; lagunak, familia eta bezeroak ditut Aretxabaletan".

Ardoari oso lotuta dagoela jakinarazi digu: "Gure upeltegia aspaldikoa da, 1940. urtekoa gutxi gorabehera. Aitaitak eta aitak mahastiak zituzten eta betidanik egin izan dute ardoa, eta, hortaz, horri oso lotuta egon naiz bizitza osoan". Dena dela, Candido Besa izeneko ardoa ez zuten 1975era arte komertzializatzen hasi, Estiren aita Candidok upeltegiaren ardura hartu zuenean. 1991n, bikotea heldu zenean, aitaren bezeroak hartu eta ardoa saltzen hasi zen. Esti, gainera, enologia ikasten hasi zen orduan.

### LAN GOGORRA

Besa ere ez da damutzen hartutako erabakiaz: "Oso pozik gaude, baina lan gogorra ere bada, guk egiten dugulako dena. Mahastietako, upategiko eta banaketa lanez arduratzen gara; ez daukagu bitartekorik, zuzenean saltzen dugu ardoa. Hemen kaxa bat, eta han bost kaxa. Horrez gain, azoketara joaten gara eta hitzaldiak ere egiten ditugu". Azken horren harira, Aretxabaletan, esaterako, joan den eguen arratsaldean izan zen Esti, Urbaltz elkartearen urteurrenaren harira.

10 hektarea mahasti dituzte, 5 eta 100 urte bitartekoak, eta tempranillo (%90) eta viura (%10) barietateak erabiliz ardo bereziak egiten dituzte. Besaren esanetan: "Aitak beti bi ardo mota atera izan ditu: betiko urteko ardoa eta urteko ardo berezia; hau da, mahatsa zapaltzetik ateratzen den ardoaren bihotza. Baina bizirik irauteko produkzioa dibertsifikatu behar izan dugu". Sei ardo mota egiten dituzte orain: aurretik aipatutako bi horiez gain, urteko ardo ekologikoa, kupeleko ekologikoa, zuria eta autore-ardoa.

Garcia de Olanon ere sei ardo mota dituzte: urtekoa, ondua, erreserba, zuria eta autore-ardobi. Guztiekin pozik dagoen arren, azken bi horietaz harro dagoela esan digu Etxebarriarteunek: "Horietako batek dagoeneko hiru sari garrantzitsu jaso ditu, nazioarteko sariak dira".

### 250.000 BOTILATIK GORA

Herri txikian kokatuta badago ere, Garcia de Olano upeltegia ez da horren txikia. Urtero, 250.000 botilatik gora ekoizten dituzte. Mahats hori guztia batzeko, urtero, Andaluziako koadrila bera hartzen dute. Etxebarriarteun ez da egoten mahatsa batzen: "Upeltegi barruan mahatsa jasotzen dut nik. Harreraz gain, mahatsaren trazabilitateaz ere arduratzen naiz. Mahats guztia gurea da, ez dugu kanpotik ekartzen".

Kandido Besan, urtero, 60.000 botila inguru egiten dituzte. "Errioxa jatorri izenaren barruan sartuta gaude eta hor dena oso mugatuta dago; baita jaso daitekeen kilo kopurua ere". Bestalde, jakinarazi digu oraindik ez direla hasi aurtengo mahats-bil-



iarteun arrasatearra, upeltegian. N.E




Garcia de Olanon egiten du lan arrasatearrak. NAGORE ETXABARRIARTEUN

keta egiten; urriaren erdialderako hastea espero dute, Garcia de Olanon bezala.

Eltziegoko Bauza upeltegian ere data horietan hasiko dira uzta jasotzen. Igor Bauza bergararrak azaldu digu "hiru aste edo hilabete" barru hasiko direla zeregin horrekin. Upeltegi familiar horretan urtero 120.000 kilo mahats jasotzen dituztela ere aipatu digu; hortik 90.000 botila inguru ateratzen dituzte.

**ETXEA ELTZIEGON**

Arabako Errioxarekin duen loturari dagokionez, bergararrak azaldu du aita Eltziegokoa dela izatez. Haren esanetan, "orain dela 40 bat urte, Bergarara etorri zen; baina ez dugu Eltziegorekin harremanik galdu, etxean daukagu hemen eta nire osabak upeltegia du. Aitaitak sortutakoa da".

Horren harira, kanpoko langileak kontratatzeaz gain, etxekoek ere mahats-bilketan parte hartzen dutela gainera du. Haren esanetan: "Ni orain gutxiago, baina beti etortzen gara laguntzera. Lan gogorra da, lehengo moduan ez bada ere prozesu osoa oso kontrolatuta dago-eta. Goizean 08:00etatik 12:00etara eta arratsaldean iluntzera arte egoten gara; hamar bat egunean batuta dugu. Dena eskuz jasotzen dugu, makinarik ez dugu".

**ARDOA, BAILARAN**

Candido Besa eta Garcia de Olanorena bezala, Bauzarena ere dasta daiteke bailarako hainbat taberna eta elkarte gastronomikotan; gastronomia elkarteetan, esaterako, Bergaran, Angiozarren eta Arrasaten.

ESANAK

**"Txikitan, oporrak Guardian pasatzen nituen, eta, azkenean, Paganosko batekin ezkondu nintzen; Garcia de Olanoko upeltegikoarekin"**

**N. Etxebarriarteun** > Arrasatearra

**"Lan gogorra da, guk egiten dugulako dena; mahastietako, upategiko eta banaketa lanez arduratzen gara, ez dugu bitartekorik "**

**Esti Besa** > Aretxabaletarra

**"Ez dugu Eltziegorekin harremanik galdu; etxea dugu hemen, eta nire osabak upeltegia du. Aitaitak sortutakoa da"**

**Igor Bauza** > Bergararra

DATUA

**400.000**

BOTILA ARDO

Horixe da Arabako Errioxako Candido Besa, Bauza eta Garcia de Olano upeltegietan, urtero, ekoizten duten botila-ardo kopurua; azken horretan bakarrik 250.000 egiten dituzte.

DATUA

**1940**

URTEA

Candido Besa upeltegia aspaldikoa da, 1940 urte ingurukoa. Estiren aitaitak eta aitak betidanik egin izan dute ardoa, baina Candido Besa izenarekin ez zuten komertzializatu 1975era arte.

AURTENGO UZTA

## Oso kalitate oneko mahatsak espero dituzte ardo ekoizleek

Nork bere bizipenaz eta upeltegiaz berba egiteaz gain, aurtengo uztaren gainean ere hitz egin digute debagoiendarrek. Hirurek nabarmendu dute aurten eguraldiak ez duela askorik lagundu eta, hortaz, uzta atzeratuta datorrela. Pilare zubian mahatsa batzen hasiko direla uste dute. Esti Besaren esanetan, "amaitzear dagoen uda honetan ez du euririk egin, abuztua hotza izan da eta baita ekaina ere; iraila, ostera, oso ona izan da, euri apur bat bota du eta bero askorik ez du egin. Guretako, horrela mantentzea izango litzateke onena".

Udan ez, baina aurretik ere ez du askorik lagundu eguraldiak. Besaren arabera, "kantitateari dagokionez, juxtu dator. Loraketa ostean ernalketa dator eta garai hartan hotza eta euria egin zuen, eta ez ziren ondo ernaldu. Aurten ez da egongo iazko kantitatea; gutxiago egongo da. Horrek, dena dela, ez du eraginik ardoaren kalitatean".

Azken horren harira, Nagore Etxebarriarteun arrasatearra bat dator Besarekin: "Oso uzta ona dator. Oso kalitate oneko ardoa izango dugu hemendik gutxira".

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
IRAILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

LIIBURU SORTA BAT
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
PAMIELA argitaletxea

ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
ARRIKRUTZ Oñatiko kobak

ESAIT-EKO MAILLOTA
Bidali KLUBA MAILLOTA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
esait

UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea

SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
WII SPORTS RESORT PACK TXURIA
Ukabi informatika
Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.
Domingo Irala z/g (Arisnoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Lore Gazteak taldeko dantzariak gaixo eta senitartekoei harrera egiten. JOSETXO ARANTZABAL

**JENDARTEA** > ALZHEIMERRAREN NAZIOARTEKO EGUNA

# Indarrak eskuratzeko jai egun handia egin zuten Afagiko kideek

Gipuzkoatik etorritako 60 bat lagun elkartu ziren Arrasateko plazan eta gero bazkaltzera joan

**MIRARI ALTUBE**> ARRASATE

Bihar, irailak 21, izango den Alzheimerraren Nazioarteko Eguna gogoan, Afagik Alzheimerra duten gaixoen senideak jai eguna egin zuten atzo, Arrasaten. Gipuzkoako hainbat herritatik etorritako kideei Ino Galparsoro alkateak egin zien ongietorria. Afagiko presidente Koldo Aulestiak esan zien gero akatsa dela gaixotasuna ezkutatzea: "Normaltasunez onartu behar dugu, jakinik oso latza dela pertsona afektatu batekin –eta ez gaixoa– bizitzea. Eta aldarrikatu gura dugu bizitza kalitatea guztiendako".

Lore Gazteak taldeko dantzariek egin zieten lehenengo harrera plazan eta gero Txorbela otxoteak ekitaldia eskaini. Sara jatetxean bazkaldu zuten guztiek gero lagunartean.

**7.500 AFEKTATU GIPUZKOAN**

Alzheimerrak jotako 7.500 lagun daude Gipuzkoan eta 10 urte barru kopurua bikoiztu egingo dela diote adituek. Afagik bazkideak, ostera, 1.500 dira Debagoienean.

IRITZIAK



**Koldo Aulestia**
Afagiko presidentea

"Festarako eguna da gaur, barre eta dantzan egin eta poztasunerako eguna. Eta jasotako energiarekin eguneroko lanari aurre egingo diogu bihartik aurrera".



**Eusebio Gomez**
Senidea

"Urtebete daroat Arrasateko lantaldean eta oso garrantzitsua da lagunekin egotea. Gaixotasun benetan gogorra da baina *aurrera Bolie!* esan beharra dago".



**Mari Karmen Arantzabal**
Senidea

"Ahizpari laguntzearren sartu nintzen taldean, eta etxean tokatu zaigulako gaixotasuna bizitzea. Zer egin ez dakitenei laguntza eskaintzen die elkarteak".

**OSASUNA** > GRIPEA

# Gaurtik hartu daiteke gripearen aurkako txertoa

Arrisku taldeek urriaren 31ra arte hartu dezakete txertoa, anbulatorioan edo gertuen duten osasun zentroan

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Gripea infekzio-gaixotasuna da eta edonork harrapa dezakeela diote medikuek. Hala, arrisku taldeei txertatzeko gomendioa egiten diete Debagoieneko Ospitaletik.

Arrisku taldeetan daude: 65 urtetik gorakoak, diabetikoak eta gaixo kronikoak. Biriketako, bihotzeko, gibeleko eta giltzurruneko gaixotasunak dituztenak daude azken talde horretan.

Interesatuek anbulatorioan edo gertuen duten osasun zentroan jaso dezakete txertoa, gaurtik –irailak 20– urriaren 31ra arte. Zentroan bertan jartzen dute medikuek.

**TXERTOA HARTZEKO ZER EGIN?**

65 urtetik gorakoek nahikoa dute norbanako osasun txartela edo NAN agiria eramatea. Aipatutako beste arrisku taldeetakoek, aldiz, ohiko medikuarengana joan beharko dute bolantea jasotzera.

**EKONOMIA** > ENPRESA

# Gaztempresak 4.600 lanpostu sortu ditu

Abian jarri zenetik, 2.520 enpresa eta 4.600 lanpostu baino gehiago sortu ditu Euskadiko Kutxaren egitasmoak

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Gaztempresak 808 eskabide baino gehiago jaso ditu aurten. Horietatik 199k aurrera egin dute, beste horrenbeste enpresa eta 306 lanpostu sortuz.

Euskadiko Kutxak 5,8 milioi euroko finantzaketarekin lagundu du enpresa horiek abian jartzen.

Enpresak sustatzen jarraitzeko kezka dela medio, Gaztempresak Gizarte Sarea jarri du Interneten: *www.gaztempresa.com*. Helburua da sortu diren enpresen artean harremanak ezartzea eta elkarri laguntza ematea; baita oraindik enpresa sortu ez dutenek besteen aholkuak eta kontaktuak eskuratzea ere.

**LIDERRA**

Gaztempresa Fundazioa liderra da Euskal Herrian, enpresa jarduera berriak bultzatzen. Jarduera-sektoreen arabera, %85 zerbitzuen sektorean sortu dira –ostalaritza, ile-apaindegi, aisialdi-gune, osasun-zerbitzu...– eta %15 merkataritzan –arropa, oinetako, elikagai, informatika, telefonia...–.

Sustatzaileen batez besteko adina 36 urte ingurukoa da, eta horien %78 langabezian zeuden. Ikasketa mailari dagokionez, %26k unibertsitate ikasketak dituzte eginak, eta sexuari dagokionez, berriz, %52 emakumezkoak dira.

Euskara ikasteko bide zuzena
Eskoriatza Aretxabaleta Arrasate Arrasate Eibar Elgoibar Mutriku Deba Zarautz
Oñati Urretxu-Zumarraga Legazpi Beasain Tolosa Azpeitia Lasarte-Oria Hernani Errenteria Pasaia Irun Hondarribia
2010-2011 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK
UE www.udaleuskaltegiak.net
ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13
BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
E-posta: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4
20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net
Intxaurtxueta 10
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net


Kutxa Auto Asegurua
+18
1:1
Hemen, asegurua kontratatzeak esan nahi du
Estaldura handiena zure autoarentzat baldintzarik onenetan
> %60rainoko hobaria gidari ona izateagatik.
> Erabateko ezbehar, lapurreta edo sutea gertatuz gero, auto berriaren balioagatiko kalte-ordaina.
> Kristal-apurtze, lapurreta edo suteagatiko parteek ez dute frankiziarik ordainduko, ezta hobariari eragingo ere.
> Eta hasteko, Esku Librreko bat opari duzula abiatuko zara.
Informa zaitez eta kalkulatu zeure prima kutxaren edozein bulegotan.
kutxa
zugandik zugana
* Kutxa Auto Liberty Seguros, Compañia de Seguros y Reaseguros S.A.ren produktu bat da. Kutxa, Biharko Vida y Pensiones-en banku/aseguruetako operadore esklusiboa da. Haren baimena dauka Biharko Aseguradora-rekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian ins-kribatuta dago C0654G20336251 zenbakiarekin. Aseguru honetan bitartekari-lanak egiten ditu Biharko Aseguradora-ren eta Liberty Seguros-en artean izenpetutako banaketa-akordioaren testuinguruan.

**GIZARTEA** > BAKE ZENTROA

# Baketik-en ikasturte berria, Jose Saramago zenari eskainia

Literaturako Nobel sariduna Arantzazuren eta Baketik-en laguna izan zen

Anjel Lertxundi idazlearen hitzaldiarekin hasi zen kurtsoa zapatuan


Jonan Fernandez eta Anjel Lertxundik hartu zuten hitza, Baketik-en 2010-2011 ikasturtearen hasiera ekitaldian. J. ARANTZABAL

**GOIATZ ARANA** > ARRASATE

Arantzazuko Gandiaga Topaguneko Topaketa eta Batzarretarako Zentroa erabat bete zen zapatuan, Baketik-en ikasturte berriaren hasiera-ekitaldian. Jonan Fernandez zuzendariak ekainean zendutako Jose Saramago idazlea ekarri zuen gogora, urtetan emandako babesarengatik, eta ikastaroen programazio berria aurkeztu zuen. *Bizizikasi* pedagogia –gure bizipenaren kontzientziatik ikasiz gure burua hobetu dezakegula esan nahi duena–, Gurasoentzako eta Hezitzaileentzako Eskola, eta beste bideratzi ikastaro –gatazken lantze etikoari edota sufrimendua ulertzeari buruzkoak, tartean–. Formatu ezberdinak eskaintzen dira horiek egiteko: zazpi orduko ikastaroak, zapatuetan; eta hamar ordukoak, asteburuetan.

**ANJEL LERTXUNDIREN HITZAK**

*Bizitza, zalantzen eremu* izenburupean, Xabier Leteren kantu ezagun bateko zitatik abiatuta eskaini zuen sarrera-hitzaldia. Idazlea erreka zikinen iturri garbiak aurkitu nahi dituen poeta tristea dela esan eta iturri garbi horiek gizakiaren baitan bilatu behar direla gehitu zuen. "Oinarri etikorik gabe, oinarri moralik gabe, gizarteak ez dauka aurrera egiterik", azaldu zuen. Baketik-en lana oso garrantzitsutzat jo zuen herri honen aurrera-biderako.

ESANAK

**"Oinarri etikorik gabe, gizarteak ez dauka aurrera egiterik. Horiek gabe, alferrik da gero ondorioak juzgatzea"**

**Anjel Lertxundi** > Idazlea

> INZIDENTZIAK

### Arrasatera eta Elgetara irteera bana egin dute suhiltzaileek

Oñatiko suhiltzaileek bi irteera egin dituzte asteburuan Debagoienean, zapatu gauean biak. Arrasaten, Santa Barbara parkean piztu zen sua, sasi eta hosto batzutan. Udaltzainek itzali zuten; eta ondoren, suhiltzaileak etorri ziren, errebisatu eta ura botatzera. Elgetako industrialdean, bestalde, bi edukiontzi kiskali ziren. Arrazoia zein izan zen argitzeke badago ere, hasierako hipotesia da ustekabeko sutea izan zela.

> BIDEGORRIAK

### Soraluze eta Mekolalde arteko zatia laster inauguratuko dute

Garapen Iraunkorreko diputatuak egin zuen iragarpena barikuan: "Hurrengo egunetan, Soraluze-Mekolalde eta Beasain-Salbatore bidegorriak inauguratuko ditugu eta, hala, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sareak 86 kilometro osatuko ditu urte amaieran".

Aurten egindako zatien, hobekuntza lanen eta martxan dauden ekimenen gaineko balantzea egingo du gaur Foru Aldundiak, baita erabiltzaileen gaineko datuak eman ere.

**EKONOMIA** > DANOBAT ENPRESA

# Tren ardatzak egiteko eskaria jaso du Mekolaldeko enpresak

7,5 milioi eurotik gorako proiektu hau Europako tren lerro aurreratuena da

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Mondragon Taldeko Danobat Railway Systems enpresak Lucchini enpresa italiarrarendako tren ardatz automatikoak fabrikatuko ditu. Lucchini liderra da tren errodajerako altzairu eta zenbait osagairen ekoizpenean. Tren lerroa osatzen duten ekipamendu gehienak Danobat Taldeak fabrikatuko ditu; gainerakoak, Alemania, Italia eta Txekiako zenbait fabrikatzailek.

Mekolaldeko lantegiak bere gain hartuko du talde guztiak integratzeko eta, amaieran, lerro osoa martxan jartzeko ardura.

**DANOBAT, LIDERRA**

Danobat Taldea enpresa liderra da Espainian makina-erremintaren fabrikazioan, eta munduko rankinean 29. postuan dago. Taldearen produktu nagusiak dira: artezteko makinak, tornuak, fresatzeko zentroak, puntzonatzeko eta tolesteko makinak eta mekanizatzeko lerro malguak. Espezializazioa oinarri, hilaren 21etik 24ra, Innotrans 2010 azokan izango da, Berlinen.


Bergarako Mekolalde auzoko Danobat enpresa. DANOBAT





Julen Arexolaleiba irakaslea, besteak beste, aditua da Euskal Herriko Gizarte Komunikazioan. JOXE ARANZABAL

**Julen Arexolaleiba** > Huheziko irakaslea

# "Enpresen formazio planetan kulturgintzaren transmisio titulua bultzatzea nahi dugu"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Mondragon Unibertsitateak, Huhezi fakultatearen eskutik, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren hirugarren ekitaldia iragarri du. Atzera baino, aurrera begiratu nahi dute, betidanik datorkigun izateko gogo horri eutsiz. Aurreko urteotan moduan, euskal kulturako aurpegi ezagun mordoa batu dituzte antolatzaileek. Julen Arexolaleiba (Arrasate, 1962) dugu aditu tituluaren koordinatzailea.**

**Hirugarren urtez antolatu duzue Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulua; orain artekoaren balorazioa ona den seinale...**

Bai, oso pozik gaude eta ikasleek beraiek ere balorazio ona egin izan dute. Parte hartzeari dagokionez, lehenbiziko urtean 60 ikasle izan genituen eta iaz 30. Aurreneko urtea neurriz kanpokoa izan zen eta pentsatzen dugu 30 laguneko taldea osatzea hobe dela guztiondako. Aurrerantzean 30 ikasleren bueltan egongo baginate, gu pozik.

**Bereziki nori zuzenduta dago titulua?**

Hizkuntza plangintzetan edo kultur programazioetan euskararekin eta euskal kulturarekin lanean dihardutenei. Egiten duten lan hori kontestualizatzeko interesgarria gerta dakieke ikastaroa, ahots mordo bat entzutean ikuspegia aberasteko aukera paregabea dago-eta. Edozein modutan, helburu akademikoari baino garrantzia handiagoa ematen diogu enpresek euren formazio planetan aditu titulu hau kontuan izateari. Bertsozale elkartetik edota beste enpresaren batetik ordaindu izan diete hainbat langileri ikastaroa, eta bide hori indartzea da gure asmoa. Ikasleen perfilari dagokionez, lana topatzea ez da izaten helburu akademiko nagusia.

**Lau ataletan dago banatuta ikastaroa, ala?**

Bai, alde batetik, formazio teoriko-praktikoan, unibertsitateko jendeak, adituek jardungo dute, nagusiki. Eta bestetik, testigantzen bidezko formazioa arituen eskutik etorriko da: Artze, Montoia, Jose Angel Irigaray, Niko Etxart... Unibertsitatera ohituta ez dagoen jendea izan arren, oso beroak gertatu izan dira haien ekarpenak. Pentsa, Ruper batek edo Josu Zabalak bi orduko klasea ematea... Horrez gain, hilabetero, tutore-mintegietan, aurretik entzundakoekin ondorioak atera eta kontrastatzea da asmoa, patxadaz gogoeta egitea. Eta azkenik ikasleen proiektua legoke, beti ere euren interesen araberakoa, liburu elektronikoa dela edo dena delakoa.

**"Aditu titulua hizkuntza plangintzetan edo kultur programazioetan dihardutenei dago zuzenduta bereziki"**

**"Eredugarria den herrietako esperientzia aztertuko dugu aurten"**

**Nobedaderik aurten?**

Transmisioari garrantzi handiagoa eman nahi diogu eta eredugarria izan daitekeen herrietako esperientzia aztertu: Kulturola Hernanin, Uztarria bera Azpeitian, EH Zuzenean Iparralden, Garai-On Araban...

**Ez da erraza izango halako *fitxaje* potoloak egitea, ala?**

Pozgarria da oso. Ezezko gutxi batzuk baino ez ditugu jaso eta esker oneko hitzak besterik ez ditugu guztiendako.

## Matrikula epea irailaren 30era arte dago zabalik eta eskolak eguaztenetan izango dira

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titularen 3. ekitaldia urriaren 13an jarriko dute abian. Ekainaren 1era bitartean eguazten arratsaldetan izango dira eskolak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, 15:00etatik 20:00etara. Esandako moduan, aurpegi ezagun asko izango dira Eskoriatzako fakultatera etorriko diren adituak... eta arituak: Joxanton Artze, Joan Mari Torrealdai, Joxerra Gartzia, Niko Etxart, Ramon Saizarbitoria, Kirmen Uribe, Aizpea Goenaga, Xabier Montoia eta Andoni Egaña dira irakasleetako batzuk. Matrikula epea irailaren 30era arte dago zabalik. Interesatuek 943 71 41 57 telefono zenbakira deitu edo *www.mondragon.edu/huhezi/ekt* webgunera jo dezakete argibide eske.

etxeko leihotik



**Iker Barandiaran** > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Egin dezagun guk gure agenda propioa

Ni bizi naizen etxeko leihotik ez da egunotan ijitorik ikusten, baina azken aldian askoren ahotan daude. Arazoa larria da eta gero eta ugariagoak dira aldeko eta kontrako ahotsak. Egia izango da etnia honetako hainbat kidek lapurretak-eta egiten dituztela, baina ezin dira guztiak zaku berean sartu. Horra hor, esaterako, eliza katolikoa: pederastia kasuen testigantzak gero eta ugariagoak dira; hortaz, apaiz guztiak epaitu beharko genituzke?

Ez dago zalantzarik hedabideek botere handia dutela eta jendeari ezartzen diotela arduren zerrenda. Zer da herritarrak gehien arduratzen duitena? Bada, hedabideek nahi dutena. Eta horren haritik, komunikabide askok ETAren komunikatuaren aurrean erakutsi zuten epeltasuna: "Ez da nahikoa", "Ez du ezer berririk eskaintzen"... Horren atzetik, ia jarraian, hainbatek ondorioztatu zuten ETAren agiriak ez zuela herritarrengan eraginik lortu.

**"Hedabideek esaten digute herritarrok zer ardura nagusi ditugun"**

Benetan hala balitz, komunikabideek ez zuten egunero horren gainean hitz egingo; alderdi subiranisten elkarlanak ez zuen halako hauspoa hartuko; gainontzeko alderdietan ez zen urduritasuna nagusituko; fiskaltzak agian ez luke Bilboko manifestazioa galaraziko; eta poliziak ez luke astean atxiloketak egingo. Batzuek kontrakoa nahi izan arren, mugimendu handia dago. Ea bide onera eramaten gaituen!

**> Lagun idazle batek poesia liburua prestatzen zebilela ikerketa egin eta ondorioztatu zuen arrasatearren ardura nagusiena aparkalekuak direla. Nik beste ikerketa baten ondorioz, jakin dut txoratzen dituena pintxo poteoa dela.**

**> Arrasate berpizten dabil zentzu askotan; dena ez da pintxo poteoa; badira bestelakoak. Orhipean, Zuztarrak Errotuz, Beste bat!, Kooltur... Elkarte ekimentsu asko sortzen dabiltza burdin eta prentsaz betetako gure herri honetan.**

**ENPRESA** > FAGOR

## 20 milioi euroko eskaera jaso du Fagorrek Ford-etik

Prentsa robotizatuen linea bat eta trokelak probatzeko beste prentsa bat agindu dizkio

**E.M.** > ARRASATE

Ford automobil enpresa ospetsuak 20 milioi euro inguruko eskaera egin dio Fagor Arrasateri. Hain zuzen ere, prentsa robotizatuen linea bat eta trokelak probatzeko beste prentsa bat egitea agindu dio Ford-ek Arrasateko enpresari.

**SEKTOREAN GORAKADA**

Ekonomia adituen arabera, suspertze txiki bat ematen ari da automobilen sektorean eta horren lekuko dugu autoen produkzioak Errumanian izandako hazkundea. Hain justu, Ford-ek Errumanian duen lantegira bideratuko dituzte Fagorrek ekoiztutako tresnak. Estanpazio sistemen eta prentsen munduko ekoizlerik garrantzitsuenetako bat da Fagor. Ez da lehen aldia Fagorrek Ford-erako lan egiten duena; Australiako Forden lantegirako linea robotizatuak egin ditu.

Genero berdintasunean urteetako lana egin du Izasun Moiuak, eta, aurrerapausoak eman baldin badira ere, oraindik ere bada zeregina. Emakumeek nahikoa borrokatu dute, eta gizonezkoen unea iritsi dela iruditzen zaio. Hamar urtez Emakunderi lotuta egon ondoren, egungo zuzendaritzaren ekimen falta kritikatzen du, baita Eusko Jaurlaritzarena ere.

**Izaskun Moiua** > Emakundeko zuzendari ohia

# "Emakunde geldirik dago, ez dute ideia berririk aplikatu, ezta zaharrik ere"

**LANDER MUÑAGORRI** > OÑATI

**Izaskun Moiua (Oñati, 1958) emakumeen berdintasunarengatik lan eskerga egindakoa da. 1999an Emakundeko idazkari orokor izendatu zuten eta 2005ean erakunde horretako zuzendari, iaz arte. Gaur egun Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen aholkulari lanetan dabil, bere esperientzia eta jakinduria mahai gainean jartzen. Joan den astean Oñatin izan zen Debagoieneko EAJk antolatutako *Debagoiena eraikitzen* zikloaren barruan hitzaldi bat egiten.**

**Zein kontzeptu landu duzu hitzaldian?**

Demokrazia berdintasunarekin eraikitzen den ala ez jorratu dut. Maria Samprano feministak orain dela 100 urte esan zuen demokrazian bizi nahi badugu pertsona izan behar dugula lehendabizi. Nire gaurko galdera honakoa izan da: ea emakumeak munduan zehar pertsonak garen edo nola sentitzen garen gizarteetan.

**Eta zuk nola ikusten duzu emakumea?**

Gauza asko lortu direla ikusten dut, baina ez gara itsuak. Badakigu aurrerapauso ikaragarriak eman behar direla, bai lan merkatuan, arlo pribatuetan, biolentzia munduan, eta hortik zehar ibili behar dugu. Gauzak, gainera, ez dira aldatuko zerutik hala etorriko direlako. Erantzunak guk eman behar ditugu, gure artean hausnarketak egiten, politikak martxan jartzen, gizarte mugimenduak sortzen, eta antzeko pausoak eman behar dira aurrerantzean ere.

**Eta berdintasuna inoiz egongo bada, zein pauso eman behar da?**

Nik uste dut garrantzitsua izango dela gizonezkoen partaidetza. Emakumeak egon gara orain arte lehen lerroan, eta iritsi garen lekuraino iritsi gara. Horrekin zera esan nahi dut, gu sartu gara hezkuntza, prestakuntza eta lan munduan, eta arlo pribatuarekin partekatu dugu hau guztia orain arte. Ate horretan ibili gara irten eta sartzen. Eta gizonak oraindik ez dira arlo pribatuan sartu ere egin. Hori emakumeentzat oztopo handia bihurtzen da. Gizonezkoek euren hausnarketak egin behar dituzte, baina horretaz gain ekintzara pasatu behar dute. Eta hemendik aurrera, hortik ibiliko da iraultza, gizonen barruan mugimenduak sortzen eta ekintzak egiten. Hausnartu beharko dute zelan izan aitak, zelan semeak, arlo pribatuan zelan bizi, emozioak...

**Emakumeek nahikoa borroka egin dute...**

Nik uste dut hor paraleloki joan behar dugula aurrerantzean. Orain arte bakarrik etorri gara, oso bakarrik. Baina uste dut garrantzitsua dela jakitea zelan egin dugun ibilbide hori. Izan ere, iraultza baten ibilbidea izan da hau guztia, eta horrek seguru gako garrantzitsuak emango dituela aurrera egiteko garaian. Baina horrek ez dio berdintasunari begira bakarrik eragingo, baizik eta gizarteko beste hainbat erronkatan aurrera egiteko ere balioko du.

**Emakumeen aurkako indarkeriak, bien bitartean, bere hartan jarraitzen du... Zerbait gaizki egin da? Zer egin behar da?**

Gizarte osoa aldatu behar da. Nik uste dut tirita batzuk ipintzen ari direla, baina arazoa estrukturala da, eta horren aurka joan behar da. Gizarte banandu bat dago gure baitan. Alde batetik gizon batzuk daude pentsatzen dutenak emakumeen jabe direla; eta beste aldean emakume batzuk daude pentsatzen dutenak euren ondoko gizonak euren jabeak direla. Eta hor dena aldatu behar da; harremanen mundua, nork bere bizitza pertsonala nola egiten duen, nola ikusten duen bere pertsona eta nola ikusten dituen aliantza guztiak bera pertsona izateko, autonomoa izateko eta pertsona integral bezala mugitzeko. Noski, eta aldaketa hori izango da iraultza bakarra. Historian zehar ikusten da iraultza hau badatorrela, eta oraindik ere jarraitzen duela. Feminismoa da gaur egun ideologia, mugimendu edo teoria politiko unibertsal bakarra. Feminismotik zer ikasi badaukagu, nola pentsatzen den, eta zein mugimendu egin daitekeen. Hortik ideiak hartu, eta ondoren martxan jarriz.

**Iaz arte Emakundeko zuzendari izan zara, aldaketak etorri ziren arte. Zein iritzi duzu zuzendaritza berriari buruz?**



Izaskun Moiua, Oñatiko kultura etxeko belardian. LANDER MUÑAGORRI

GENERO INDARKERIA
**"Tiritak jarri dituzte, baina arazo estrukturala da, gizartea aldatu beharrean dago"**

EUSKO JAURLARITZA
**"Berdintasun Legea geldirik dago, ez dute garatu; konpromisorik ez dute edukiko, bestela sumatuko zen"**

Hasieran pentsatu nuen pertsonak aldatuko zirela, eta horrekin ideologia ere bai. Eta normala da, azken finean beste alderdi bat baitator. Gauzak aldatuko zirela sumatzen baldin banuen ere, aurrerapausoak ere emango zirela espero nuen. Baina ez da horrela izan. Nire ustez, oso geldirik dago Emakunde, eta erakunde bezala atzerapausoak eman dituztela uste dut.

**Adibidez?**

Emakumeen aurkako biolentziaren gaia Emakunderi kendu, eta Barne Sailari eman diote. Eta hori broma hutsa da. Izan ere, Barne Sailak baditu bere konpetentziak, segurtasun arloan, baina ez ezberdintasunaren esparruan. Eta pentsatu behar dugu genero biolentzia prozesu baten ondorio dela, ezin dugu ezberdintasunetik atera eta departamentu baten barruan bakarrik jarri. Guk sortutako erakundea baztertu egin dutela iruditzen zait. Emakunde orain geldirik dago, eta pena ematen dit, erreferente bat izan baikara, bai Estatu mailan, eta baita Europa mailan ere. Munduan zehar gauzak nola egin ditugun azaltzen ibili gara, eta eredu izan gara beste gobernu eta gizarteentzako. Agian, goiz izan daiteke nondik nora doazen epaitzen hasteko, baina nahiko geldirik ikusten ditut gauzak.

**Zuek izan zineten, gainera, lehenengoak Berdintasun Legea urratzen. Lopezen gobernuak legea betetzen duela iruditzen zaizu? Hainbat alderdik kritikak egin dizkiote azken denboraldian...**

Lege bat betetzea konplikatua da, eta hori onartu egin behar da. Baina kezka ematen dit pausoak ez ikustea. Guk jarri genituen hainbat egitura, programa neurri... Baina den-dena ezin izan genuen egin. Gobernu berriak espero nuen aurrerapausoak emango zituela, beste neurri batzuk hartu, artikuluak garatu... Baina ez, dena geldi-geldirik ikusten dut. Seguru aski, ez dute sinisten. Izan ere, gai hauetan sartuta bazaude edo konpromiso politiko eta pertsonala baldin badaukazu, nabaritzen da. Nik uste dut nahiko geldirik geratu direla, eta horrela ikusten da kanpotik ere.

**Orain, ordea, kanpaina bat jarri dute martxan guraso langileen berdintasunaren inguruan...**

Bai; kanpainak beti dira onak, sentsibilizatzeko eta kontzientzia sortzeko ondo daude. Baina kanpaina hori, betiere, beste programazio baten barruan sartuta izan behar dute. Ezin ditugu kanpainak atera txanpinoiak bezala, nork bere departamentuan. Hori, nire ustez, problematikoa da, nahiago dut sentsibilizazio kanpainak egitea, baina marko batean. Eta nik ez dakit marko zabalagorik ba ote daukaten. Dudak ditut...

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**kale inkesta**

# Gurasoek, terrazan eta lagun artean daudenean, ez dituzte euren seme-alabak kontrolatzen?



**Felix Barrocal**
Langilea
Bergara

"Nire ustez, ez da horrela. Ni, pertsonalki, zerbait hartzen banago plaza batean, une oro alaba kontrolatuta izaten saiatzen naiz. Hori bai, lasaiago egoteko, haurrari kasurik egiten ez dionik ere egongo dela uste dut".



**Elisabeth Garate**
Langilea
Bergara

"Denetik izango da; batzuk egongo dira umearen gainean. Nekeza da une oro umea kontrolatzea; eta kristalen bat apurtzen badute jolasean, suerte txarra ere izan daiteke. Horretarako daude seguruak, ezta?".



**Aitziber Jaca**
Langilea
Ordizia

"Nik ez dut uste hala denik, baina egia da Bergaratik kanpo, beste herrietan ere entzun dudala kontua, eta kexatu ere egin direla. Egia da, umea badaukazu, arreta ezinbestekoa izan behar dela".



**Javier Peña**
Langilea
Segura

"Guraso batzuk neurriak hartu beharko lituzkete seme-alabak zaintzerako orduan. Erraza da arreta eta ardura galtzea, batez ere, txikito batzuk gainean badituzte eta lagunartean solasean gustura badaude".

**zorroztailea**



**Elena Laka**

## Ama 40

"Euskadin haur gehiago jaiotzen da 40 urtetik gorako amengandik 25 urtetik beherakoengandik baino. 2010eko lehen hiruhilekoan, 40 urtetik gorako 323 emakume ama izan ziren Gipuzkoan. Iazko sasoi berearen aldean, %19,5eko hazkunde bat da hau."

Diario Vasco > 2010-09-18




Errukia sortzen dute inguruan 40 urtetik gorako haurdunek, batez ere, lehenengo umea badute; handiagoa, zeroaren ordezko zifra hazten doan neurrian.

Errukia sortzen dute 40 urtetik gorako amen artean, hauek badakitelako zein neketsua den haurtxo bat haztea, eta eurenak koskortzeko bidean, sekulako nagia sartzen zaielako pentsatze hutsarekin berriro hasieratik ekin behar dutela.

Errukia sortzen dute ama ez diren 40 urtetik gorako emakumeen artean. Andre hauek amatasunari uko eginda, bizitza bere buruaren inguruan eratuta, sekulako zama irizten diotelako beren antolamendua iraultzera etorriko litzateken jaioberri bati.

Errukia sortzen dute beraien amen artean. Izan ere, emakume hauek 40 urte zituztenerako emakume nagusiak ziren, eta euren alabak ere hala ikusten dituzte, nagusiegi. Uste dute, gainera, amona titulua beranduegi datorkiela.

Errukia sortzen dute, azkenik, 40 urtetik beherako gainerako haurdunen artean, 30 urte inguruko emakumeek 40 urtetik aurrerakoak nagusiegitzat dituztelako.

**"40 urtetik gorako haurdunek errukia sortzen dute inguruan"**

**"Ama perfektua izateko taula-koderik ez dago"**

Alegia, lehen aldiz ama izatea erabaki duen 44 urteko emakume ulermenaren ordez (mulier mulieris lupus est) errukizko begirakuneak jasoko dituela. Eta hala ere, hazi egin da 40 urtetik aurrera, nabarmen aurrera sarritan, haurdun geratzen den emakumeen kopurua.

Hala ere, adin honetako emakumeek, gorputzaren eta adimenaren sasoi betean, erabat euren buruen jabe, sarritan bikotekide gazteagoa dutela, aukera egiten dute amatasuna estrenatzeko. Amatasuna eme izateko aukeretariko bat izanda, neska hauek erabili egiten dute bere bizitzan aurrera egiteko.

Betiko eztabaida da hobe ote den umeak gazte ala nagusi izatea. Ez dago inongo taula-koderik amatasun perfektuaren nondik norako arautzeko. Ama perfekturik ez dago. Daude pertsonak, eta egoerak, eta maitasunak, ardurak, arretak, akatsak, ikasketak, perzepzioak, musuak, enpatiak, zentzuak, gogoak. Horiek guztiak berdin izan daitezke onak zein txarrak, 25ekin zein 45ekin.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA

**> Egueneko istripuaren ostean, arazoak errepidean**

Irakurle batek haserre deitu digu esanez, joan den eguenean, Elorregi auzoan izandako istripuaren ondorengoak ez zituztela behar bezala bideratu ertzainek. "Errepidea itxi egin zuten eta autobidetik bidali ibilgailuak. Hala ere, ilara luzeak sortu ziren Bergarako tunelean; baina hori bai, gero autobideko ordainsaria berdin-berdin kobratu ziguten".

ESKORIATZA

**> Mugikortasun Eguna egunero izan dadila**

Eskoriatzar batek diosku egunotan ospatzen dabiltzan Mugikortasun Eguna egunero izan behar dela. Eta gogorarazi gura du horretan zeresan handia dutela gurasoek: "Eskolara autoetan eramaten ditugu umeak, oinez eta bizikletan ibiltzen erakutsi beharrean". Horregatik, autoak erabili barik ikastetxeetara joateko ekimena txalotu egin du baina "egunero egin dezagula".

OÑATI

**> Bidegorria bizikletendako da bakarrik**

Oñatin egin berri duten bidegorria –Bidaurreta inguruan– bizikletendako bakarrik dela gogorarazi gura du txirrindulari batek: "Erretiratu asko joaten da paseoan eta ume aulkiekin gurasoak ere bai, baina bizikletendako egin dute bidegorri hori eta egunen baten istripuren bat gerta daiteke". Hala bada, oinezkoek beste bide batzuk dituztela dio oñatiar horrek.

**usteak uste**

**Maider Arregi**

## Migeltxu eta Maritxu Kajoi

Ixorretarrak argiak dira eta badakite jairen bat "plagiatu" behar badute, zein aukeratu. Aurten ere, urriaren 1ean, bizkaitar asko jantziko da dotore; baina oraingoan, nongo jai giroa aukeratuko dute? Bizkaira ala Gipuzkoara joango dira?

Arrasateko festaren jarraitzaile askok euren iritzia azaldu dute Maritxu Kajoiren *Facebook*-eko profilean. Migeltxu Kajoik Maritxuk beste lagun izan nahi baldin baditu, bizkor ibili beharko da. Era berean, lagun birtualak egin beharko ditu, sareko eztabaidan parte har dezaten. Bizkaitarren jai berriak indarra hartzea badu helburu, sarean ere presentzia izan beharko luke, Maritxuk bezala.

Oñatiarrok ez gara gerra horretan sartuko; izan ere, gure Herri Egunarekin nahikoa eta sobera daukagu! Hala ere, gustura hartzen ditugu Maritxutako gaupaseroak eguerdi partean!

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Goiatz Arana **Erredakzioa** Mirari Altube, Ander Monedero, Maider Arregi, Lander Muñagorri **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> BERGARA**
Orhipean parke tematikoak kolorez jantzi du herria eta jendetza batu du asteburuan **> 12**



**> ARRASATE**
Maritxuren "lehengusu" Migeltxu Kajoi sortu dute Iurretan; Arrasaten, gertu dute egitaraua **> 14**



**> ARETXABALETA**
Algara ludoteka ezagutzeko ate irekiak egingo dituzte aste honetan eta hurrengoan **> 19**

**OÑATI** > HAUR DANTZARIEN EGUNA

# Indartuta eta dantza berriekin ospatu dute umeek 40. urteurrena

**GIRO APARTA**
450 ume inguruk erakustaldi polita egin zuten herriko plazan eta erdiguneko kaleetan barrena

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Egun handia ospatu zuten atzo Oñatin ibarretik zein bestelako herrietatik etorri ziren gaztetxoek. Urduritasunak eta emozioak alde batera utzita, bikain aritu ziren guraso eta lagunen txalo artean. 40 urteren ostean, Haur Dantzarien Eguna sasoian dagoela nabarmen gelditu zen. Eta badira bi pertsona hasiera hasieratik lanean ibili direnak: Jesus Irizar *Txutxin* dantzaria eta Gotzon Osinaga txistularia. Biek 40 urte daramatzate gogor lanean. *Txutxin*-ek azaldu zigun, "mantentzea garrantzitsua" dela eta lanean jarraituko dutela. Osinaga ere pozik azaldu zen haur dantzarien egunak izan zuen harrerarekin: "Hau gurea da eta mantendu egin behar dugu; kentzen badigute...".

**ALARDEA ETA DANTZA BERRIAK**

Alardeko ohiko dantzez gain,dantza bereziak eta berriak egin zituzten gaztetxoek. Aretxabaletako Leizarrak ere gogotsu itzuli dela erakutsi zuen.



Eguerdi partean mokadutxo bat, indarrak berreskuratzeko. J.A..



Goizean, erdiguneko kaleetan barrena ibili ziren gaztetxoak. J.A.



Arratsaldean, Alardean hartu zuten parte 12 dantza taldek. JOSETXO ARANTZABAL

**Jesus Irizar 'Txutxin'** > Oñatz dantza taldea

## "Lehen debekatuta zegoenez, talde gehiago etortzen zen"

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

**40 urte daramatza lanean Oñatz taldearekin herrian aski ezaguna eta maitatua den Jesus Irizar *Txutxin* oñatiarrak. Positiboki ikusten du ume dantzarien egunak izan duen eboluzioa.**

**Eguna ikusita, zein da balorazioa?**

Pentsatu baino gutxiago etorri dira, 450 inguru, eta erdiak Oñatikoak gara, gainera. Hala ere, pozik gaude ez delako gutxi!

**Pixkanaka badoa berriro indarra hartzen, ezta?**

Bailaran mantentzen dela uste dut. Hala ere, ez dugu ahaztu behar Eskoriatzan eta Bergaran ez dagoela talderik. Aretxabaletako Leizarrak aurten berriro ekin dio, zorionez. Balorazioa nahiko positiboa egiten dut, helburua mantentzea da-eta.

**Lehen talde gehiago etortzen zen. Zer gertatu dela uste duzu?**

Lehen debekatuta zegoen eta badakizu, debekatutakoa zenez, jendea gogotsuago etortzen zen. Orain, modatik pasatu da eta gutxiago datoz. Dena den, guk hau mantentzeko eta aurrera egiteko ahal dugun guztia egiten dugu.

**Oñatzeko txikitxoen taldea harrobia al da?**

Gure kasuan, gaztetxoenen artean helduenak direnak nagusien taldera pasatzen ditugu, bi urteko epean. Talde nagusiko lanak egiten ikastea da gure helburua, ondoren Gorputzi jaietan eta bestelako ekitaldi garrantzitsu batzutan parte hartzeko edo, behintzat, nagusien lana ikasten joateko.



JOSETXO ARANTZABAL

**Jendeari zer esango zenioke?**

Oñatiko elkarteei eskerrak eman nahi dizkiet beti laguntzeko prest daudelako, baita Udalari ere. Gurasoek ere ume asko hartu dituzte etxeetan eta ez gaituzte bakarrik uzten. Orokorrean dena baloratzen dut positiboki. Hori bai, oñatiarrei eskatu nahi diet horrelako ekitaldietara etorri eta dantzariei euren babesa emateko.

**BERGARA** > ORHIPEAN PARKE TEMATIKOA

# Hitzaldiek, dokumentalek eta azokak jendetza ekarri dute



Eguerdiko ordu batean jendetza ibili zen herriko plazan eta erdiguneko kaleetan barrena. JOSETXO ARANTZABAL



Bitxigintzak beti pizten du jendearen arreta. J.A.



Sahieski, odoloste eta txorixo erreek jendetza erakarri zuten bazkal orduan. MIRARI ALTUBE



'Orhiko xoria, orhin laket' antzezlana, herriko plazan. J.A.

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Gure sustraiak barneratu, ezagutu eta ikasteko aukera aparta egon da aste bukaeran. Jendeari galdetuta, askotariko iritziak jaso ditugu, baina guztiak bat datoz parke tomatikoarekin gastronomia festa bikaina batera izan dutela esaterakoan. Kultura eta ohitura ezberdinak ezagutzeko jai paregabea ere bada. Hala, Lugotik ekarritako olagarroa bere puntuan nola egin ikasi zuten askok. Butifarra eta espezie desberdinen sekretuak jakinda ere, bat baino gehiago joan zen etxera hurrengo egunerako errezeta berriak buruan zituela.

**BALORAZIO POSITIBOA**

Enara Minguez Kultura zinegotziak Orhipean parkearen izaera tematikoa nabarmendu gura izan du: "Herriko historian oinarrituta, lehengo kontuen berri izan eta ikasteko aukera izan da". Bergaran, lehenengoz egin dute ekimen hau eta aurrera begira berriz ere izango den galdetuta, horrela erantzun digu Minguezek: "Udalak ondo ikusiko luke, beti ere, Laborantza Ganbera, Nabarralde eta Txoriak Txori enpresekin elkarlanerako aukera sortuko balitz".



**Blas Astarriaga**
Jaen

"Kultura nahasketa ederra dakargu: txerrikumea, okela errea, gazta, odolosteak... Euskaldunak primeran portatzen dira beti".



**Asier Elortza**
Bergara

"Aste bukaerarako plan polita da. Kontzertuak, antzerkia, postuak, asto karabana... umeekin buelta bat emateko aukera ona".



**Juan Carlos Campos**
Lugo

"Padrongo piperrek eta olagarroak dute arrakasta gehien. Olagarroaren sekretua zein den? Asko mimatzea sukaldean".



**Izaskun, Aroa, Ariadne, Kelly eta lagunak**
Elorrio, Arrasate eta Bergarako lagun koadrila

"Barikuan eta zapatuan ibili gara azokan. Gazta jan dugu eta tatuajea ere egin dugu. Produktu batzuk ez dira horren merkeak, baina oso gauza politak ikusi ditugu. Gainera, Frantziatik etorri den talde baten doinuak ere entzun ditugu; asko gustatu zaizkigu musika emanaldiak".




Bizkai aldera egin beharrean, Oñatira joan dira aurten motorzaleak. JOSETXO ARANTZABAL


Saltzaileak eta erosleak, zuzeneko hartu-emanean. G.A.


Epaimahaikideak tortilla onena aukeratzen. J.A.

**ELGETA** > ZAPATUA ETA DOMEKA

# Baserriko produktu, sagardo eta motor... aspertzeko betarik ez

## Ekitaldiz beteriko aste bukaera izan dute elgetarrek; eta eguraldia, bide-lagun

**GOIATZ ARANA** > ELGETA

Elgetako plazak askorako eman du zapatu goizetik atzo eguerdira arte. Zapatu goizean, herriko baserritarren saltoki izan zen: tomate, letxuga, porru, baba, piper, sagar, ezti, lore... etxean dituzten produktuak eraman zituzten plazara, eta baita saldu ere; harrera ona izan zuten herritarren partetik.

Arratsaldean, gaztetxeak antolatutako Sagardo Egunak hartu zion lekukoa azokari. Haurrek gozatu egin zuten jolasean, eta hainbat herritarrek mantela jantzi eta sukaldari lanak egin zituzten, tortillarik onena nork egingo. Pello Bilbaok eta Oskar Sarasuak osatutako Juizioa taldeak irabazi zuen lehiaketa.

Herri afaririk ez-eta txitxiburruntzia egin zuten 30 bat lagunek; parrillan erretako saiheskia eta txorizoa janez, afari-pasara egin zuten.

Eta gauean, musika: Plan B, Sumision City Blues eta UK Bill taldeek kontzertua eman zuten gaztetxean. Hiru taldeak egon ziren ondo, nahiz eta Plan B-k jo zuen momentuan batu zen jende gehien.

**VESPA ETA LAMBRETTA**

Domeka goizean, motor hotsarekin esnatu ziren elgetarrak. Fresko egiten zuen lehen orduan eta eskuak hoztuta iritsi ziren motorzaleak herrira. Vespa eta Lambretta, 70 bat batu ziren guztira; horietako batzuk, sidekar eta guzti.

**BERGARA** > TOSTOI ETA ERREILENOEN KOFRADIA

# 11. kapituluan, osoko bilkuren aretoan kabitu ezinik

## Bergararrak hunkitu egin ziren, Txintxurreta anai-arreben izendapenarekin eta Musika Eskolako Kamara Orkestraren saioarekin, bereziki

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Tostoi eta Erreilenoen Kofradiak lau ohorezko kofrade berri ditu: Txintxurreta anai-arrebak –Felisa, Antxoni, Eusebio eta Florita–, ostalaritzan egindako lanarengatik; Jokin Etxaniz pilotari ohia eta Aspeko entrenatzailea, pilota munduan egiten dabilen lanarengatik; Galarreta Oinetako denda, 100 urte baino gehiago daramatzalako funtzionamenduan; eta Musika Eskola, 25 urteko ibilbideagatik. Atzo, domeka, jaso zuten izendapena; pozik guztiek, batez ere,Txintxurretarrek, eurekin akordatu izanagatik. Hunkitu egin ziren eta, eurekin, herritarrak.

10:00etan hasi zituzten 11. kapituluko ospakizunak. Pilotalekuan, kanpotik etorritako kofradiei ongi-etorria eman eta Moja Klarisen elizara egin zuten, meza entzutera. Handik udaletxera kalejiran joan ziren gero, eta han, leporaino betetako osoko bilkuren aretoan, ohorezko kofrade berriak izendatu zituzten. Musika Eskolako Kamara Orkestrak Vivaldiren *Negua* eta *Udaberria* piezak jo zituen. Eguerdian, 120 lagun inguru elkartu ziren Lasa jatetxean egindako bazkarian.


Ohorezko kofradeak aurreneko ilaran, izendapena jasotzeko zain. JOSETXO ARANTZABAL

Ordaintzeko erraztasunak
OION Ullone S.Coop.
ETXEBIZITZAK KOOPERATIBAN
KOSTE PREZIOAN
120.000 € tik aurrera
▸ 2,3 eta 4 logelako etxebizitzak
▸ Garajea
▸ Sukaldea barne


Arrasate
Anboto
Iturriotz, 11 • Arrasate
www.inmoarrasate.com
943 77 14 11

**JAIAK** > MIGELTXU KAJOI

# Migeltxu Kajoi: Maritxuren Iurretako "lehengusua"

## Maritxu Kajoi eta Iurretako jaiak batera izanda, iurretarrek "harra" izan dute "beti" Arrasatera etorri ezin izanagatik; hortik Migeltxu Kajoi

**UBANE MADERA** > ARRASATE

"Iurretako Sanmigelak izanda, iurretarrok ez dugu sekula aukerarik izan Arrasatera Maritxu Kajoira joateko, eta beti joateko harra izan dugunez, aurten pentsatu dugu guk egitea Maritxu Kajoiren lehengusuaren eguna: Migeltxu Kajoi"; halaxe azaldu du Eneko Abasolok, Iurretako jai batzordeko arduradunak euren ideiaren jatorria.

"Baina inork ez dezala pentsatu konpetentzia denik, ezta gutxiago ere, ez dadila inork txartzat hartu; beste jai osagarri bat da", hori ere gehitu gura izan du iurretarrak.

**PROZESIO ETA GUZTI**

Izan ere, egun berean izango dira Maritxu eta Migeltxu Kajoi: urriaren 1ean.

Iurretako kasuan, 19:00etan hasiko dute jaia: "Prozesioa eta guzti egingo dugu; iurretarrok ere oso zaleak gara prozesioak egiten, batez ere tabernaz taberna egiten ditugulako. 19:00ak inguruan hasiko dugu, txarangatxo batekin. Migeltxo Kajoi eramango dugu gure besoetan, aldarea edo zerbait ipiniko diogu –badabiltza prestatzen–; herri osoa zeharkatuko dugu jendeak ikus dezan; gero bera dagoen lekuan zerbait egingo zaio; eta ondoren erromeriaren txanda izango da. Lehenengo urtea da eta ea zela irteten den".

**ESKAPULARIO ETA MIRARI BARIK**

Esaterako, momentuz, ez dutena izango da eskapulariorik, eta Migeltxuk miraririen bat egingo duen ere ez dago oso argi: "Miraririen bat egitea ondo egongo litzateke; dena den, nahikoa mirari egiten du urtero, iurretarrok zuzen joaten gara-eta etxera jaietan, eta hori nahiko mirari da (barreak)... ikusiko dugu, ikusiko dugu...".

Hori bai, loreak eramango dizkiote iurretarren zaindariari, *siemprevivak*: "Lora hori da dantza egiten dugunean gainean daramaguna eta seguru Migeltxuk ere izango duela *siemprevivarik*", dio Abasolok.

**MIGELTXU, KANPANDORREAN**

Maritxuk eta Migeltxuk ere badute beste antzekotasun bat: Arrasaten Maritxu bere kaxan sartuta dago, San Juan parrokiaren albo batean, Erdiko kalea eta Herriko plaza zaintzen.

Iurretan, berriz, kanpandorrean dute Migeltxu, baina hura ere herriko plaza zaintzen dago. Hori erakusten duen kopla eta guzti egin diote iurretarrek Migeltxuri. "San Migelek hiru irudi ditu: bata aldarean bertan, beste bat eliza barruan, eta hirugarrena kanpandorreko zulotxo batean, eta hura da guretako Migeltxu; kopla bera ere badauka: *Hirugarrenak kanpandorretik begiratzen du plazara, Jaiak asko gustatzen zaizkio baina ez da joaten mezara*... hori da Migeltxu Kajoi gurea".



Migeltxu Kajoi, Iurretako elizako kanpandorrean. ENEKO ABASOLO

**LAUDION ERE BAI**

Eta ez bakarrik Bizkaian, Araban ere badu beste "imitatzaile" bat Maritxu Kajoik. Kasu honetan, Laudion iaz antzeko egun bat ospatu zuten baserritarren egunean, Txinparta koadrilaren eskutik.

### Joseba Iglesias, Joxepa Arregi eta Konpartsa gogoan

Maritxu Kajoi komisiñuek aurkeztu ditu aurtengo egitaraua eta kartela.

Egitarauari dagokionez, betiko umorearekin eta herritarren bat goraipatzen duten bertsoekin dator; aurten, Joseba Iglesias eta Joxepa Arregi dituzte gogoan.

Eta jaiari dagokionez, oraingo egubakoitzerako egiten dute lehen hitzordua, *Nobenaixorako*. Maritxupean elkartzeko gonbitea da (18:30). Iragarri dute inbutu preziatua Erraldoi eta Kilikien Konpartsari emango diotela, 25 urteotako lanagatik.




Aurtengo jaiaren kartel iragarlea. MKJ

**ELKARTASUNA** > ARDO BIRA BEREZIA

# 'Barra librea' Mondra Taberna inauguratzeko

## Eguenean, 19:00etatik 21:00etara edariak eta pintxoak doan emango dituzte Mondran

**U.M.** > ARRASATE

Mondra futbol taldearen eta Arrasateren koloreak oinarri, Lagunilla tabernak eguaztenean zabalduko ditu ateak izen eta izaera berriarekin: Mondra Taberna moduan.

**REALEKOEN ERANTZUNAREN ZAIN**

Eguazteneko irekiera, baina, pribatua izango da, klubekoendako; hori bai, akaso sorpresa eta guzti, Mondrakoak badabiltza-eta, Realarekin harremanetan Realeko norbait gonbidatu moduan ekarri ahal izateko. "Entrenamenduen arabera... klubak berak erabaki behar du norbait etortzeko moduan izango den edo ez", dio Patxi De Andresek, Mondrako presidenteak eta goizero Mondra Tabernako barraren atzean izango denak.

**EGUENEAN DENONDAKO**

Egueneko irekiera publikoari dagokionez, berriz, 10:00etan zabalduko dute taberna, baina duda barik, iluntzerako egin dute hitzordurik handiena, bai behintzat, herritarrendako. "Barra librea ipini behar dugu 19:00etatik 21:00ak arte. Gainera pintxopote eguna ere bada...".

Eguenaz geroztik Mondra Taberna egunero zabalduko dute, eta joateko gonbita egin dute: "Etortzeko, bidezko kausa batengatik da-eta"; batutako dirua Mondrarendako izango da.



Patxi De Andres Mondrako presidentea, Mondra Tabernako barran. U.M.

**oharrak**

HEZKUNTZA
**> Eskola publikoa**
Arrasate Herri Eskolan irailaren 30era arte zabalik dute haurreskolatan matrikulatzeko epea, Bedoñabe eta Musakolako herri eskolatan, hain justu ere. 0-2 urteko umeendako deialdia da hori, ikasturtea azaroan hasteko.

MERKATARITZA
**> Emausek saltoki berria**
Bost arropa bost euroren truke. Datozen egunotan eskaintza berezi hori jarriko dute Emausekoek Arrasateko bigarren eskuko saltokian. Eskaintza berezia da, gura dutelako denda hustu eta Zaldibarren zabalduko duten saltoki berrirako guztia gertu izan. Urriaren 1ean estreinatuko dute denda berria.

**Rakel Muñoz** > Esperientzia Eskolaren arduraduna

# "Plaza gutxi eskaintzen ditugu diru-laguntzen menpe gaudelako"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Mugabe elkartearen eskutik, Esperientzia Eskola 2008an heldu zen Arrasatera; eta Rakel Muñoz Mugabeko teknikari eta Esperientzia Eskolaren arduradunak dioenez, lehen urtean "arrakasta handia" izan zuen. Ahoz ahoko komunikazioak eskaera handia eta eskaintza txikia eragin du; izan ere, 25 ikasle berrirendako lekua dago bakarrik. 50 urtetik gorakoei eta lanik egiten ez dutenei zuzenduta, dagoeneko heldu dira hirugarren ikasturtera; urri erdialdean hasiko da.**

**Esperientzia Eskolaren arrakasta bistakoa da Arrasaten. Zergatik, zure ustez?**

Arrakasta ez da Arrasaten bakarrik eman, Gipuzkoako beste hainbat udalerritan ere oso erantzun ona izan du Esperientzia Eskolak. Gai asko lantzen dira, besteak beste, artearen historia, literatura edota bertako geografia. Ikasle bakoitzaren garapenari garrantzi handia ematen zaio eta ezagutza intelektualaz gain, ohitura osasungarriak hartzea ere bilatzen dugu. Hala, erlaxazioa, gorputz adierazpena, dietetika edota nutrizioa ere lantzen ditugu.

Bestalde, ikastaroak jende edadetua aktibo izatea bilatzen du: horretarako, hezkuntza da bidea baina, horrez gain, herriaren onerako izango den proiektu bat batera abiaraztera animatzen zaie. Arrasateko taldeak, esaterako, bi urte daramatza ibarreko historiaren gaineko informazioa jasotzen. Sekulako lana egin du; liburu bat eta guzti atera du antzinako elizen gainean.

**Eskaera handia da, ez ordea, eskaintza: 25 plaza bakarrik. Zer dela-eta?**

Mugabe elkartea erakunde ezberdinek ematen dituzten diru-laguntzen menpe dago, erabat. Mugatuta gaude diru aldetik, horregatik plaza gutxi eskaintzen ditugu. Aurten, dagoeneko oso leku gutxi dago, iazko itxaron zerrendakoei lehentasuna eman diegulako. Baina geratzen da tokia oraindik: izena eman gura duenak dei dezala lehenbailehen 943 224 146 telefonora.

**"Ezagutza intelektualaz gain, ohitura osasungarriak irakastea ere bilatzen da"**

**"Ez dago azterketarik, ezta apunteak hartu beharrik ere; klase parte hartzaileak izaten dira"**

**Zertan dira ezberdinak edozein eskolako eta Esperientziaren Eskolako klaseak?**

Eskola izena darama, baina askoz informalagoa da. Klaseak erabat parte hartzaileak –baina parte hartzera behartu barik– izaten dira. Hau da, klasean zehar ikaslea irakasle izan daiteke eta alderantziz. Adituak gaiaren gainean sarrera egiten du eta gero eztabaidarako tartea uzten du. Bestalde, ez dago azterketarik ez eta apunteak hartu beharrik ere; apunteak ikasturte hasieran ematen dira. Ondorioz, klaseak oso dinamikoak dira.

**Ikasitakoa nola eramaten dute praktikara?**

Ikasturtea are dinamikoagoa izan dadin, irteera, hitzaldi eta erakusketetan hartzen dute parte, klasean ikasitako gai ezberdinen gainean.



Rakel Muñoz argazkian. MUGABE

> URTEURRENA

### Alkartetxeak 24 urte beteko ditu irailaren 25ean, zapatuan

Arrasateko Eusko Alkartasunak jakinarazi duenez, Alkartetxeak 24 urte beteko ditu zapatuan, hilak 25. Hala, EAk lagun eta alderdikideei deitu die, 14:00etan egingo den bazkarira joan daitezen.

> IKASTAROA

### Helduendako Capoeira ikastaroa, urri hasieratik aurrera

Senzala elkarteak antolatuta, helduendako Capoeira ikastaroa izango da San Viatorren. Hasiberriak urriaren 4an edo 6an has daitezke, 19:30etik 20:30era. Aurreratuak 4an hasiko dira, 20:30etik 21:30era.



JOKIN BEREZIARTUA

### Kaleko artearen azken "biktima": Iluntz

Grafitiak modan dira, azkenaldian bereziki. Zapatuan AEDk San Andresen egingo duen skate jaian grafiti gunea egongo da, esaterako. Bada, Iluntz taberna izan da azken "biktima": Lexuri Doyagek aurrez Julen Rivasek egindako *Joker*-a apaindu du; Rivasen muralari puntu musikala eman dio Doyagek. Merezi izan du; emaitza ikustea besterik ez dago.

**AISIALDIA** > TXATXILIPURDI

## Udalekuen errepasoa egin ostean, gazte txokoek bihar ekingo diote ikasturte berriari

Bihar zabalduko dira Erguin, Musakola eta San Andres auzoetako egoitzak; ikasturte berria iazkoa gogoratuz hasi dute

J.B. > ARRASATE

*Izan gazte, izan ero, izan gaztetxokero.* Esaldi horrek merezi duen indarra berreskuratuko du asteon. Izan ere, Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoak martxan jartzear dira: bihar, irailak 21, ekingo zaio ikasturte berriari Erguin, Musakola eta San Andresko egoitzetan.

Ikasturteari gogo biziz ekingo diote, nahiz eta Lander Juaristi Txatxilipurdiko dinamizatzaileak adierazi duenez, ez duten ikasturte hasierako ekitaldi berezirik prestatu.



Erguingo gazte txokoan uztaileko udalekuak gogoratu zituzten eguenean. J.B.

**UDALEKUEN ERREPASOA, EGINDA**

Joan den eguen arratsaldean, Orioko udalekuetan izan ziren bi txandak batu ziren Musakola eta Erguingo gazte txokoetan. Hala, gaztetxoek udalekuetan egindako lagunekin berriz ere elkartu eta barre on batzuk egiteko aukera izan zuten, hezitzaileek jarri zizkieten udalekuetako argazkiak ikusten. Argazkiekin gozatu ostean askari ederra egin zuten: denetarik jan eta edateko parada izan zuten. Gainera, argazkiak etxera eraman zituzten CD baten, oroigarri moduan.



Zabalotegiko eskolan jarri dute *Txiki-txokoa*. GOIENKARIA

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Gaur irekiko dute 'Txiki-txokoa' Zabalotegiko eskola zaharrean

Astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 17:00-20:00 ordutegian, umeek gurasoekin jolas egiteko

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Gaur, astelehena, zabalduko dute *Txiki-txokoa* Zabalotegiko eskolan. 0 eta 5 urte arteko umeak aitaamarekin egoteko eta jolasteko lekua izango da; batez ere eguraldi txarra egiten duenean gurasoak seme-alaba txikiekin egoteko eta jolas egiteko aterpea izango da. Doakoa, gainera.

Egutegiari dagokionez, astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, arratsaldez, 17:00-20:00 ordutegian.

**BI GUNETAN BANATUTA**

*Txiki-txokoak* bi ikasgela ditu: bata oinez dabiltzan umeendako izango da; eta bestea, oraindik katamarka dabiltzan umetxoendako.

Ekipamenduaren kasuan, minimoa izango du; psikomotritzatea lantzeko erabiltzen den materiala bakarrik –koltxoneta batzuk, kuboak...– jarriko dute. Jostailuak norberak eroan beharko ditu. Horrekin batera, gurasoendako kafe-makina ere egongo da.

Komunak ere badaude, bata umeendako eta beste bat nagusiendako.

Bestalde, kontuan hartzekoa da ez dela egongo begiralerik, ezta beste arduradunik ere. Hori horrela, gurasoak egingo dira umeen kargu.

**EGURALDI TXARRERAKO**

Hasiera baten negurako zerbitzua izatea nahi dute udal arduradunek. Eguraldi txarra egiten duenean gurasoek umeekin non egon izan dezaten atondu dute Zabalotegiko eskola zaharra. Hori horrela, eguraldiaren arabera erabiliko dela uste dute: txarra egiten duenean hobea egiten duenean baino gehiago.



MONIKA BELASTEGI

## Euriari aurre egin zioten danborrariek

Zegokiona baino apur bat lehenago abiatu zen eguenean San Martin eguneko umeen danborrada. Euriak aterrunea egin eta horixe aprobetxatu zuten danborrari, japoniar eta sukaldariek erdiguneko kaleetan barrena ibiltzeko. Euriaren beldurrez ohikoa baino azkarrago egin zuten ibilbidea, baina, hala ere, ez zuten zertan hutsik egin eta banderadunak udaletxeko balkoira igo ziren herritarrei agur egitera.

**KULTURA** > DANTZAK

# Zabalik da Jardunen euskal dantzetarako izenematea

Plazako dantzen gaineko ikastaroa da eta eskolak hasiko dira irailaren 28an

**M.B.**> BERGARA

Ikasturte berriarekin batera, euskal dantzen ikastaroa antolatu du Jardun euskara elkarteak. Hain justu ere, plazako dantzen ikastaroa antolatu dute.

Irailaren 28an hasiko dira eskolak eta izango dira martitzenetan: 19:30-20:30 ordutegian izango da hastapen maila eta 20:30-21:30 ordutegian, berriz, jarraipen maila. Irakasleari dagokionez, Patxi Monterok emango ditu eskolak.

Ikastaroaren prezioa da 12 euro hilean –10 euro Jarduneko bazkide izanez gero–. Izena emateko jo Jardunek Errotalde jauregian duen bulegora edo deitu 943 76 36 61 zenbakira.

**IKASTARO GEHIAGO**

Bestalde, gogoratu behar da urriaren 2an abiaraziko duela Jardunek ikasturte berria. Aurten ere eskaintza zabala dauka eta izenematea zabalik dago irailaren 24ra arte.

Izena eman daiteke Arrizuriko asteburuko aisialdi taldean –urriaren 2an eta 3an ate irekien jardunaldia egingo dute–: Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako neska-mutikoendako da eta zapatu eta domeketan, 17:00-20:00 ordutegian, jolasak, tailerrak, eskulanak... egiten dituzte, Arrizuriaga jauregian. Eta bertso eta trikiti eskoletan. Bietan ala bietan eskolak aste barruan izaten dira, gehienez ordu eta erdiz.



Patxi Montero, Elgetako dantza saio baten. GOIENKARIA

## oharrak

ZOZKETA

**> Bergarako Realzaleak taldeak eskerrak eman nahi ditu**

Autoaren zozketa antolatzen laguntza emandako kolaboratzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiete Bergarako Realzaleak taldekoek. Zozketa hilaren 25ean, datorren zapatuan izango dela ere ekarri nahi izan dute gogora taldeko kideek.

IKASTAROAK

**> Yoga, eskulan eta margo ikastaroak San Joxepen**

San Joxepe elkartea hiru ikastaro abiaraztekoa da: yoga ikastaroa hasiko da hilaren 20an eta eskolak izango dira astelehen eta eguaztenetan, 10:00-11:30 ordutegian; eskulan ikastaroa hilaren 21ean hasiko da eta eskolak izango dira martitzenetan, 15:30-18:30 ordutegian; eta margo ikastaroari dagokionez, urrian hasiko da, baina ordutegia zehazteke dago.

HEZKUNTZA

**> Irailaren 25ean ospatuko du Aranzadik III. Ikastola Eguna**

Jokoak, puzgarriak, ibilaldia eta bazkaria egingo dituzte, besteak beste. Bazkarirako izenematea da hilaren 22ra arte, ikastolan.

ERLIJIOA

**> San Pedro eta Santa Marinako katekesirako izenematea zabalik**

Irailaren 20an, 21ean eta 22an izango da izenematea –adin guztietako taldeendako–, 17:00-18:00 ordutegian, Komenio kalean.

SALMENTA

**> Mizpirualde zaharren egoitzak baserri bat jarri du salgai**

Mizpirualde zaharren egoitzak Irazabal-aundi baserria saldu nahi du. Informazio gehiagorako deitu egoitzara (76 13 68 telefono zenbakia) edo idatzi *www.bergara.net* helbidera.



Antzerki lanaren une bat. GOIENKARIA

**KULTURA** > ANTZERKIA

# 'On egin mon amour' familia osoarendako antzerkia zapatuan

## Teatro Salitre&Teatro Mutante taldeek ekarriko dute kale antzerki hori; 19:00etan izango da, Fraiskozurin

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Teatro Salitre&Teatro Mutante antzerki taldeek ikuskizuna egingo dute datorren zapatuan, hilaren 25ean. *On egin mon amour* izeneko kale antzerkia egingo dute, hain justu ere, eta izango da 19:00etan, Fraiskozurin.

Jakiak sukalde-trizikloan prestatzen dituen *chef* berezia da kale antzerki horren protagonista.

Zapore handiko umore mokadutxoak prestatuko ditu, mimo karamelatuz bustita, eta, horrekin batera, *clown*-zopa, une magikoen entsalada epela eta opera zatitxoen rissotoa ere egingo ditu Fraiskozurira hurbiltzen diren guztiendako. Hain justu ere, ikusleekiko harremana bilatuko du antzezlaneko protagonistak.

**ITZULERA LANA**

Teatro Salitreren itzulera lana da *On egin mon amour* –Teatro Mutanterekin elkarlanean–.1999. urtean eten egin zuen ibilbidea, eta, garai hartan bezala, ikusleekiko hartu-emanak eta musikak garrantzi handia izaten jarraitzen dute taldearendako.

**ERAKUSKETA UDALETXEAN**

Bestalde, San Martin jaietan egin den 37. margo lehiaketako lanak ikusgai daude osoko bilkuren aretoan. Bederatzi lan daude ikusgai hilaren 25era bitartean astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00 eta 12:00-14:00 ordutegian.

Erakusketa hori bukatu bezain laster beste bat jarriko dute osoko bilkuren aretoan: Rikardo Azkargorta margolariaren Beart elkarteko ikasleen lanak egongo dira ikusgai udaletxean.

**HEZKUNTZA** > EUSKARA

# UNEDeko Idazle Eskolan izena emateko epea zabalik

## Urriaren 11ra arte da izenematea Hezkuntza Sailak homologatutako gradu-ondokoan

**M.B.** > BERGARA

Idazle Eskolak 2010-2011 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du, urriaren 11ra bitartean. Zortzigarren urtez antolatu dute eta orain arte 114 ikasle aritu dira. Horietatik 99k amaitu dute Hezkuntza Sailak homologatutako gradu-ondokoa.

Funtsean, urrian hasi eta ekainaren hasieran amaitzen diren eskoletan –zapatuetan dira eskolak, 09:00-13:30 ordutegian– genero eta araubide ezberdinetako lanak idazten eta zuzentzen erakusten diete idazleek idazle-gaiei. Izan ere, Idazle Eskolan euskal idazleak dira euskaraz idatzi nahi dutenenen irakasle.

Aurten irakasle jardungo duten idazleetako batzuk dira: Anjel Lertxundi, Edorta Jimenez, Harkaitz Cano, Aizpea Goenaga, Pako Aristi eta Tere Irastortza.

**INTERNETEZ BALIATZEN DIRA**

Ikasketak UNEDen egiten diren arren, alderdi telematikoak garrantzi handia du eta, besteak beste, gaur egun bide birtualak ematen dituen aukerak aprobetxatuta, *www.idazten-.com* webgunean ikasleen lanak argitaratzen dira.

Izena emateko edo informazio gehiagorako idatzi t*irastortza@idazten.com* helbidera edo deitu honako telefono zenbakira: 639 45 62 04.



Koldo Mitxelenan aurkeztu dute matrikulazio kanpaina arduradunek. GOIENKARIA

**txaloak eta txistuak**



M.B.

# Harriak botatzen dituzte garajeko sarrera-irteerara

Irakurle batek honako kexua helarazi digu: "Ibargaraiko ziburuen azpian dugu garajea eta harako sarrera-irteerak harriz beteta egoten dira, ziburuetan ibiltzen diren umeek botatakoak. Guraso zein zaintzaileei eskertuko nieke hori zaintzea".

**JENDARTEA** > INGURUMENA

# Autoa eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa antolatu du Udaleko Ingurumen Sailak

## Urriaren 2an izango da, doan, eta izena eman behar da kultura etxean

**M.B.** > BERGARA

Udaleko Ingurumen Sailak, Energiaren Euskal Erakundearen laguntzarekin, automobilak eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa antolatu du.

Ikastaroa izango da urriaren 2an, zapatua, 09:30-13:30 ordutegian, kultura etxean, eta doan izango da. Interesatuek izena eman beharko dute kultura etxean.

Ikastaroak atal teorikoa eta praktikoa izango ditu eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da B motako gidabaimena izatea, gutxienez sei hilabeteko antzinatasunarekin.

**ERAGINKORTASUNA ONURAGARRI**

Gidatze eraginkorrak hainbat onura eta abantaila ditu. Esaterako, erregaiaren kontsumoa eta $CO_2$aren emisioa txikitu egiten dira. Horrekin batera, istripuak izateko arriskua ere askoz txikiagoa da, estresa txikitzen delako. Bestalde, aurreztu ere egiten da mantentze kostuetan –balaztak, lozagia, abiadura-kaxa...–. Eta hori guztia, bidean denbora luzeagoa eman gabe eta erosoago gidatuz, adituen esanetan.

**LAU ORDUKO IKASTAROA**

Ikastaroak atal praktiko eta teorikoak ditu eta lau orduko iraupena. Aurkezpenarekin irekiko dute ikastaroa eta ondoren, autoa hartu eta lehenengo itzulia egingo dute. Aurrez finkatutako ibilbidean ibiliko dira ikasleak, eta erregaiaren kontsumoa eta emandako denbora neurtuko dituzte.

Ikasgelara itzulita, gidatze ekonomikoaren gakoak azalduko dizkiete ikasleei eta bukatu eta gero, irakasleak erakustaldi praktikoa egingo die ikasleei: hasiera batean egindako ibilbide bera egingo du berriz, eskola teorikoan jasotako azalpenak kontuan hartuta. Irakasleak bukatu eta gero, ikasleek ere lehengo ibilbide bera egingo dute, eskola teorikoan jasotako azalpenak kontuan hartuta, eta erregaiaren kontsumoa eta emandako denbora neurtuko dituzte.

Ikastaroa bukatzeko, bi ibilbideen arteko emaitzak aztertu eta konparatuko dituzte eta aurreztutako erregai eta dirua zenbatu egingo dute. Horrekin batera, saihesten den CO2 emisioen kantitatea ere neurtzen dute.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2010eko irailaren 20a

SANEAMENDUA > LANAK

# Arantzazun saneamenduko lanak egiteko deialdia

Interesa duten enpresek urriaren 9ra arteko epea dute euren proposamenak aurkezteko

Foru Aldundiak 1,5 milioi euroko aurrekontua du lanok egiteko

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Foru Aldundiak Arantzazuko saneamendu lanak egiteko deialdia egin dien enpresei. Oharra Gipuzkoako Aldizkarian argitaratu zuten hilaren 13an. Interesatuek urriaren 9ra arte dute euren proposamenak aurkezteko. Lanak sei hilabeteko epean egin beharko dituzte Girder Ingenieros SL enpresak egidako proiektua aintzat hartuta, eta urte bukaeran hasiko dituzte. Alegia, jendearengan eragin handien izango duten lanak neguko hilabeteetan egingo dituzte, bisitari gutxien joaten diren hilabeteak direlako.

Arantzazu eta Oñatiko saneamenduak lotzeko lanok egiteko 1,5 milioiko aurrekontua dute Foru Aldundiko arduradunek.

**BI PONPAKETA-PUTZU**

Lanak egingo dituen ingeniaritza enpresak idatzitako saneamendu proiektuaren arabera, 5,3 kilometro hodi jartzea aurreikusten dute; horien artean daude frantziskotarren santutegian jarriko dituzten hodi nagusia eta bi adarrak. Hodi biltzaileak eramango ditu urak Urtiagaineraino eta han egingo du bat Oñatiko saneamendu sarearekin. Instalazio berriak bi ponpaketa-putzu izango ditu: Arantzazun bata eta Urtiagainen bestea.

Lanei esker Arantzazuko ingurunearen saneamendu sistema orokorra osatuko dute (2008an egin zuten zati bat).

**BASERRI BATZUK KANPOAN**

Lanak hasi barik daude, baina Arantzazuko auzotarrak kezkatuta daude. Ez daude guztiz ados Foru Aldundiak egindako proiektuarekin. "Proiektu horren barruan santutegi inguruko etxeak bakarrik sartu dituzte, eta kanpoan geratzen dira gainerako baserriak. Hori horrela, saneamendua ez da auzotar guztiendako berdin izango. Egia esan, kezkatuta gaude", dio Javier Arregi Arantzazuko auzo-alkateak. Auzotarren ustez, Aldundiak esku artean duen aurrekontuarekin "posible" izango litzateke baserri guztiak hartuko lituzkeen proiektua egitea.



M.B.

## Musika eskola berritzeko lanak bukatu dituzte

Jose de Azpiazu musika eskolakoek Aldundiaren eskutik jasotako dirulaguntza ondo inbertitu dute. Oporrak hartu aurretik hainbat eraberritze lan egin zituzten 39.000 eurorekin: besteak beste, leihoak aldatu, paretak eta jolaslekuan dauden gelak margotu eta ateetako sarrailak aldatu zituzten. Gainera, eskolarako materiala ere erosi zuten 10.677 eurorekin: akordeoiak, tronboiak, klarineteak eta gitarra elektrikoak, besteak beste. Eta irakasleendako ordenagailuak eta gelak hornitzeko armairuak eta altzariak ere erosi dituzte. Moldaketokin, itxura berriarekin hasi dute ikasturtea herriko musika eskolakoek.

### oharrak

ERAKUSKETA

**> Artzuagaren lanak ikusgai hilaren 26ra arte**

Miguel Angel Artzuagak hil aurretik egindako margolanak ikusi ahal izango dira astelehenetik domekara bitartean, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxeko erakusketa aretoan. Oñatiko txoko ezberdinetan egindako lanak eta Parisen eta Erroman egindakoak jarri dituzte ikusgai.

DEIALDIA

**> 1970ean jaiotakoek kintada egingo dute**

Bazkaria egingo dute Etxe Aundi jatetxean urriaren 16an. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte lehenbailehen Euskadiko Kutxako 303500053400 51042653 kontu zenbakian.

HITZORDUA

**> Hitzaldia egingo dute eguztenean**

Brais Varela abokatu eta Gurutze Gorriko boluntarioak *Los jóvenes en prisión* delako hitzaldia egingo du kultura etxean, eguaztenean 18:30ean.

JAIAK > SAN MIGELAK

## Herri Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude

Guria, Umerea, Antton, Arrano, Izarraitz eta Olakua tabernetan eros daitezke 19 eurotan

M.B. > OÑATI

Urriaren 2an egingo duten herri bazkarirako sarrerak salgai daude dagoeneko. Herri Eguneko bazkarirako 1.000 txartel jarri dituzte herriko sei tabernatan: Guria, Umerez, Antton, Arrano, Izarraitz eta Olakua tabernetan.

Txartelak 19 eurotan saltzen dituzte. Menua izango da: marmitakoa, arkumea txilindron erara, hostopil tarta ananarekin, kafea eta kopa.

Herri bazkaria kiroldegiko kantxa berdean egingo dute, 14:30ean.

JAIAK > BARRAKAK

## Plazako aparkalekua itxita eguaztenetik aurrera

M.B. > OÑATI

Eguaztenean helduko dira San Migeletako barrakak Oñatira. Hori horrela, hilaren 22tik urriaren 6ra arte itxita egongo da plazako aparkalekua ibilgailuendako. "Gaur bertan jarriko ditugu aparkalekua itxiko dugula dioten kartelak. Dena den, gaur eta bihar aparkatu egin ahalko da", esan digute Udaltzaingotik.

Jaiak bukatu arte beste aparkaleku batzuk erabili ahalko dira: osasun etxearen atzean dagoena, Olaitturri eta kiroldegiko lur azpiko aparkalekuak.

**MERKEAGO**

Bestalde, hilaren 27an, astelehena, barraketako txartelak merkeago salduko dituzte; hain zuzen ere, euro baten.

> ERRETIRATUAK

## Pake Lekukoek ikastaroan egindako lanak ikusgai

Pake Leku erretiratuen elkartean egindako ikastaroetan jardun dutenek egindako lanak ikusgai jarri dituzte. Gaurtik eguenera arte ikus daitezke, 17:00etatik 20:30era arte. Besteak beste, bitxigintza eta orratz lanetako ikastaroetan egindako lanak jarri dituzte.

Aurten ere hainbat ikastaro egingo dituzte: areto eta euskal dantzak, Photoshop eta euskara, besteak beste.



Eskoriatzako Olaeta plaza eta garajeetara doan sarrera. M.A.

**ESKORIATZA** > OSOKO BILKURA

# Olaeta plazako garajeen arazoa konponduko dute

### Joan den astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran Udalak erabaki zuen dirua bideratzea kontu horretara, bizilagunekin batera finantzatzeko

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Astelehenean, hilak 13, egindako ezohiko osoko bilkuran kreditu aldaketa batzuk egitea erabaki zuen udalbatzak, era ezberdinetako hainbat proiektu aurrera eroateko.

Proiektuetako bat da Olaeta plazako garajeek duten arazoa konpontzea; hau da, garaje horiek iragazgaitz bihurtzea. Espazio pribatua da, baina, erabilera publikoa duenez, bizilagunekin akordioa lortu du Udalak, obrak elkarren artean finantzatzeko.

Garaje horiek urarengandik babesteko honako lanak egin beharko dituzte: plazako zorua altxatu; iragazgaiztu; eta ondoren berriro jarri harlauzak. Aspalditik datorren arazoa da, eta, hori jakinik, aurten egin gura ditu lan horiek Udalak.

Beste partida batzuetara ere bideratu zuten dirua; proiektuak idazteko partidara, esaterako. Enplegurako hainbat prestakuntza tailer egiteko ere aurreikusi zuten dirua eta herriko irisgarritasuna hobetzeko plana garatzeko ere bai, azken hori Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin.

**AUZI ERREKURTSOA**

Bestalde, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren estatutuen aldaketari eta hondakinen transferentzia eta tratamendurako zerbitzu publikoa kudeatzeko erregelamenduari auzi errekurtsoa jartzea erabaki zuten astelehenean. Gobernu taldeak, EAk eta Elizateek alde bozkatu zuten, Hamaikabat eta PSE alderdiek aurka eta EAJ abstenitu egin zen.

**ARETXABALETA** > AISIALDIA

# Ludoteka ezagutzeko ate irekiak datozen bi asteotan

### Hainbat jarduera egingo dituzte ume eta gazteek adinaren arabera banatutako taldeetan

**M.A.** > ARETXABALETA

Astean hasiko dute ikasturtea Algara ludotekan eta lehenengo bi asteotan herriko ume eta gaztetxo guztiendako zabalduko dituzte ateak Gernika plazako gunea ezagut dezaten.

**LEHEN ORDUA, TXIKIENENDAKO**

Bihar, irailak 21, hasi eta urriaren 1a bitartean adin bakoitzari egokitutako jarduerak egingo dituzte taldetan banatuta. Talde bakoitzak bere ordutegia izango du eta arduradunek jakinarazi dute derrigorrez errespetatu beharko dela ordutegia.

Arratsaldeko lehen ordua (17:00-18:30) txikienendako, hau da, Haur Hezkuntzakoendako izango da. Bihar, martitzena, karaokea izango dute 4 urtekoek; eguaztenean, ludoteka ezagutuko dute lehenengo aldiz joango diren 3 urtekoek; eta eguenean karaokea dute 5 eta 6 urtekoek.

Arratsaldeko bigarren ordua (18:30-20:00) Lehen Hezkuntzakoendako da. Haiek ere karaokea egingo dute martitzenean –2. eta 3. mailetakoak– eta eguaztenean –4., 5., eta 6. mailetakoak–. Eguenean, jolas gidatuak izango dituzte bigarren eta hirugarren mailetakoek.

**ESKULANAK ETA JOLASAK**

Datorren aste guztian, ostera, karetak, eskulanak eta jolasak egingo dituzte, bai gidatuak, bai libreak. Eguenean, hilak 30, gainera, mahai jolasen lehiaketa izango dute zazpi eta hamabi urte artekoek –LHko 2.mailatik 6. mailara.

Behin ludoteka ezagututa matrikula egiteko epea zabalduko dute; hala, urte guztian joan ahal izateko bertara.



Umea ludoteka ezagutzen begiralearekin. GOIENKARIA

> DEIA

### Uztailean udalekuetan ahaztutako mantalak jasotzeko eskatu dute

Joan den uztailean Eskoriatzan egin ziren udaleku irekietara mantalak eraman zituzten ume askok, antolatutako jardueretan ez zikintzeko helburuarekin. Mantal horietako asko, baina, ez zituzten jaso udalekuok bukatutakoan eta orain kultura etxean dauzkate gordeta.

Hori horrela, udal ordezkariek gogorarazi gura diete oraindik mantala jaso ez duten gurasoei irail guztian izango dituztela kultura etxean, eta, mesedez, pasa daitezela bertatik jasotzera.

> DANTZA

### Jaiki elkarteak antolatuta erritmo eta dantza tailerra urrian

Erritmo eta dantza tailerra jarriko du abian Jaiki elkarteak urrian eta Gabonak arte iraungo du. Magdalena Milano izango dute irakasle eta funka, dantza afroamerikarrak, hip-hop mugimenduak eta beste hainbat irakatsiko dizkie.

Eskolak martitzenetan izango dira (18:30-20:00), urriaren 5ean hasita, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Izena emateko edo argibide gehiagorako Jaikiko kideengana jo (943 53 43 96 edo *jaikielkartea@yahoo.es).* Tailerraren kostua da: 25 euro langabeek eta 35 euro langileek.

**EUSKARA** > UDAL EUSKALTEGIA

# Leintz Udal Euskaltegiak euskaraz ikasteko aukera zabala eskaintzen die herritarrei

### Eskolak Aretxabaletan eta Eskoriatzan ematen dituzte eta matrikulatze epea zabalik daukate asteotan

**M.A.** > ESKORIATZA/ARETXABALETA

Dagoeneko 25 urteko esperientzia duen Leintz Udal Euskaltegiak matrikulatze epea zabaldu du. Izena emateko eta argibide gehiagorako bertara jo behar da –943 79 21 68–. Eskoriatzan eta Aretxabaletan ematen dituzte euskaraz ikasteko eskolak eta ordutegi malgua eskaintzen dute.

**EDONORENDAKO ESKAINTZA**

Eskaintza zabala daukate: euskaraz ez dakitenendako euskalduntze maila guztiak eta euskaldunendako alfabetatze eta EGA mailak. Gainera, ikastaro bereziak egin ohi dituzte: euskalkiaren gainekoak; administrazioko hizkuntza eskakizunak lortzeko; merkatariendako; gurasoendako; eta etorkinendako. Ohiko ikastaro horiez gain, *on line* ikastaroa ere eskaintzen dute.

Leintz Udal Euskaltegiko arduradunek diote euskara ikasteko gutxienez bost arrazoi daudela: "Seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko erraztasuna lortzea; euskarazko komunikabideak ulertu ahal izatea; euskaltegian lagun berriak egitea; lana aurkitzeko erraztasuna; eta euskaraz irakurtzen eta idazten trebatzea".


Iturrieta sagardotegiko jangela. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > ZERBITZUAK

# Iturrieta itxita, errepidea berriro zabaldu arte

Aurreko asteburutik itxita dago Arraga auzoko sagardotegia: "Sagardo denboraldian eta udan ez badator jendea, pentsa orain...", dio jabeak

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Aurreko aste bukaeran itxi egin zuten Arraga auzoan dagoen Iturrieta sagardotegia. Jabeak emandako arrazoia: itxitako errepideak eragindako kalteak.

Juanjo Peciña 47 urteko gasteiztarrak 1998ko uztailaren 25ean ireki zuen Iturrieta sagardotegia. Peciña kexu da Aramaio eta Arrasate arteko errepidearen itxierak bere negozioarentzat eta orokorrean herritarrentzat ekarritako galerengatik: "Urte hau oso txarto joan da guretako. Sagardo denboraldian eta udan ez badator jendea, pentsa orain...". Gauzak horrela, A-2620 errepidea berriro zabaldu arte, behinik behin, sagardotegia ixtea erabaki du: "Gauzak lasaiago hartuko ditugu eta baserriko beste lan batzuei ekingo diegu bien bitartean".

**SAGARDOA EGITEN LASTER**

Peciñak azaldutakoaren arabera, hilaren bukaeran hasiko dira sagardoa egiten. Urtero 10.000 litro sagardo inguru egiten dituzte. Hala ere, errepidearekin zer gertatuko zain daudenez, eta aurtengoa ikusita, baliteke oraingoan sagardo gutxiago egitea. Bere garaian, 1.000 arbola inguru landatu zituzten Iturrieta inguruan. Sagardotegia zabalik egoten denean, hiruzpalau lagunek diharduте bertan lanean. "Batez ere, asteburuan etortzen da jendea, nahiko urrun, apartatuta dagoelako gure sagardotegia", diosku.

**KALTEEN ORDAINA**

Iturrietako jabea ez da askorik fidatzen Diputazioak emandako epeekin. Gogoratu behar da errepidea urtarrilaren 31 ezkero itxita dagoela eta urtea bukatu baino lehen berriro zabalik izango dela agindu dutela. Peciñaren arabera, hainbat dendarik eskatu zuten izandako kalteen ordaina orain lau hilabete. Oraindik ere erantzunaren zain daudela dio. Bidea itxita dagoela esateko Diputzioak jarritako seinaleak batere argiak ez direla ere salatu du.

**ANTZUOLA** > KIROLA

## Olaldeko lau palistek urrian hasiko dute Gipuzkoako txapelketa Urnietaren kontra

Manso, Bargiela, Iturbe eta Alberdi izango dira Antzuolako ordezkariak eta etxeko lehen partidua urriaren 15ean jokatuko dute

**MIREIA BIKUÑA** > ANTZUOLA

Antzuolako kirolariek apurka-apurka hasi dute denboraldia. Olalde elkarteko palistek urriaren 8tik 10erako aste bukaeran hasiko dute Gipuzkoako txapelketa. Lehen lehia Urnietaren kontra jokatuko dute etxetik kanpo.

Manso, Bargiela, Iturbe eta Alberdi izango dira Antzuolako ordezkariak txapelketan, azken biak bikote eginez.

**ANTZUOLAN, EGUBAKOITZETAN**

Txapelketako parte-hartzaileak bi multzotan banatuko dituzte. Antzuolarrak A taldean egongo dira Urnieta, Txost, Altzatarrak eta Hendaiarrak taldeekin batera.

Etxeko partiduak egubakoitzetan jokatuko dituzte, 20:30ean, herriko frontoian.

**PILOTARIENDAKO DEIALDIA**

Bestalde, Olalde elkartekoek deialdia egin dute pilotan jokatu nahi duten umeendako. Bihar entrenamendua egingo dute, 18:00etan, pilotalekuan, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara arteko neska-mutikoendako. Pilota elkarterako jokalari berriak behar dituzte: etorkizuneko pilotariak.

**ELGETA** > ERRETIRATUAK

## 80 urtetik gorako bazkideak omenduko dituzte eguenean

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak lau urtetik behin egiten duen bazkaria datorren astean egingo dute Ozkarbi elkartean

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Gonbidapenak banatuta daude; izan ere, Xalbadorpe elkarteak 80 urtetik gorako 64 bazkide ditu eta guztiak daude hilaren 23an, eguena, Ozkarbi elkartean egingo duten bazkarira gonbidatuak. Ekimenak harrera ona izan du eta 40 bat lagunek konfirmatu dute parte-hartzea. Bazkaldu aurretik, 13:00etan, meza entzungo dute eta bazkalostean Kutxak emandako opariak banatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean.

**SANTO DOMINGON, PRIMERAN**

Eguaztenean, bestalde, erretiratu taldea Santo Domingo de la Calzada herrian izan zen egun pasa. Primeran ibili zirela esan digute. David Morena upategian egin zituzten hamarretakoa eta bazkaria. Santo Domingo eta Haro ere bisitatu zituzten.


Erretiratuek herriko jaietan egin zuten azken bazkaria. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > ERRETIRATUAK

## Nafarroa aldera joango dira erretiratuak urriaren 8an

Gatzagarrak nagusitu ziren joan den astean egindako gastronomia lehiaketan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Udazkeneko irteera gertu dauka Leintz Gatzagako Toki Eder erretiratuen elkarteak. Urriaren 8an izango da, egubakoitza, eta, iaz legez, Nafarroa erdialdera joango dira: Lizarra, Aiegi, Iratxe eta bertako monasterio eta txokoetara. Harrera ezin hobea egin zieten iaz inguru haietan eta paraje benetan politak ezagutu zituzten. Hala, bada, ezin gusturago itzuli ziren erretiratuak eta irteera errepikatzea erabaki dute.

Izenemate epea dagoneko zabalik daukate eta zuzendaritza batzordeko kide Teresa Aranburuzabala edo Pedro Mari Elkorobarrutiarengana jo behar dute interesatuek.

**GATZA ETA GASTRONOMIA**

Bestalde, Debagoieneko erretiratuen elkarteek antolatutako gastronomia lehiaketa egin zuten joan den astelehenean Leintz Gatzagan –Arrasateko Abaroan ez zutelako tokirik–. Partehartzaile bi bakarrik agertu ziren lehiaketara, aretxabaletarrak eta gatzagarrak, eta etxekoak izan ziren nagusi buztana gertatzeko orduan.

Toki Eder elkarteko sukaldean gertatu zuten jatekoa eta Jose Riviere arrasatearrak –Gipuzkoako erretiratuen elkarteko presidentea– eta Jesus Mari Herrasti aretxabaletarrak osatutako epaimahaiak Maritxu Plazaola eta Beni Altuna gatzagarrek gertatutako buztana hautatu zuen irabazle. Jai giro ederra izan zuten egun guztian –gertatutakoarekin bazkaria egin zuten gero–, trikitilari eta guzti joan baitziren Aretxabaletako Basotxo elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak.

# Kirola



**> AUTO-IGOERA**
Aitor Zabaleta bergararra izan da azkarrena Leintz Gatzagan **> 22-23**



**> FUTBOLA**
Partidu eskasa jokatuta, Bergarak galdu egin du Berioren kontra **> 24**



**> ESKUBALOIA**
Soraluze BKE eta Ford Mugarri, defentsa lanak hobetu beharrean **> 25**

# Gonzalez Oñatin eta Bilbao Bergarako probetan txapeldun

**LEHENDAKARI**
Ramon Domene alacantarra garaile lehendakari proban

**SEGUROS BILBAO**
Taldekako saria seigarrengoz jarraian lortu du

**LANDER MUÑAGORRI** > ARRASATE

Asteburu honetan txirrindulari probak izan dira nagusi Debagoienan, izan ere, bi proba egin dira: zapatuan Oñatin eta domekan Bergaran. Bi hauek, gainera, Lehendakari txapelketarako puntuagarriak izan dira eta, Bergaran egindako lasterketarekin, amaitu da 23 urtez beherako txirrindularientzako txapelketa hau.

Lehendakari txapelketa Ramon Domene Seguros Bilbao taldeko txirrindulari alikantarrak irabazi du, bigarrenez jarraian. Bergarako lasterketa ez zuen amaitu, baina ez zuen beharrik izan.

**BERGARA ETA OÑATIKO PROBAK**

Zapatuan XXIII. Oñati saria –Etxebarri memoriala– lasterketa egin zen, 102 kilometroko proba. Jose Manuel Gonzalez Cueva el Soplao taldeko txirrindulari kantabriarra izan zen denetan azkarrena helmuga igarotzen, Jesus Ezquerra taldekidearen babesarekin. Bere lehen garaipena izan zen. "Oñatitik oroitzapen gozoa" eraman zuen, bere hitzetan. Hirugarren sailkatua, eta mendiko trofeoaren garaile era berean, Jordi Simon Caja Ruraleko kirolaria izan zen.

Taldekako saria Cueva el Soplaok irabazi zuen. Probako garaile Jose Manuel Gonzalezek, saria jaso ondoren, bere taldekideek egindako lana nabarmendu zuen, ihesaldi guztietan parte hartu baitzuten.

Domekan, bestetik, Bergaran XLV. Martin deunaren saria jokatu zen. Bertan, Pello Bilbao Naturgas Energiako txirrindulari forutarrak eraman zuen garaipena. Atzetik sartu ziren Jordi Simon eta Alejandro Sivori Latorre-Palplastic taldeko txirrindulariak. Bergaran azkarrena izan zen Bilbaok adierazi zuenez, "aspaldi ez nuen garaipenik lortzen, beraz, modu onean amaitu dut denboraldia". Lehendakari txapelketaren sailkapenak era nabarmenean eragin zion domekako lasterketari, Seguros Bilbao eta Naturgas Energiako txirrindulariak elkar zaintzen aritu baitziren, uneoro.

Zapatuko lasterketan, Debagoieneko ordezkari bakarra izan zen, Xabier Aranzeta antzuolarra, baina ez zuen amaitzerik izan. Aranzeta Bergaran ere irtetekoa zen baina, azkenean,ez zuen parte hartu.



Txirrindulariak Debagoieneko errepideetan ibili dira aste bukaeran. JOSETXO ARANTZABAL



Pello Bilbao garaipena ospatzen helmugaratu ostean, Bergaran. J.A.

## Sailkapenak eta denborak

**XXIII. OÑATI SARIA**

| | |
|---|---|
| Jose Manuel Gonzalez | 02:31:22 |
| Jesus Ezquerra | 02:31:25 |
| Jordi Simon | 02:31:32 |
| Jesus Herrero | 02:31:50 |
| Joaquin Sanchez | 02:31:50 |
| Unai Intziarte | 02:31:50 |
| Steve Bekaert | 02:32:02 |
| Mikel Elorza | 02:32:10 |

**XLV. MARTIN DEUNA SARIA**

| | |
|---|---|
| Pello Bilbao | 02:23:41 |
| Jordi Simon | 02:23:58 |
| Alejandro Sivori | 02:25:00 |
| Adrian Lopez | 02:25:00 |
| Antonio Pedrero | 02:25:00 |
| Aitor Gonzalez | 02:25:00 |
| Sergio Angulo | 02:25:00 |
| Jesus Herrero | 02:25:34 |

**LEHENDAKARI TXAPELKETA**

| | |
|---|---|
| Ramon Domene | (Seguros Bilbao) |
| Ibai Salas | (Seguros Bilbao) |
| Pello Bilbao | (Naturgas Energia) |

**Ramon Domene** > Lehendakari txapelketako garailea

## "Lasterketa amaitu ez izanak garaile sentimendua zapuztu dit"

**L.M.** > ARRASATE

**Oñatiko lasterketan 10. gelditu zen Ramon Domene, Seguros Bilbao taldeko kide alacantarra, eta Bergaran ez zuen lasterketa amaitu. Denboraldian, ordea, bera izan da txirrindulari erregularrena.**



L.M.

**Zein izan da Lehendakari txapelketa irabazteko gakoa?**

Lehendakari txapelketa dagoen lasterketa luzeena da, martxoan hasi eta irailean amaitzen baita. Gogorra izan da, baina erregularra izan naiz orokorrean, eta ia lasterketaro lehen hamar postuetan sartu naiz helmugan. Nire ustez, hori izan da txapelketa irabazteko gako nagusiena.

**Bergaran ez duzu lasterketa amaitu...**

Bai, eta horrexegatik ez zait hainbesterainoko garaile sentimendurik geratu. Egia esan, denboraldi guztian zehar asko sufritu dut, gogorra izan da, eta orain neke hori guztia nabaritzen dut, batez ere, hanketan.

**Bigarren urtez jarraian irabazten duzu gainera txapelketa.**

Iaz Bergarako lasterketa honetan irabazi nuen txapelketa, puntu bateko aldearekin eta, zentzu horretan, iaz intensoagoa izan zen.

**Eta zure taldea ere, txapeldun!**

Bai, seigarren urtez jarraian irabazten du Seguros Bilbao taldeak txapelketa, eta garbi ikusten da hor taldeak duen nagusitasuna. Etorkizuneko txirrindulariak sortzen ari da Seguros Bilbao.

**AUTO LASTERKETAK** > GATZAGAKO XIV. IGOERA

# Aitor Zabaleta bergararra gailendu da Gatzagako igoera berreskuratuan

Angela Vilariño bigarren sailkatuari lau segundo atera dizkio

Igoeran parte hartu duten 46 auto gidaritik 12 debagoiendarrak izan dira

**LANDER MUÑAGORRI** > LEINTZ-GATZAGA

Gasolina usaina, motor hotsa eta jendearen berotasuna izan zen zapatu arratsaldeko gidoia Gatzagako XIV. igoeran. 22 urte antolatu gabe zegoen igoera hau, eta lasterketaren itzulera arrakastatsua izan zen. Denetara 46 partaide irten ziren irteera puntutik, 12 debagoiendar, eta bik ez zituzten bi txandak amaitu.

Lasterketan denbora onena Aitor Zabaletak egin zuen, 00:02:41. Haren atzetik sartu zen Angela Vilariño lau segundo gehiagorekin. Podiumeko maila apalenera igo zen bestetik Pantxo Egozkue, Zabaletarengandik zazpi segundotara.

Lehen bi postuetan zeintzuk egon zitezkeen aurreikus zitekeen arren, Silver Car-en artean lehia estua egon zen, hirugarren postua lortzeko. Pantxo Egozkue, Alberto Alonso eta Aritz Egozkuek txanda bakoitzean ehuneneko aldeak besterik ez zituzten elkarren artean.

**IBILBIDE MOTZA**

22 urteko hutsunearen ondoren, erantzun ona izan du Gatzagako igoerak, eta antolatzaileak ere oso gustura agertu ziren lasterketa amaitutakoan. “Jendearen erantzuna oso ona izan da, bide bazterrean ikusle ugari baitzeuden” dio Xabier Oñederra antolatzaileak. “Eguraldiak ere lagundu digu, eta ez da nabarmentzeko istripurik egon” zehaztu du.

Hala ere, hasieran pentsatutakoa baino ibilbide laburragoa izan da Gatzagakoa. Gaztanaduitik Marulanda arteko errepidearen egoera eskasa zen, eta ibilgailu batzuentzako ez zen batere egokia. Eta horixe bera izan da pilotu gehienek erakutsi duten kexa.

Rafa Diazek 80 hamarkadan behin baino gehiagotan hartu zuen parte Gatzagako igoeran, eta “behetik irteten ginenean politagoa zen. Azkarragoa zen askoz ere, lautadako tarte guzti horretan bizi-bizi joateko aukera ematen baitzuen” oroitzen du.

Hala ere, pilotuek eta ikusleek gehiago gozatzeko aukera eduki dezaten, hurrengo urtean igoera Arlabanen egiteko asmoa daukate antolatzaileek. Zapatuko igoerak 2,6 kilometroko luzera baldin bazuen, Arlabanekoak 6,5 izango lituzke. “Edizio honetan ere hemen egin nahi genuen igoera, baina ez ditugu baimenak lortu” dio Oñederrak.

**ERREPIDEAREN EGOERA**

Errepidearen egoera ere hizpide zeukaten gidariek. “Igoera ederra dauka amaiera aldean”, dio Jose Migel Gabilondok. Manuel Evanjelistak dioenez, gaur egun errepidea askoz ere hobeto dago orain dela 22 urte baino. “Asko zabaldu dute bidea, eta asfaltoa ere askoz ere egokiagoa da”.

Hala ere, aurkako iritzidun gidariak ere bazeuden. Ruben Nogeirasen iritziz “ibilbideak zulo asko zeuzkan. Okerren zegoen zatia landa-turismoaren ondorengoa zen; apur bat arriskutsua ere bazegoen”. Aitor Zabaleta garaileak ere “asfalto kapa baten beharra” igarri dio errepideari “gure automobilentzako nekeza da egoera horietako bideetan ibiltzea”.

Antolatzaileen hitzetan, ostera, “errepidea ez zen erabat ondo egongo, baina gaizki ere ez zegoen”. Hortaz, hemen ere gustu guztietarako iritziak.



Leintz Gatzagaren sarrerako bihurgunean pilotuek euren abileziak erakusteko aukera ezinhobea



Ikusleek gogotsu animatu zituzten pilotuak. J.A.



**Joseba Frutos**
Junior sariaren irabazlea

"Karrera uste baino hobeto joan da, autoak ondo erantzun dit, eta nahiz eta eskapadaren bat ere egin dudan ondo bukatu dut. Nire herrian (Eskoriatza) garaipena lortzea, gainera, gauza handia da".



**Rafa Diaz**
Pilotua

"Aurreko edizioetan parte hartu nuen, eta berriz ere hemen egoteak ilusioa egin dit. Lehen edonork irabaz zezakeen, gaur egun autorik ez badaukazu ez daukazu zereginik".



**Ruben Nogeiras**
Pilotua

"Espero bezala amaitu dut igoera. Hasieran denbora apur bat galdu dut Alberto Alonsok tronpo bat egin duelako. Txanda ofizialean akats batzuk izan ditut, baina azkenerako konpondu ditut".



**Manuel Evanjelista**
Pilotua

"Orain dela 22 urte Seat 124 batekin atera nintzen, eta orain Porsche batekin. Serieko auto gehiago ibiltzen ziren lehen, baina dibertitzeko gogoa berbera da oraindik ere".



**Jose Migel Gabilondo**
Pilotua

"80ko hamarkadan ibili nintzen hemengo igoeretan, eta oroitzen dudan gauzarik gozoena da behin hirugarren egin izana eta automobiletan lehenengo postuan geratu izana".




a eduki zuten. JOSETXO ARANTZABAL



Ia autoen gainean zeuden ikusleak. J.A.



Abiadura bizian zeharkatu zuten ibilbidea parte hartzaileek. J.A.



Lehen hiru sailkatuak sariak jaso eta gero Eskoriatzan. J.A.



Aitor Zabaletak arazoak izan zituen lehen txandaren ondoren. J.A.

**Aitor Zabaleta** > Auto pilotua

## "Pena da beheko zatia kendu izana, baina guk ezin genuen hortik pasatu"

**L.M.** > ESKORIATZA

**Aitor Zabaleta bergararra urteetan dabil lasterketetan parte hartzen. Makina bat garaipen lortutakoa da, baina orain dela 22 urteko Gatzagako edizio hura ezberdina izan zen.**

**Zer moduz joan da lasterketa?**

Lehenengo txandan ukitutxo bat eduki dut, eta bigarrenean hobeto egin dut. Kanbio luzeagoekin joan naiz, baina denbora berdina egin dut, eta hor dago nire duda. Arraroa egin zait niri bigarren txandan azkarrago igo naizela iruditu baitzait. Baina tira, orain horrek ez du horrenbeste axola.

**Orain dela 22 urte ere parte hartu zenuen leku berberean. Zer oroitzapen duzu garai hartatik?**

Hiru aldiz egin nuen. Urte ezberdinetan sinca, formula eta baketekin ibili nintzen. Orain dela 22 urteko edizioan, gainera, oroitzen naiz motorra apurtu nuela eta ezin izan nuela lasterketa amaitu.

**Ze alde sumatzen duzu garai hartatik gaur egunera?**

Hasteko eta behin zaharragoa naizela! Bestelakoan, berdin dago,



L.M.

goiko zatia azkarrago behekoa baino. Beheko aldean zulo asko daude, eta guretzako txarra da, zaldiak ezin dutelako behar bezala atera. Niretzat nekeza da, ez dakit beste ibilgailuentzako nolakoa izango den...

**Ibilbidea moztu egin dute zuen automobilekin ezingo zelako bestela...**

Pena da lehenengo zati hori kendu izana, baina dagoen egoeran gure autoek ezin dute hortik pasatu. Maulandako soinu bandetan edo tripetan, guk ezin dugu hortik pasatu. Autoen beheko aldeak jo egiten du eta.

## Lasterketako Sailkapena

| | |
|---|---|
| Aitor Zabaleta | 00:02:41 |
| Angela Vilariño | 00:02:45 |
| Pantxo Egozkue | 00:02:48 |
| Alberto Alonso | 00:02:49 |
| Aritz Egozkue | 00:02:50 |
| Ruben Nogueiras | 00:02:52 |
| Imanol Lakar | 00:03:02 |
| Aitor Ramirez | 00:03:04 |
| Joseph Duperou | 00:03:09 |
| Iñaki Alberdi | 00:03:13 |
| Iban Tarsicio | 00:03:13 |
| Asier Mugarza | 00:03:17 |
| Ion Etxeberria | 00:03:18 |
| David Ardions | 00:03:19 |
| Antonio Evanjelista | 00:03:23 |
| Ricardo Echave | 00:03:24 |
| Sergei Biteri | 00:03:24 |
| Andoni Mugarza | 00:03:25 |
| Jose Antonio Insausti | 00:03:26 |
| Imanol Oskoz | 00:03:26 |
| Jose Miguel Gabilondo | 00:03:26 |
| Joseba Garcia | 00:03:28 |
| Jose Mitxelena | 00:03:30 |
| Miguel Otegi | 00:03:32 |
| Asier Samiego | 00:03:32 |
| Robert Garcia | 00:03:33 |
| Ion Zalloetxeberria | 00:03:35 |
| Rafa Diaz | 00:03:39 |
| Egoitz Gorostiaga | 00:03:41 |
| David Zambrano | 00:03:42 |
| Iñaki Racamonte | 00:03:42 |
| Gorka Idigoras | 00:03:45 |
| Jesus de la Fuente | 00:03:47 |
| Oliver Lopez | 00:03:49 |
| Joseba Frutos | 00:03:53 |
| Sergio Porcel | 00:03:57 |
| Jose Mari Ubieta | 00:04:03 |
| Iker Bilbao | 00:04:06 |
| Amets Salvatierra | 00:04:19 |
| David Delgado | 00:04:55 |
| Gotzon Gonzalez | 00:07:25 |

*Bi pilotu erretiratu egin ziren. Hasieran beste bi pilotuk izena emana bazuten ere, ez ziren irteeran egon.

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > ARETXABALETA-ZUMAIAKO

# Zelai erdiko jokoak egin dio huts UDAri eta berdinketarekin konformatu behar

Laugarren minutuan penaltia sartu zuten etxekoek; 33.ean, ostera, Gaizkak beste bat geratu zuen

ARETXABALETA
**1-1**
ZUMAIAKO

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Urduri antzean zelairatu ziren Aretxabaletako jokalariak atzo, etxean jokatutako denboraldiko lehenengo partiduan, eta ohorezko erregional mailara igo berri den Zumaiakok lotsa barik egin zien aurre. Hori horrela, puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuten etxekoek.

Partidua hasi orduko penaltia adierazi zuen Reguero epaileak etxekoen alde –lan eskasa egin zuen eta etxekoen eta kanpokoen oihuak eta kexak jaso– eta Haritz Igartuak gola sartu zuen. Ondoren, Zumaiakoren aldeko penaltia adierazi zuen (33. minutuan) eta Gaizka Heriz atezainak bikain geratu zuen. Hala ere, Zumaiako nagusi izan zen zelai erdian lehenengo zati guztian eta UDAkoek ez zuten izan aukera garbirik.



Haritz Igartua gola sartzen penaltiz, partiduaren laugarren minutuan. JOSETXO ARANTZABAL

**10 JOKALARIREKIN**
Bigarren zatia indartsuago hasi zuten etxekoek baina segituan Gillen kanpora bidali zuen epaileak bigarren txartel horia erakutsita eta hamar jokalarirekin geratzeak ez zion onik egin UDAri. Aukeraren bat edo beste izan zuten gero etxekoek, tartean Raulek egindako erasoa 70. minutu inguruan, baina Zumaiakoren ate aurrean ez zuten asmatu. Ezta geroxeago Kermanek ere buruarekin. Eta segituan Zumaiakoren gola iritsi zen, bakarrik zegoen Gaizka atezainaren aurrean sareetara bidalita.

Partiduaren azken minutuetan bigarren golaren bila ibili zen UDA; gogoa bai, baina golik ez, eta puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuten etxean.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > BERGARA-BERIO

# Zorteak lagundu ez eta galdu egin zuen Bergarak etxean

Partidu eskasa jokatu zuten, penaltia huts egin eta defentsaren akatsaren ondorioz bigarren gola jaso; Beriok ia ezer egin gabe eroan zituen puntuak

BERGARA
**1-2**
BERIO



Bergarararrak baloia lortzeko borrokan, Berioko jokalarien aurrean. JOSETXO ARANTZABAL

**M.A.** > BERGARA
Partidu eskasa jokatu zuen Bergarak Berioren aurka zapatuan eta, zorteak ere ez zionez lagundu, galdu egin zuen (1-2).

Ez zuen aparteko ezer egin Beriok, baina etxekoen akatsak eta itxoiten jakiteak garaipena eman zien. Faltetan sortu zuten arriskua eta halako baten ondorioz iritsi zen lehenengo gola (0-1).

Bigarren zatia hasi orduko aldeko penaltia adierazi zien etxekoei, baina atezainak geratu egin zuen. Hori golpe latza izan zen, berdinketa eskura izan eta ez zutelako asmatu, eta behera etorri ziren. 55. minutuan, akats larria egin zuen Bergarako defentsak: kanpora bota nahian baloia sareetara bidali, atezaina aurreratuta zegoen bitartean (0-2).

Bergarararrak partidu bukaeran suspertu ziren eta 80. minutuan gola iritsi zen (1-2). Berdinketaren bila ibili ziren Oskar Maiztegiren mutilak handik aurrera, eta aukera pare bat ere izan zituzten, baina asmatu ez. "Jokoari dagokionez ez gabiltza txarto, baina emaitzak ez dira iristen. Akatsak zuzendu behar ditugu", zioen Maiztegik bukaeran.

**OHOREZKO ERREGIONALA**

# Bi gol sartuta garaile Mondra

Jokalariek izandako jarrera aldaketari esker etorri da garaipena (0-2)

**M.A.** > ARRASATE
Joan zen asteko partidu txarra guztiz ahaztuta zelairatu zen Mondra zapatu arratsaldean Ondarroan eta hiru puntuak etxera ekarri zituen. Lehenengo zatian Aurrera Ondarroa baino gehiago izan zen eta hainbat aukera izan arren golik ez zen iritsi.

Bigarren zatian motel hasi ziren jokatzen, baina ondarroarrak baloiaren jabe zirenean arrasatearren gola iritsi zen; Landerrek egin zuen 60. minutuan. Etxekoek ez zuten ezer egiterik izan ordutik aurrera eta 90. minutuan Jokinek sartutako golak aurreko asteko mina sendatzeko balio izan zien. Iban Rodriguezen esanetan "zeharo aldatu" dute jarrera jokalariek eta ondorioz garaipena iritsi da.

**OHOREZKO ERREGIONALA**

# Aloñak irabazi, joko gutxiko partiduan

Aurreko asteko porrotari buelta eman diote indar handiz jokatuta (0-1)

**M.A.** > OÑATI
Aloña Mendik mendean hartu zuen Ordizia joko gutxirekin eta indar handiarekin jokatutako partiduan (0-1). Lehenengo zatian parekatuta jardun zuten bi taldeek, nahiz eta borrokan ibili uneoro. Gola bigarren zatian iritsi zen, 70. minutu aldera; Julen Palaciosek buruarekin bidali zuen sarera.

**LAN FISIKOA GEHITU**
Denboraldiko lehen partidua etxean galdu ostean, aste gogorra izan dute oñatiarrek, eta guztiz mentalizatuta atera zirela partidura esan du Pablo Diez entrenatzaileak: "Entrenamendu saioak gehitu ditugu, astean lau eginez, eta gogo handiarekin atera gara partidura".



Bergarako jokalaria gola sartzeko gertu. JOSETXO ARANTZABAL

**ESKUBALOIA** > SORALUZE BKE 27-FORD MUGARRI 32

# Defentsa lanak hobetu behar dituzte bi taldeek denboraldia hasteko

Arrasatearrak nagusitu ziren aurre-denboraldiko derbian; partidu motela jokatu zuten bi taldeek eta gogorrago lan egin beharra erakutsi

**MIRARI ALTUBE** > BERGARA

Urriaren 2an hasiko duten denboraldia gertatze aldera, Soraluze BKE-k eta Ford Mugarrik derbia jokatu zuten zapatuan Bergarako Labegaraietan. 2008-2009 denboraldiko Kopa finaletik elkarren aurkako partidurik jokatu barik zeuden eta indarrak neurtzeko gogotsu. Partidua, baina, ez zen batere ikusgarria izan eta epailerik ez izateak –aurreko partiduan min hartu eta jokalari bat ibili zen– baldintzatu egin zuen.

Partidu motela izan zen eta defentsa lanetan zer hobetua badutela erakutsi zuten bi taldeek. Arrasatearrak aurretik joan ziren atsedenaldira (13-15) eta diferentzia hori handitu egin zen bigarren zatian (27-32).

Egubakoitzean, ostera, Zumarragako finala jokatu zuen Soraluze BKE-k Elgoibarren aurka eta galdu (32-31) partidu txarra jokatuta. Datozen bi asteok akatsak zuzentzeko eta erritmoa hartzeko erabiliko dituztela jakinarazi du Josetxo Muniategi Bergarako entrenatzaileak.



GOIENKARIA

## Bielsa inguruan ibili dira Pol-Pol taldeko mendizale beteranoak

Urtero legez Pirinio aldera irteera egin dute Bergarako Pol-Poleko kideek, 31 lagunek; Bergaratik Saint Lary-ra (Pirinio frantsesa). Ibilaldia Le-plan parajetik Bielsako tunelera egin zuten, argazkian agertzen den Puerto Viejo lepoa pasatuta (2.378 metro). Hurrengo egunean, Cinca errekako ubidea zeharkatu zuten, Bielsa eta Salinas de Sin herriak lotzen dituena.

Hurrengo irteera urrian egingo dute, Pilarikako zubian, eta Leongo mendietara joateko asmoa dute, kanpalekua Astorgan jarrita.

**ERRUGBIA** > HERNANI 54-ARRASATE 7

# Motorrak berotzen hasteko partiduak galdu egin dituzte

Talde giroa indartu eta denboraldia gertatzea zuten helburu Ohorezko Mailako eta Euskal Ligako taldeek

**M.A.** > ARRASATE

Hernanin zuten hitzordua zapatuan Arrasate-Durangoko Ohorezko Mailako eta Euskal Ligako errugbi taldeek. Lagun artean jokatutako azken partiduak izan ziren Hernani indartsuaren aurkakoak.

Igor Isasik zuzentzen dituen mutilek galdu egin zituzten bi partiduak, alde handiarekin gainera: "Kontuan hartu behar da Hernani igoerako postuetan egongo dela eta gure helburua, ostera, mantentzea da", zioen Isasik. Durangoko eta Arrasateko jokalariek osatzen dituzte orain taldeok, eta elkarren artean ezagutzea eta jokaldi berrien entseguak egitea izan da aurre-denboraldiaren helburua: "Jendea gogotsu dabil lanean". Jende gehiago gurako luketela dio Isasik, min hartutakoak kontuan hartuta nahiko justu ibiliko direlako denboraldiari aurre egiteko.

**DOMEKAN, IRUNEN**

Liga domekan hasiko du Arrasate-Durangok kanpoan jokatuta, Irunen zelaian, hain zuzen. Irungoekin batera, sailkapen fasean Gernika B, Elorrio, Getxo B, Iruña, Zarautz B eta Construcciones Rivago taldeak izango dituzte aurrez aurre.

**DEIALDIA** > LASTERKETA

# Zabalik Arrasate-Oñati probarako izenematea

Antxintxiketan taldearen webgunean eta Forum Sport eta Mendizabal dendetan egin daiteke; proba urriaren 9an da

**M.A.** > OÑATI

Oñatiko Antxintxiketan elkarteak, Arrasateko Atletismo Taldearen laguntzarekin, 27. Arrasate-Oñati lasterketa antolatu du eta urriaren 9an izango dela iragarri. Izenemate epea zabaldu dute eta Antxintxiketan taldearen webgunean eman daiteke –*www.antxintxiketan.com*–; baita Arrasateko Forum Sport eta Oñatiko Mendizabal kirol dendetan ere. Izenematea 10 euro da aurrez emanez gero eta egunean bertan 15 euro. Antolatzaileek jarritako autobusa erabili gura dutenek proba egunean beste 2 euro ordaindu beharko dituzte.

**PORTALOITIK OÑATIKO PLAZARA**

Probaren lehen urteetan egiten zen legez, Arrasateko Portaloian izango du hasiera (17:00) eta Oñatiko plazan bukaera; guztira 11,7 kilometro egingo dituzte korrikalariek. Antolatzaileek uste dute Behobia-Donostia lasterketa gertatzen dabiltzanendako lasterketa benetan aproposa dela.

> IGERIKETA

## Bergarako Igeri Elkarteko kideek astean hasiko dituzte denboraldiko lehen entrenamendu saioak

Bergara Igeri Elkarteko kideek jakinarazi gura diete neska-mutikoei astean hasiko dutela 2010-2011 denboraldia. Eta lehen saioak noiz izango dituzten argitu dute: gazteak, kadeteak eta haurrak gaur, astelehena, elkartuko dira Labegaraietako kiroldegian; kimuak eta benjaminak, ostera, datorren astelehenean, hilak 27, ohiko orduetan, igerilekuan.

Argibide gehiago gura duenak Igeri Elkarteko kideengana jo dezala.

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## DEKORAZIOA

**J. ORTIZ**
Bergara
• Mota guztietako pladur lanak
• Igeltsu-lanen dekorazioa
• Sabai eta apaletan espezialistak
• Isolamendu akustikoa
• Gremioen koordinazioa
Alkabieta kalea z/g.
T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Juanina Garai > Futbol entrenatzailea

# "Etxeko partiduetan estrategia-jokaldiak aprobetxatu behar ditugu"



Juanina Garai Eztala futbol zelaian, egubakoitzeko entrenamendua hasi aurretik. JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

**Juanina Garaik hartu du Antzuola futbol taldearen ardura denboraldi berrian. Ibarreko hainbat taldetan jardundakoa, eskarmentu handikoa da Garai futbol munduan. Ilusioz hartu du erronka berria. Egubakoitzean izan ginen entrenatzailearekin, Eztalan.**

**Dagoeneko hasi duzue liga. Lehenengo jardunaldian berdindu egin zenuten. Nola ikusi duzu taldea?**

Gustura geratu nintzen partiduan egindako lanarekin. Astebete daramagu elkarrekin lanean. Liga hasi aurretik lagunarteko bat jokatu genuen, eta han ikusi nuen hobetzeko gauza asko genituela. Zapatuan, ostera, oso ondo ibili ginen.

**Abuztu bukaeran jarri ziren kontaktuan zurekin Antzuola elkarteko kideak. Ilusioz hasi duzu proiektu berria?**

Abuztuaren 31n deitu zidaten. Lehenengo lana jendea ezagutzea izango da. Gainera, uste dut gauza politak egin daitezkeela Antzuolan. Talde polita daukagu, orekatua.

**Hainbat jokalari ezagunak zenituen aurrez. Nolako taldea da Antzuola?**

Bai, jokalari batzuk ezagunak dira. Gainera, aurreko urteko taldea ere ezagutzen nuen, eta esan daiteke iazko talde bera dugula.

Hala ere, jokalari berri batzuk etorri dira eta horiek oraindik ez ditut ezagutzen. Adibidez, Nico, Jon, Josu... jokalari berriak dira. Batzuk aurrez utzi eta berriro itzuli direnak dira. Esan bezala, lehenengo lana hori izango da, jokalariak ezagutzea. Ikusi dudana da jokalariek ilusio handia dutela; horregatik uste dut urte polita izan daitekeela.

**Zure ustez zer hobetu behar du taldeak?**

Hobetzeko asko daukagu: adibidez, teknika eta estrategia. Gainera, egiten dugun horretan sinistu behar dugu.

Bestalde, taldeak gogo handia dauka, eta hori ona da. Antzuola herri txikia da eta denak daude taldearekin, asko maite dute. Uste dut hori oso garrantzitsua dela.

**Zein izango da Antzuolaren helburua denboraldi berrian?**

Gure helburua partidu joatea izango da. Horren arabera ikusiko dugu zelan gauden eta zein izan daitekeen denboraldi amaierako helburua. Baina, batez ere, gure helburua partiduez gozatzea izan behar da. Astean zehar, entrenamenduetan, nahikoa sufritzen da; hortaz, partiduak aprobetxatu behar ditugu zelaian gozatu eta ondo pasatzeko.

Gainera, ahalik eta goren geratzea izango da helburua, baina ezin dugu egon igoerarekin pentsatzen. Gaur egun, helburu hori zaila da Antzuolarendako.

**Ibarreko hainbat taldetan ibilitakoa zara. Arrasate edo Bergara herri handiak dira Antzuolarekin alderatuta. Nabaritzen duzu zuk hori taldea zuzentzerakoan?**

Bai, esan bezala hori nabaritzen da. Antzuola herri txikia da, eta aurten egiten dugun lana eurendako izango da. Elkartearendako eta herriarendako egiten dugu lana.

Orain arte ikusi dudana da Antzuolako jendea oso sartuta dagoela futbol elkartean, beste elkarteetan baino gehiago. Hori da nik uste dudana, baina nahastuta egon naiteke.

**Orain arte bezala, etxeko partiduak oso garrantzitsuak izango dira. Horiek irabaztea ezinbestekoa izango da.**

Bai, hori da ideia. Gure zelaia aprobetxatu behar dugu partiduak aurrera ateratzeko. Estrategia-jokaldiak egin behar ditugu. Etxeko partiduez gain, kanpoko partiduetan ere puntuak ateratzen baditugu, hobeto!

**Eztala futbol zelai txikia da. Nolako jokoa egitea ahalbideratzen du horrek?**

Batez ere estrategia-jokaldiak landu behar ditugu. Gainera, taldeak sinistu behar du hori izan behar dela gura gakoa.

Eztalan futbolean jokatzea oso zaila da. Niri beti gustatu izan zait nire taldeak baloia izatea, baina hori oso zaila da Eztalan. Zelai txikia da eta leku gutxi dago jokatzeko; gainera, aurkariak oso gainean egoten dira.

**Defentsa lana ere garrantzitsua izango da.**

Bai, golik ez jasotzea oso garrantzitsua izango da, batez ere, etxeko partiduetan. Horregatik, defentsan gogor egin beharko dugu lan. Baloia gure oinetan izatea izan behar da gure helburu nagusia.

**Zure ustez, ligari begira, zeintzuk izango dira zuen aurkari zuzenak?**

Oraindik oso goiz da hori esateko! Goian ibiliko direnak izango dira: Elgoibar, Urola, Mutriku... betiko taldeak. Beste guztiak antzera ibiliko gara eta, agian, talderen batek sorpresa eman dezake. Ea gu garen!

**Mondra eta Aretxabaletako bigarren taldeen aurkako partiduak derbi politak izan daitezke.**

Bai, partidu politak izango dira, baina nik uste dut Antzuolarendako derbi politagoak direla Urolaren aurkakoak.

**Zurekin batera etorri da Larraitz fisioterapeuta. Hori ere berritasuna da Antzuolan.**

Bai, nik uste dut beharrezkoa dela fisioterapeuta bat izatea. Orain arte Mondran ibili da eta, orain, nirekin etorri da Antzuolara –Bergaran ere nirekin ibilitakoa da–. Bestalde, Jon Arregi, orain arte Antzuolako atezaina izandakoa, atezainen entrenatzailea izango da.

ANTZUOLA

**"Antzuola herri txikia da eta herri guztia dago taldearekin, asko maite dute"**

PARTIDUAK

**"Partiduz partidu joan eta jokoarekin gozatzea izan behar da gure helburua"**

DERBIAK

**"Antzuolarendako derbi politak Urolaren aurkako partiduak izaten dira"**

**ASPEKTU LEGALAK** > ERREGISTROA

# Seme-alaba jaioberriak euskaraz erregistratzea eskubide bat da

Onintze Guridi abokatuak adierazi du prozedura berez sinplea dela, baina praktikan gainditu beharreko oztopo asko dagoela oraindik ere


Prozedura umea jaio aurretik abiaraztea gomendatzen dute. GOIENKARIA

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

2005eko ekainaren 22ko 12/2005 Legeak Erregistro Zibilaren Legea aldatu zuen, inskripzioak euskaraz egiteko eskubidea aitortuz, baina Inforeg aplikazio informatikoa abian duten erregistroetan soilik inskriba daitezke haurrak euskaraz. Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat zuten aplikazio hori EAEko bake epaitegietara zabaltzeko, baina iraungi egin zen, eta, berritzekotan baziren ere, krisi ekonomikoaren aitzakian berritu gabe jarraitzen duela diosku Guridik. Berez prozedura sinplea da, eta aplikazio informatiko hori abian jartzeko nahiko dira bi edo hiru egun. Baina gainean egon beharko dugu, eta gomendioa da eskaera umea jaio aurretik egitea.

**LEHENA ARETXABALETAN**

2007ko abenduaren 19an lortu zuten jaioberri bat lehen aldiz euskaraz erregistratzea. Aretxabaletan izan zen. Erregistro Zibileko liburu ofizial batean egin beharrean, Erregistro Zibileko liburu berezi batean egin zuten, baina pauso garrantzitsua izan zen, aurrekaria ezarri baitzen. "Garrantzitsua da bide horretan presio egiten jarraitzea", dio Guridik. Jarraitu beharreko prozeduraren eta dokumentazioaren berri ematen du *guraso.com*-en.

**IRAKASKUNTZA** > IRAKASLEAK

## Irakasleendako askatasun handiagoaren aldeko berbak

**L.Z.** > ARRASATE

*Consumer* aldizkarian egindako elkarrizketa batean Augusto Cury psikiatra entzutetsuak adierazi du irakasleak direla gizarte bateko pertsonarik garrantzitsuenak. Profesional horien autoritate eta prestigio faltaren gainean galdetuta esan du hezkuntza sistema gaixo baten barnean ari direla lanean eta sistema hori goitik behera aldatu beharra dagoela. "Heziketa *humanizatuagoa* bilatu behar dugu", esan du.


Irakasle bat eskolako umeekin. VILLE DE CLERMONT-FERRAND

**AUTORITATE ERAIKITZAILEA**

Curyk irakasleen autoritatea defendatzen du, baina "emozioei babesa ematen dien autoritatea, sormen askatasuna eta abentura intelektuala sustatzen dituena". Gizarte honek irakasleak gehiago errespetatu eta balioetsi behar dituela uste du. "Irakasleak duintasunez tratatu beharko genituzke, askatasun handiagoa eman beharko genieke, ez kontrol lanean jarduteko, baizik eta pentsatzeko artea estimula dezaten, adimena susta dezaten". Augusto Curyk uste du gaur egungo hezkuntza sistemak informazio pilatzaileak formatzen dituela, eta ez pertsona helduak. "Irakasle onek arrakasta lortzeko prestatzen dituzte ikasleak, eta irakasle argiek, egunik zailenei aurre egiteko. Guztiok izaten ditugu estres handiko egoerak, ezin aurreikusi direnak. Emozioak babesten ikasi behar dugu".

**HEZIKETA** > GEZURRA

## 'Barkatu' hitzaren esanahia eta garrantzia irakatsiz

**L.Z.** > ARRASATE

Zaila izan arren, umeei barkamena eskatzen erakutsi behar diegu. *Barkatu* hitza esatea bakarrik ez, lortu behar dugu seme-alabek damua sentitzea eta barkatuak izateko beharra sentitzea. 2 urtetik aurrera ume batek gaitasuna du ulertzeko lagun bat jotzen duenean hark negar egin dezakeela, min egin diola. 5 urtetik aurrera umeek ondo dakite ondo egindakoa eta gaizki egindakoa desberdintzen. Hala, egindakoaren gainean pentsatzera bideratu behar ditugu.

**EGINDAKOA KONPONDU**

Lasaitasunez baina irmoki errieta egin behar diegu eta egindakoa konpontzearen beharrari buruz hitz egin behar diegu. Onartu behar dute gaizki egin dutela, eta barkamena eskatu behar dute. Argitu behar diegu, halaber, hurrengoan ezin dutela berdin jokatu.

**HEZKUNTZA** > ETXEKO LANAK

## Lan giro egokia eta helduen laguntza beharrezkoak dira

**L.Z.** > ARRASATE

Eskolako etxeko lanei lehentasuna eman behar zaie. Denbora eskaini behar zaie eta planifikazio hori egiteko lagungarria izango da irakaslearen orientazioa. Umeen agendan denbora tarte bat eskaini behar zaie, ahal den neurrian egunero ordutegi berean. Umeak bere errutinaren barruan sartzen baditu errazago egingo ditu, eta ikasteko egokia den leku batean egin beharko lituzke, gainera. Seme-alabak txikiak direnean gurasoen laguntza beharrezkoa izango dute etxeko lanak egiteko, eta kasu guztietan egokia izango da tarteka tutorearekin biltzea lan erritmoa egokia den adosteko. Azkenik, etxeko lanen karga kontuan hartu beharko dugu eskolaz kanpoko jarduerak aukeratzerakoan, jolaserako denbora ere behar dute-eta umeek.


Umea, etxeko lanak egiten. BARBARA CANNNELA

> OSASUNA

### Txantxarrak edo karieak saihestu daitezke prebentzioarekin eta ahoko higiene egokiarekin

Txiki-txikitatik erakutsi behar diegu umeei hortzak garbitzeak duen garrantzia. Forma dibertigarrietako eskuilak eta hortzetako pasta koloretsuak lagungarriak izango dira, baina baita gurasoen laguntza hortzak modu egokian garbitzen ikasteko. Egunean zehar hortzak gutxienez hiru aldiz garbitu behar ditugu; gosaldu ostean eta bazkaldu eta afaldu ostean. Umeek jatorduak egiteko ordutegi bat izatea eta azukreak saihestea lagungarria izango da.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> NACHO UMBERT**
Paperhouseko buru zenak pozik utzi ditu entzuleak Kulturate Akustikoan > 30



**> OMENALDIA**
Arzuaga anaiek egindako lana eskertu eta txalotu dute Oñatin > 30



**> SKATE**
Arrasateko San Andres auzoan II. Skate Festa egingo da zapatuan > 31



Aretxabaleta Abesbatza kantuan, aurkezpen-ekitaldi bukaeran. JOSETXO ARANTZABAL




Abesbatzako kideak DVDak saltzen. JOSETXO ARANTZABAL

# Aretxabaleta Abesbatza aurrera egiteko ilusioz

**AURKEZPENA**
30 urteko ibilbidea jaso duen DVDarekin pozik agertu dira

**ESKERRAK**
Kide izandakoak eta jarraitzaileak izan dituzte gogoan

**ZABALIK**
Abesbatzako ateak edonorendako dituzte zabalik

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoa lepo beteta zegoen egubakoitz ilunkaran, Aretxabaleta Abesbatzako kideen zain. 30 urteko ibilbidea jaso duen ikus-entzunezkoa ezagutzeko gogoz hurreratu ziren guztiak, gehienak senideak, lagunak eta abesbatzaren jarraitzaile leialak.

Abesbatzako kideak banan-banan sartu ziren aretoan, 17 gizon eta 14 emakume, eta txalo artean egin zieten ongietorria ikusleek. Kide bakoitzak bere tokia hartu zuen eskenatokian eta Angel Barandiaran zuzendariaren zain geratu. *Kantuz* abestiarekin hasi zuten ekitaldia eta *Goizian argia hastian* goxoarekin jarraitu.

**20 URTE BARRU BERRIRO**

*Aretxabaleta Abesbatza 30 urteko ibilbidea* ikus-entzunezkoa aurkezteko elkartu ziren guztiak, eta Arteman komunikazio enpresako –DVDaren egilea– Gorka Etxabek egin zituen aurkezpenak. Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok hartu zuen hitza eta abesbatzari zorionak emanaz hasi. 30 urteko ibilbidean partaide izan eta orain ez daudenak izan zituen gogoan: "Denen aleari esker gaur puntapuntako abesbatza daukagu, taldе lanaren fruitua". Eta hiru berbatan laburtu zuen ibilbidea: "Konpromisoa, ilusioa eta lana. Ez dago beste modurik aurrera egiteko". 20 urte barru, 50. urteurrena ospatzeko, bertan izatea guztiak deseatu eta bertsoa botata bukatu zuen.

Ondoren Aldundiko Kultura zuzendariaren berbak iritsi ziren; Haritz Solupe arrasatearrak ez zuen bertan egoterik izan, baina aurrez grabatutakoa entzun zuten ikusleek. Zorionak eta eskerrak ematearekin batera, jakintzaren transmisioak duen garrantzia azpimarratu zuen: "Ondorengoendako jasota gera dadila".

**ENTZULE LEIALEI ESKERRAK**

Ikus-entzunezkoa aurkeztu zuten gero eta dokumental historikoaren aurrerapentxoa eman: 1990 hamarkadan New Yorken emandako kontzertuak; aurtengo urteurren kontzertua; abesbatzako kideen adierazpenak; adituen esanak... Ondoren abesbatzako presidente Xabier Zaloñak hartu zuen berba. 30 urtean bertatik pasatutako kide guztiak izan zituen gogoan honek ere: "Kide ohiak; artxiboko lanak egiten zituzten Bernabe eta Litri; bazkideak…". Eta eskerrak eman zizkien, batez ere, ikus-entzule fideleі: "Jarraitzaile, entzule fin, senide, etxeko… zuen babes gabe nekez beteko genituen 30 urte eta gaur hemen egon". Eta esker moduan Aretxabaletako irudiekin eta *Maite* abestiaren doinuekin osatutako bideoa bota zuten.

Ekitaldia bukatzeko, *Goizeko izarra* eta *Iruten ari nuzu* kantuak eskaini zituzten. DVDa salgai jarri dute Kioskoan –12 euro–.

**VATICANON LEHEN EUSKALDUNAK**

Martxoan bete zituen 30 urte abesbatzak. Egun 32 bat lagunek osatzen dute eta 1981az geroztik Angel Barandiaran da zuzendaria. Polifonia erlijiosoa eta folklore euskalduna lantzen ditu hasiera hasieratik. Hainbat lehiaketetan parte hartu eta sariak jasotakoa da eta hainbat herrialdetan kontzertuak egindakoa; Vaticanoko basilikan kantatu duen lehenengo abesbatza euskalduna da.

DISKOA

## Nemesio Otaño konposatzailearen omenez egindako diskoa aurkeztu zuten zapatuan

*Nemesio Otañoren Omenez* diskoa aurkeztu zuen abesbatzak zapatu arratsaldean Loiolako Santutegiko basilikan. Konposatzaile jesuita ospetsuaren omenez idatzitako liburua ere aurkeztu zuten eta ekitaldian *Izar Eder*, *Velum Templi* eta *O Sacrum Convivium* abestiak kantatu zituzten abesbatzako kideek.

Aretxabaleta Abesbatza eta Loiolako jesuiten arteko harremana aspaldikoa da, eta jesuitek eurek proposatu zioten diskoa grabatzea. Lan handia egin dute, entseguak lehenengo eta grabaketak gero –Azpeitiko parrokian eta Aozaratzako elizan–, eta pozik daude emaitzarekin. Hilabete barru beste kontzertu bat emango dute Loiolan bertan.

Xabier Zaloña > Presidentea

## "Jende gaztea ekarri gura dugu taldera, gizon zein emakume"

**M.A.** > ARETXABALETA

**Martxotik da presidentea eta lan handia izan du azken hilabeteotan.**

**Gustura egindako DVDarekin?**

Bai, oso gustura; lehenengo urteetako irudiak falta zaizkigu, baina orduan ez genekien 30 urtera iritsiko ginenik eta...

**Lan handia eta konpromisoa dago taldearen atzean, ezta?**

Izugarria; astean bi entsegu egiten ditugu, urtean ehun baino gehiago eta gero hainbat ekitaldi.

**Eta aurrera egiteko indar eta ilusioarekin?**

Bai horixe. Jende gaztea ekarri gurako genuke, gizon zein emakume. Musika eskolako neska taldetxo bat hasi da gurekin lanean eta oraingoz jarraipena badugu.



M.A.

**KONTZERTUA** > KULTURATE AKUSTIKOA

# Ez-ohiko istorioak Nacho Umbert-en eskutik



Nacho Umbert, bere gitarrarekin. JOSETXO ARANTZABAL



**Roman Martinez**
Arrasate

"Kuriosoa izan da, oso dibertigarria. Letra kuriosoak ditu, ironiarekin gai sozialak jorratzen ditu-eta. Iaz ere izan nintzen Kulturate Akustikoko kontzertuetan; ea hirugarren edizioa antolatzen duten".



**Alvaro Lopez**
Gasteiz

"Gasteizetik etorri naiz kontzertua entzutera. Donostiako emanaldian ere izan nintzen eta asko gustatu zaizkit biak. Paperhouse taldeko abeslaria zenetik jarraitzen dut bere ibilbidea".



**Vicky Rouska**
Grezia

"Nacho ikusteko irrikatzen nengoen eta asko gustatu zait. Asko transmititzen duen artista da. Bere diskoa asko entzun dut eta jo dituen abesti berriak etorkizun handia dutela uste dut".

**NON:** Arrasateko Kulturaten.
**EGUNA:** Egubakoitza,irailak 17.
**ZENBAT JENDE:** 50 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu bat eta laurden.

**ANDER MONEDERO** > ARRASATE

15 urte pasa dira Paperhouse taldearen buru zenak azken diskoa kaleratu zuenetik. Denbora batez, musika alde batera utzi zuen eta orain, bakarlari lanetan dihardu. Nacho Umbert & La Compañia izenarekin *Ay...* izeneko diskoa kaleratu du eta, azkenaldian, hori aurkezten dihardu. Pop sinplea egiten du Umbert-ek, gitarra akustiko eta ahotsarekin eta, batzuetan, xilofono, biolin edo biolontxelo doinuek apaintzen dituzte bere abestiak.

Egubakoitz iluntzean, biolontxelo jotzaile batek eta bere gitarra akustikoak lagunduta igo zen Kulturateko oholtza gainera. Bakarlari moduan ateratako bere lehen diskoko –*Ay...*– abesti guztiak, kantu berri batzuk eta Paperhouse taldearekin idatzitako *Gato de Pandora* jo zituen.

Umbert-en abestiak arreta handiz entzun behar dira, bere hitzak ironiaz beterik daude-eta. *Ay...* diskoan entzun daitezkeen kantu asko literaturaz beteta daude eta irakurketa bat baino gehiago dituzte. Umbert abesten entzutean, nekeza da jakitea kantatzen dituenak berak bizitako istorioak edo asmatutakoak diren. Baina dena ez da kritika eta ironia, umorea ere bada bere ikuskizunaren parte. Barikuan ere, kantatzen dituen drama eta istorio gogorrak leuntzeko, publikoari barre algarak eragin zizkien. *Cien hombres ni uno más* da gehien atsegin duen kantua eta horrekin harrapatu zuen publikoa.

Kontzertua bukatzeko, publikoari abestiren bat aukeratzeko eskatu zion eta honek ez zuen zalantzarik izan: Paperhousen bat eskatu zioten. Berak kantu berri bat joko zuela esan zuen arren, publikoa Paperhousekin tematuta zegoela ikusirik, *Gato de Pandora* jo zuen. Ondoren, hori bai, idatzitako azken abestia jo zuen eta, hala, Umbert-ek berak nahi moduan bukatu zuen kontzertua.

**KULTURATE AKUSTIKOA**

Arrasateko Udaleko Kultura sailak antolatuta, Kulturate Akustikoa jaialdiaren bigarren edizioa izan da aurtengoa. Guztira, lau kontzertu izan dira: Boat Beam, Audicence, Nacho Umbert eta Maderitak jo dute, hilaren 10ean hasita. Publikoaren aldetik harrera ona izan dute kontzertuek, orokorrean, baina, dudarik gabe, Audicence talde gernikarraren emanaldia izan da guztien artetik arrakastatsuena. Bizkaitarrek 10 urte daramatzate oholtza gainera igotzen; aurreko domekakoa Arrasaten jotzen zuten lehen aldia izan zen.

Maderita talde balentziarrak itxi du aurtengo Kulturate Akustikoa jaialdiaren bigarren edizioa. Zapatu arratsaldean egin zuen saioa eta publikoak ondo erantzun zuen; Julio Bustamante musikari, idazle eta margolariak Ciudadano taldeko kideekin duen proiektuak txalo zaparrada jaso zuen emankizunaren bukaeran.

Jaialdiaren bigarren edizioak lehenak izandako erantzun ona errepikatu du. Musikazaleek gustura jarraitu dituzte kontzertuak; jaialdiak Arrasaten falta zen eskaintza musikala betetzen lagundu du.

**OMENALDIA** > ARZUAGA ANAIEI

# "Oñatiar askoren zaletasuna piztu zuen Migel Angelek"

Migel Angel eta Joxe Mari Arzuagak egindako lana eskertu eta txalotu zuten

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Herritarrek Arzuagatarrak zenbat maite zituzten nabarmen gelditu zen barikuan egin zitzaien omenaldi hunkigarrian. Kultura etxeko aretoa gainezka eta jendea zutik; batek baino gehiagok malkoak isuri zituen Jabier Arzuaga anaiaren hitzekin eta txikitako pasarteekin. "Arimarekin marrazten zuen Migel Angelek; Joxe Mari, berriz, musikarako jaio zen. Sen berezia zuten biek eta maisuak ziren". Gerardo Elortzak nabarmendu zuen oñatiar askok zor diotela Migel Angel Arzuagari margotzeko zaletasuna eta sortutako grina.

Edorta Kortadi arte kritikoak berandu deskubritu zuen oñatiarraren lana. Kortadik Euskal Herriko paisajista onenen artean kokatzen du Arzuaga. "Oñatiko paisajista moduan ezaguna, post inpresionismoko erreferentzia bat da. Berezkoa zuen marraztea".

**EKITALDI JENDETSUA**

Senitarteko eta aspaldiko lagunen arteko bilkura izan zen barikuko omenaldia. Aretoa beteta, aurpegi ezagun asko gerturatu ziren, besteak beste: Lourdes Idoiaga, Xabier Zubizarreta *Txiron*, Andoni Gartzia, Xabier Ugarte, Loli Ordoki, Jose Antonio Azpiazu eta *Txutxin*.

Bidaurreta, San Migel Parrokia, Lazarraga dorrea, Oñatiko kale eta pertsonaia esanguratsuak, iturriak... nostalgiaz beteriko erakusketak, askori, oroitzapen ederrak ekarriko dizkio. Hilaren 26ra bitartean dago zabalik kultura etxean.



Migel Angel Arzuagaren seme-alabak eta alarguna, erakusketan. MAIDER ARREGI



Iaz arrakasta borobila izan zen Skate festa eta hainbat gazte batu ziren Bedoñabe Herri eskolako patioan. Irudian, iazko grafiti gunea. AED ELKARTEA

**ARRASATE** > EUSKALGINTZA

# San Andres auzoak euskaraz egin dezan, bueltan dator skate festa

AEDk bi ekimenen berri eman du: II. Skate festa egingo dute zapatuan, hilak 25; eta Arrasateko euskararen gaineko ikastaroa egongo da Udal Euskaltegian, urriaren 10etik aurrera

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
AEDk antolatuta, Arrasateko euskara ikasteko ikastaroa emango du Udal Euskaltegiak. 20 orduko ikastaroa izango da eta interesatuek urriaren 10a baino lehen eman beharko dute izena AEDren Pablo Urangako egoitzan.

Eskola egunak eta ordutegia izena eman dutenekin adostuko dira. Matrikula 55 euro izango da –50 euro AEDko bazkideedako–. Horrez gain, ikastaroan izena emateko zalantzan dabilenak zita garrantzitsua izango du irailaren 28an, Kulturaten, Koldo Zuazo hizkuntzalariaren hitzaldian; Arrasateko euskararen jatorriaz jardungo du Zuazok.

**SAN ANDRES EUSKALDUNTZEN**
Bestalde, skate jaia izango da zapatuan, irailak 25, Arrasateko San Andres auzoan, AEDren San Andresko lantaldearen eskutik. Iazkoaren arrakasta ikusita, ekimena bigarrenez antolatzea erabaki dute. Jaia, iaz moduan, Bedoñabe Herri Eskolako patioan. Festan, nola ez, Txatxilipurdiko Gazte txokoen eta Arraska skate taldearen laguntza jasoko dute. 16:30etik aurrera izango da eta hiru gune izango dira: skate gunea, grafiti gunea eta musika gunea. Skate gunean gaztetxoek estilo librean jarduteko aukera izango dute. Gainera, jolasak egongo dira eta sari bat zozketatuko dute parte hartzaile guztien artean. Grafiti gunean, bestalde, Arrasateko grafitigile batzuek eskolako pareta bat margotuko dute, eta tailer bat egongo da gazteek kaleko artea ezagutzen hasi daitezen. Eta, azkenik, musika gunean, DJ Balza bergarararrak zuzeneko musika jarriko du festa girotzeko.

**OÑATI** > PINTURA LEHIAKETA

# Jaien atarian, herriko txokoak betikotzeko

Ageriko VIII. margo lehiaketa hilaren 26an izango da, 09:00etatik 14:00etara; izena egun berean eman behar da

**J.B.** > OÑATI
Ohitura bilakatu da dagoeneko Oñatiko jaien atarian antolatzen den ageriko margo lehiaketa. Aurten zortzigarren edizioa izango da eta irailaren 26an egingo dute, 09:00etatik 14:00etara. Hala, izena egunean bertan eman beharko da kultur etxean, 09:00etatik 11:00etara. Orduan zigilatuko dute norberak ekarri beharreko mihisea –lientzo–. Lehiaketan bi modalitate izango dira: 16 urtetik beherakoak eta 16 urtetik gorakoak. Teknika, bestalde, librea izango da. Sari banaketa 14:30ean egingo dute eta lan guztiak ikusgai izango dira kultur etxean irailaren 27tik urriaren 12ra.

**ETXEKO ORDEZKARITZA FALTA**
Iaz 15 margolarik hartu zuten parte eta Jokin Telleria beasaindarrak irabazi zuen. Ez zen oñatiarrik izan eta Oñatiko margo taldeko eta lehiaketan epaimahai lanak egiten dituen Mila Azkuek honela azaldu du: "Ikastaroetan egiten duguna erakusteko ez da arazorik izaten, baina egunean bertan margotu eta aurkeztu beharra askok ez dute gustuko. Azken finean, arrazoi ezberdinak batzen dira".



Jokin Telleria margolari beasaindarrak irabazi zuen iaz, goiko lanarekin. GOIENKARIA

**IKASTAROA**

## Dantzan egin, Jaiki elkartearen eskutik

Urriaren 5ean hasiko da tailerra; Magdalena Milanok gidatuko du

**J.B.** > ARETXABALETA
2003an sortutako Jaiki elkarteak aurrera darrai ikastaro eta tailer berriak eskaintzen. Oraingoan, erritmo eta dantza tailerrarekin datoz: denetariko dantzak ikasi eta praktikan jartzeko aukera izango da, Magdalena Milano irakaslaren eskutik.

**GABONAK ARTE**
Urriaren 5ean hasiko da ikastaroa eta Gabonak arte iraungo du; martitzenetan izango da, 18:30etik 20:00etara. Aretxabaletako kuartel zaharrean batuko dira eta izena emateko 943 53 43 96 telefonora deitu edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbide elektronikora jo beharra dago. Langabetuek 25 euro ordaindu beharko dute; langileek, berriz, 35 euro.

**HITZALDIA**

## Kristalek gizakian duten eraginaz

Kristaloterapiaren gaineko hitzaldia izango da urriaren 20an, Bergaran

**J.B.** > BERGARA
Jardun euskara elkartearen eskutik hitzaldi bitxia izango da datorren urriaren 20an, Bergarako Kultur etxean. Hilabete inguru falta den arren, komeni da dagoeneko izena ematen joatea. Harremanetarako honako telefeno zenbaki hau luzatu du Jardun elkarteak: 943 76 36 61.

**ERAGIN OSASUNGARRIAK**
Kuartzo kristalek eta bestelako mineralek gizakiarengan izan dezaketen eragin osasungarriak izango ditu hizpide Lurdes Sodupe adituak. Tratamendua kristaloterapia edo gemoterapia moduan ezagutzen da eta gaixotasun ezberdinak sendatzeko gai dela diote gaian adituak direnek.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza salgai San Trokaz kalean (Zelaieta). Bi logela, trasteroa eta garajea. Ondo hornitua. Aukera ona. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 74 36 24

**Altsasu.** Etxe atxikia saltzen dut, leku lasaian, Urbasara begira, 4 logela, 4 komun, sukaldea, egongela, txokoa eta lorategirarekin. 300.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 78 96 86 (Iker)

**Aramaio.** Etxebizitza berria saldu edo errentan ematen da Aita Gabirel Jauregi kalean. Lehen solairua. Bi logela, komuna, egongela sukaldea, trastelekua, ganbara eta garajea. Berokuntza indibiduala. Jantzia. Eguzkitsua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 664 74 90 23 edo 679 45 57 62

**Arbizu.** Arbizun etxea salgai edo alokagai. Lau logela, egongela, sukaldea, komuna, bi balkoi. Etxabera pasadizoa. Ganbara.Lehenengo pisua. Tel: 948 46 09 08.

**Aretxabaleta.** Aukera bikaina. Guztiz eraberritutako etxebizitza salgai Muru-bide kalean. 50 m2, egongela, bi logela, sukaldea, bainugela, trastelekua eta balkoia. Oso argitsua. 23 m2ko ganbara eta guzti. Erdi jantzia. 214.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 79 96 55 edo 685 72 46 86

**Arrasate.** 50 metro koadroko etxebizitza salgai Agerre kalean. Bi logela, egongela, sukaldea. Komuna eta leihoak berrituak. Berogailuarekin. 126.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657 71 41 68

**Arrasate.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai Musakolan. Hiru terraza dauzka. Igogailuarekin. Estreinatzeke. 17 m2ko garaje itxia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 00 89 17

**Arrigorriaga.** Etxea Renfe geltoki, autobus geltoki, eskola, parkea eta polikiroldegien artean dago. Sarrera, sukaldea, egongela, hiru gela, bi bainugela eta ganbara ditu. Banakako gas naturala (ura eta berogailua). Altzariak barne nahi baduzue. Informazio gehiago: *http://go. To/arrigorriaga.* 288.000 euro

**Ataun.** San Martin, eraikin ia berri batean, 100 m2ko etxea salgai, terraz , patioa , garajea eta trastelekuarekin. 280.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 53 50 73

**Bergara.** Boni Laskurain kalean etxebizitza salgai. 90 metro koadro, ganbararekin, hiru logela, egongela, bi komun eta lehorlekua. Balkoi handia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 71 50 36

**Betelu.** Pisua saltzen da. Berria, hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela eta igogailuarekin. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 40 32 20

**Durango.** Alde Zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (Elondo), sukaldea (Fagor elektrotresnak eta Junkers galdara ), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 229.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 607 71 53 53

**Durango.** Atiko zoragarria salgai Durangoko AldeZaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 42 58 90

**Elorrio.** Pisu eder bat salgai, Auzoa auzoan. Leku zoragarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 02 05 81

**Etxarri-Aranatz.** Pisua salgai . 3 logela, sukaldea, komuna, egongela, jangela, terraza, balkoia itxita. Bizitzera sartzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 948 46 01 76 eta 696 19 43 17.

**Larraun.** Etxebizitza-jatetxea salgai prezio onean, Aralar ondoan,Larraun bailaran,martxan. Jatetxea , 4 logela, 2komunak. Herri paregabea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 77 58 14 bea

**Legazpi.** Etxebizitza salgai 74m2, altzariz hornituta. Legazpiko San Martin auzoan kokatzen da. Interesatuok eitu telefono honetara: 943 73 13 52 / 678 08 63 21

**Luz Saint Sauvert.** Luzetik 500 metrora 58 metro koadroko duplexa salgai. Bi logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena egoera oso onean eta jantzita. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 74 62 26

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Guztiz eraberritua. 150.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 71 41 39

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela,sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren solairua. Prezioa: 228.100 euro.Garajea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04

**Ondarroa.** Etxebizitza salgai Ondarroan. Iñaki-deuna kalean kokatuta, berriztua etaeguzkitsua. 54 metro karratutako etxebizitza, 2 logela, egongela bat, komuna eta sukaldea balkoi estaliarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 00 09 74.

**Orio.** Hondartzan pisu berria salgai. Bi logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta bi autorentzako garajea. Terraza eta lur saila ere baditu. Prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 142916

**Tolosa.** Tolosako Alde Zaharrean 50 m2-ko atikoa salgai. Egoera onean dago eta oso argitsua da. Igogailua badu. 132.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 43 00 20. Zuzeneko salmenta.

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 70 18 58

### 102. EROSI

**Arrasate** edo inguruetan 120.000-150.000 euroko etxebizitza erosteko asmoa daukat. Interesa dutenek, deitu: 615 71 04 68

**Segura.** Baserria erosiko nuke Seguran edo inguruan, konpondua edo konpontzeko. 618 34 52 14

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uribarri etorbidean. Eskolatik bi minutura. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Berokuntza zentrala. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 72 27 81

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Unibertsitate ondoan. Berokuntza zentralarekin. Argitsua. Ekonomikoa. 647 22 09 38 edo 945 44 51 11

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea eta egongela. 600 euro hilean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 70 75 80

**Arrasate.** Unibertsitatetik gertu. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Kalefazio eta igogailuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 48 94 04

**Arrasate.** Uribe auzoan pisua alokatzen da, unibertsitatetik gertu. Bost pertsonentzat egokitua, lau logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 653 71 78 94 edo 697 18 30 02

**Arrasaten** ikasleentzako etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela (bat bikoitza), sukaldea, egongela, komuna eta terraza. Unibertsitatetik bost minutura eta erdigunetik gertu. 696 34 29 26

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Matxiategi kalean. Jantzia. 943 76 46 15 edo 652 53 42 81

**Bergara.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 81 71 28

**Elorrio.** Etxe berri-berria alokairuan. Leku onean kokatuta. 647 18 30 88 edo 646 37 76 87 (arratsaldez)

**Eskoriatza.** Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 70 08 00

**Etxarri-aranatz.** Pisua alokagai edo salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 654 23 41 02.

**Etxarri-aranatz.** Pisua alokairuan. Jantzita. 3 gela, sukaldea, egongela eta komuna.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 66 08 76.

**Gasteiz.** Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat. Erdigunean, Jesus Guridi kaleko 1ean. Hiru logea, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 5. Solairua, igogailuarekin. 656 79 73 66 edo 943 71 46 46

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Sukaldea, egongela, bi komun eta hiru logela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 45 23 99

**Oñati.** Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Bostgarren solairua, igogailuaz. Jantzia. Hiru gela, egongela, sukaldea eta trastelekua. Unibertsitateko ikasleentzat egokia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 627 34 96 03

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola** edo inguruan etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi edo hiru logelakoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 62 08 84

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Gehinez, 450-500 euroren truk hilean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 66 33 63

**Berriz** edo inguruan pisua alokatu nahi genukeen bikotea gara. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 95 64 50

**Donostia.** Langile Oñatiar bat naiz eta irailetik aurrera Donostian bizi ahal izateko etxe bila. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 00 87 58

**Elorrio.** Pisu bila nabil alokatzeko. Altzariekin eta berogailuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94 658 21 91. Bego

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko logela bat daukagu errentan. Logela handia, bainugela eta guzti. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 72 79 55

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Bertan langileak bizi dira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 71 44 57

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean, ikasleentzat zein bestela. 648 86 05 49 edo 666 68 00 04

**Arrasate.** Irakasle ikasketak egiten hasiko garen bi ikasle gara, Enara eta Amaia, eta hiru logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxea egoera onean dago, 200 euro izango lirateke pertsonako (gastuak aparte). Etxeak bainugela, sukaldea eta 3 logela ditu, indibidualak eta bakoitza bere idazmahaiarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 71 92 38

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 78 63 41

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Erguin aldean etxebizitza osatzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 59 73 62

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 71 35 83

**Arrasate.** Pisukide baten bila gabiltza etxebizitza osatzeko. Pisua erdigunean dago, Alde Zaharrean. Handia eta argitsua da: lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi eta eguzkitsua ditu. Alokairua+ wifi +telefonoa, 200 euro pertsonako, hilean, gehi gastuak. Animatu eta deitu. 665 71 69 10 edo 943 77 07 00

**Azpeitia.** Alokairuan herritik hurbil, leku paketsu eta lasaian: egongela eta jangela balkoi handiarekin, sukaldea, 2 komun eta 4 logela argitsu ekipaturik. 943 81 34 13 eta 606 07 48 31

**Bergara.** Neskez osatutako etxebizitzaren batean logela beharko genuke errentan, 2010 2011ko ikasturterako, institutuko irakasle batentzat. Deitu telefono honetara: 943 76 31 42 (Leire)

**Bergara.** Logela ematen da errentan, prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655 71 41 24

**Donostia.** Antiguan alokairu kontratudun gela argitsua eta garaje itxia eskaintzen da hilean 375 euro (errenta aitorpeneko dirulaguntzarekin 280 euro!)+ 50 euro gastuengatik irailak 15etik aurrera epe luzerako (12 hilabete gutxienez) 114 m2ko pisuan. Beste 2 pertsona langilerekin (27 eta 29 urte, ez gara bikotea) partekatuko litzateke. 2 bainu, egongela handia, sukalde berri-berria, terraza (14m2) eta piszina. Aukera paregabea. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. Hots egiguzu lehen bait lehen 626 22 92 58 zkira.

**Oñati.** Pertsona baten bila nabil etxea osatzeko. Interesatuok deituidazue zenbaki honetara: 606 15 11 47

**Oñati.** Logela bat daukagu errentan emateko. Interesatuok deituidazue zenbaki honetara: 617 14 39 41

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Ilargi plazan. 26 metro koadrokoa. Autoa garbitzeko lekua dago bertan.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 70 53 79

**Oñati.** 14 metro koadroko garajea, marra, salgai Mendiko kalean. 28.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 661 68 11 24

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bulegotarako** egokitutako, 90 metro inguruko lokala eta 100 metro inguruko lokal industriala salgai Bergaran. Atsegina eta bista ezin hobeak. Aukera ona. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 76 33 56.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Durango.** Andre euskaldun bat behar dugu gure umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Zazpi ordu egunean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605 82 50 26

**Legazpi.** Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko legazpin. Deitu: 649 72 21 68

**Oiartzun.** Etxeko lanak egiteko emakume bat behar dugu, astean lau orduz, Oiartzunen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 70 29 51.

**Dublin (Irlanda).** Gure haurra zainduko duen au pair baten billa gabiltz. Familia euskal-irlandarra. Euskeraz hitzegitea ezin bestekoa da. Astean bost eguneko lana eta urriak hasieran hastekoa. Dublin inguruan. Kondizioetaz jakiteko bidali mezu bat *igorgon@gmail.com*-helbidera.

**Durango.** Goizean umeak eskolara eraman, etxeko lanak egin eta arratsaldean eskolatik hartzeko pertsona baten bila gabiltza. Guztira, 4 ordu egunean. Telefonoa: 625 70 28 36 edo 605 74 70 47

**Segura.** Seguran emakume euskaldun bat behar da umeak zaintzeko goizetan. 943 80 20 03 638 46 34 89

**Segura.** Seguran emakumezko euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 363835.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 53 33 92

**Aretxabaleta** eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. 607 73 16 78

**Arrasate** eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 73 92 66

**Arrasate** eta inguruko herrietan, neska gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 53 97 54

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 00 58 17

**Arrasate.** Emakumezko batek etxeko lanak egin eta zaharrak zainduko lituzke.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09

**Arrasate.** Sukaldean, jatetxe zein hoteletan lan egingo nuke.

---

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20,50 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+BEZ).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+BEZ).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

---

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Masterreka 92 $m^2$. Prezio ona.
- Bidekurutzeta. 85 $m^2$. Berritua.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Irizar pasealekua 70 $m^2$. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 $m^2$. Prezio ona.
- Matxiategi 65 $m^2$. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 $m^2$. Berritua.
- Bolu 96 $m^2$. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. 189.319 €.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa eta Ibarre auzoa. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 $m^2$. Oso etxe ona.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 $m^2$, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 $m^2$, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 $m^2$, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 $m^2$.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.
- **Garajeak salgai San Lorentzon. Aukera ona.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

Baita nagusiak zaintzen edo eraikuntzan ere. Informatika ezagutzak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 12 03 47

**Arrasate.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 04 42 68

**Arrasate.** Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630 20 12 03 edo 638 10 28 85

**Arrasate.** Neska gertu edozein lanetarako. Zerbitzari lanetan esperientziaduna naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671 99 92 70

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 41 24 79

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 607 73 16 78

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14

**Beasain.** Esperientzidun neska, gauetan edo asteburuetan adinekoak zaintzeko lan bila dabil (aukera egon ezkero, interna moduan). Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 42 05 50.

**Beasain.** Orduka lan egiteko emakumea eskaintzen da haurrak nahiz adinekoak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. Deitu 649 07 31 33

**Bergara.** Bergaran haur hezikesta ikasi duen emakume euskalduna umeak zaintzeko gertu. Egun guztian. 943 53 42 54 edo 688 65 30 62

**Bergara.** Umeak zaintzeko, garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko (azken honetan esperientziaduna) gertu nago. Ordutegi malgua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 89 50 13

**Bergara.** Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta baita sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32

**Bergara.** Neska euskalduna gertu arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 77 56 35

**Bilbo.** 22 urteko ikasleak 2010/2011 ikasturtean haurrak zainduko lituzke bilbon. Arratsaldez edota goizez 9ak arte. Arratsaldeetan klase partikularrak ere emango nituzke. Beste haurrekin esperientzia eta udan begirale gisa 5 urtez. Euskera ama hizkuntza. *bilbolana@gmail.com*

**Debagoiena.** Gazte bolibiarra lan bila dabil, edozertarako gertu. 689 64 32 15

**Debagoiena.** Emakume bolibiarra haurren zein pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu dago. Garbiketan ere egingo luke lan, orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 33 66 66

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izanda nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Deitu telefono honetara: 680 30 24 64

**Debagoiena.** Emakume bolibiarra lan bila dabil, eta edozein motatako lanak egiteko gertu dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 71 27 81

**Debagoiena.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko, baita etxeko lanak egiteko ere.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 663 65 78 43

**Debagoiena.** Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Debagoiena.** Enkofratze lanetan aritutako lehenmailako ofiziala lanerako gertu. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 673 03 09 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldari lanak egiteko asteburuan edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 78 63 41

**Debagoiena.** Neska boliviarra lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo asteburuetan. Legezko dokumentu guztiekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 14 71 34

**Debagoiena.** Mutila gertu soldatzaile lanak egin edo eraikuntzan lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 677 17 43 75

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa, zerbitzari, sukaldean zein bestelako lanetarako. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671 84 71 71

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa edo zerbitzari lanetan jarduteko. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 689 88 80 23

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko eta baita sukalde laguntzaile lanetan jarduteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32

**Debagoiena.** Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetan edota sukaldari laguntzaile moduan. Esperientziaduna eta erreferentzia onekin. Egunez eta gauez lan egiteko prest; interesatuok bidali e-posta: *animilena@hotmail.com. edo deitu zenbaki honetara:* 943 79 04 69

**Debagoiena .** Neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko gauez zein egunez, edo etxean bertan lo eginda ere bai. Klinika laguntzaile titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 38 46 81

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Fany.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 94 65 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Luisa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 89 98 60

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 78 35 94

**Debagoiena.** Neska etxeko lanak egiteko prest, orduka, interna edo ez; edozein modutan. Tabernetan ere lan egingo luke. Esperientzia daukat sukaldean. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak dauzkat, eta baita paper guztiak behar bezala ere. 943 53 36 72 edo 677 73 79 59

**Debagoiena.** Neska etxeko lanak egiteko prest, orduka, interna edo ez; edozein modutan. Tabernetan ere lan egingo luke. Esperientzia daukat sukaldean. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak dauzkat, eta baita paper guztiak behar bezala ere. 943 53 36 72 edo 677 73 79 59

**Donostia.** Neska euskalduna irailetik aurrera goizetan haurrak zaindu edo eskolara eramateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 70 17 09

**Eibar.** 20 urteko neska eibartarra umeak zaindu edo dependienta lanak egiteko prest arratsaldez. Esperientzia. 688 60 89 22 . Leire

**Elorrio.** Neska euskalduna astelehenetik ostiralera bitartean, arratsaldetan, pertsona edadetuak paseatzera ateratzeko prest. Interesa baduzu... 688 65 42 91 (arratsaldetan deitu)

**Elorrio.** Elorrion neska gazte bat arratsaldez haurrak zaintzeko prest dago, baita haurraren etxeko lanez arduratzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 36 13 81

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Irailetik aurrera. Haur Hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda eta gaur egun hezkuntza bereziko ikasketak egiten. Interesa baldin baduzu, deitu: 688 64 06 04 (arratsaldez).

**Iurreta.** 27 urteko neska euskalduna, ixorretarra, astelehenetik-ostiralera goizeko (07:00-16:00) lan egiteko prest. Umeekin, ezindu psikikoekin eta adinekoekin esperientziaduna. Gizarte eta kultur animazioa ikasia. Kotxe propioa daukat. E-posta: *lorena_ixorreta@hotmail.com*. 607 34 06 59

**Olaberria.** Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, (EGA) titulua daukat eta umeekin lanean esperientzia. Haurrak zaintzeaz gain etxean laguntzeko ere prest egongo nintzateke, ez daukat arazorik beste herri batzuetara mugitzeko. Edozertarako deitu lasai 628 45 37 34 telefono zenbakira

**Oñati.** Neska euskalduna irailetik aurrera arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 15 11 47

**Tolosa.** Esperientziadun neska bat eskaintzen da kurtsoan zehar haurrak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 70 61 03.

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz, asteburuetan ere lan egiteko prest nago, edozein lanetarako: lorazain, mahastietan eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658 73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Batxilergo bigarren mailako eskola partikularrak behar ditut. Deitu zenbaki honetara: 685 75 80 42

**Bergara.** DBHko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 20:00etatik aurrera deitu. 943 76 03 75 edo 605 26 24 62

**Bergaran** EGA azterketa prestatzen lagunduko didan norbait beharko nuke. Gorka.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628 51 22 78

**Debagoiena .** Errusiera irakatsi diezadakedan pertsona baten bila nabil. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 15 31 65

**Debagoiena.** Matematikako eskola partikularrak ematen dira. Udan eta kurtsoan zehar. DBH eta batxilergo mailak.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 38 10 07

**Donostia.** Donostiako antigua auzoan, 4. Dbhko klaseak etxean emateko irakaslea behar da. Eskolako lanetan lagundu, baita ingelesa ere. Telefonoa. 685 72 32 50 // 685 72 32 49.

**Oñati.** DBH bigarren mailako eskolak emango dituen pertsona esperientziaduna behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 627 91 23 21

### 502. EMAN

**Antzuolan** Frantses ingeles eta alemanezko klaseak ematen ditut Antzuolan. Maila oinarrizkoa eta ertaina. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 76 62 05

**Aretxabaleta.** Bigarren Batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 01 76 67

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut lehen hezkuntzako (6 12) umeei. Irakasle ikasketak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 23 34 98

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut. DBH eta batxilergo mailak barne. Itsaso. 699 39 20 20 edo 943 79 78 96

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Goimailako ingeniari industriala. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa... Maila guztiak unibertsitatea barne. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 71 35 83

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira batxilergo mailara arte. 677 75 12 90 edo 943 79 79 86

**Arrasate.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak, sei urtetik aurrera. Arantxa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 64 12 56

**Bergara.** Bergaran ingeleseko elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. 654 94 87 26

**Bergara.** Irakasle esperientziadunak LH eta DBH-ko lehen zikloko eskola partikularrak ematen ditu. Ingeleseko first certificate du. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 16 30 10

**Bilbo.** Euskara klaseak ematen ditut Bilbon, errekuperazio zein errefuertzokoak. Lehen Hezkuntzan,DBH-n eta batxilergoan. Baita EGA eta hizkuntza eskakizunak prestatzekoak ere (mintzamena eta idazmena). Euskal filologiako ikasle bat naiz, esperientzia handiduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 25 05 84

**Debagoienean** matematikako eskola partikularrak ematen dira. Udan eta kurtsoan zehar. DBH eta Batxilergo mailak.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 38 10 07

**Donostia.** Klase partikularrak ematen ditut Donostian edo inguruan. Euskal Filologian lizentziatua naiz eta esperientzia daukat. Maila guztiak. Deitu: 635 75 25 67

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 74 61 76

**Durango.** Heziketa bereziko eta psikopedagogiako ikasketak dituen 23 urteko neska euskalduna, lehen hezkuntzan klase partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 73 18 81

**Elorrio.** Irakaskuntza ikasten dabilen elorriotarra astelehen, asteazken eta ostiraletan lehen hezkuntzako haurrei klase partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 600 88 32 13

**Elorrio.** Neska euskalduna astelehenetik ostiralera, arratsaldetan, lehen hezkuntzako (5-12) klase partikularrak emateko prest. 688 64 06 04(arratsaldetan deitu)

**Gasteiz.** Klase partikularrak emateko eta haurrak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntzako ikasketak egiten ari naiz eta ondorioz arratsaldetan bakarrik lan egin ahalko nuke. Esperientzia daukat bai klaseak ematen eta baita haurrak zaintzen ere. Aisialdirako monitore titulua daukat. Ega ere badaukat. Kontaktuan jartzeko deitu 648 70 15 92 telefono zenbakira. Etxeko lanak egiteko prest ere banago.

**Gernika lumo.** Lehen hezkuntzan eta musika hezkuntzan diplomatua eta esperientziaduna klase partikularrak emateko, umeak zaintzeko edo euskal herriko edozein gunetan irakasle bezala lan egiteko prest. Interesatuak deitu 687 95 06 05 telefonozenbakira.

**Lasarte-oria.** 21 urteko neska euskaldun esperientziaduna astean zehar arratsaldez klase partikularrak emateko prest egongo litzateke,kontaktuan jarri nahi izanez gero telefono honetara deitu: 618 01 93 09.

**Oñati.** Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua irailetik aurrera arratsaldeetan LH edota DBHko klase partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 15 11 47

**Oñati.** Irailetik aurrera klase partikularrak ematen dira. Esperientziadun irakaslea naiz eta banaka edo talde txikiak hartzen ditut, LH., DBH. Eta batxilergoko mailetan. Ikaslearen edo irakaslearen etxean. 649 27 63 50 edo 943 53 28 15

**Oñati.** Irakaskuntza munduan esperientzidun ingenieri mekanikoa, klase partikularrak emateko prest. DBH nahiz lanbide heziketako ikasleei. Deitu telefono honetara: 646 42 13 63

**Ormaiztegi.** Lehen eta bigarren hezkuntzako errefortzu klaseak ematen dira. 696 59 78 78

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664 16 02 68 eta posta elektronikoa *continental56 @hotmail.com*

### 503. BESTELAKOAK

**Euskara-frantsesa.** Hizkuntza elkartrukea egingo nuke. Nik frantsesez moldatzen irakatsiko nizuke eta trukean euskara ikasi nahi nuke. 602 12 03 47

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autoa salgai.** Volkswagen Touareg V6. Hiru urte bakarrik ditu. 100.000 kilometro. Oso egoera onean eta prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 40 32 20

**Clio familiarra salgai.** Clio Grand Tour berria. Dynamique 1.5dci 85ZP. Gris zilarkara. 2 urte eta erdi. 30.000 km. Diesela. 12.000 euro. Aire egokitua, erreguladorea, limitadorea. Break. Airbagak. 5 ate. Bihurguneetarako argi gehigarriak. Aurreko kristal igogailu elektrikoak. Ixte sistema zentralizatua. Atzeko banketa 1/3-2/3. Cd. Garantia: 2012-01-22. Urteko errebisioa pasatu berri. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 93 90 95.

**Seat 600 l.** Oso egoera onean. Itva pasatu berri. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 71 78 21

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**American Pit Bull** Terrier arrazako txakurkumeak salgai. Abuztuaren 4 ean jaiotakoak. ADBA pedigreearekin. Telefonoa: 669 17 09 51

**Euskal artzai txakurkumeak.** Euskal artzai txakurra, gorbeiakoa. Abuztuaren hirugarren astean jaiotakoak. 150 euro. Artzantzarako zein konpainia ona egiteko oso aproposak. Ama eta aita apartak bezain maitakorrak. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79

**Hiru txakurkume salgai.** Bi eme eta ar bat.Ispanierrak. Bi hilabete eta erdi dauzkate. Telefonoak: 943 81 00 36 edo 626 88 81 51 (Juanito)

**Poni gazteak salgai.** Sagastian ibiltzen ohituta zuhaitzei kalterik egin gabe. Deitu telefono honetara: 675 87 48 98

**Rottweiler txakurkumeak salgai.** Espainiako txapeldunen kumeak dira. 605 75 91 42

**Setter ingeles txakurkumeak salgai.** 2010eko maiatzean jaioak. Oilagorretarako aproposak. 605 73 75 30

**Spaniel txakurkume arra salgai.** Spaniel txakurkume arra salgai. 2010eko maiatzaren 15ean jaioa. Zuri beltza. Arkaitz. Deitu telefono honetara: 610 36 39 94

**Usoak salgai.** 5 euroan. Deitu telefono honetara: 699 72 34 42

### 703. EMAN

**Arratoi** txakurkumeak ematen dira opari.685 75 86 49

**Cocker ingelesa ematen da opari.** Pedigriarekin. Txertoak ipinita dauzka. Emea da eta lau urte dauzka. Beltza da. 618 00 08 28

**Husky siberiar txakurkumeak ematen dira opari.** Husky siberiar txakurkumeak ematen dira opari. 11 txakurkume dira, hilabete eta erdikoak. Presazkoa da. Etxean jaso nahi badituzu, deitu zenbaki honetara: 686 93 43 59

**Pointer txakurkumeak ematen dira opari.** 656 71 73 02

**Txakurkume bat oparitzen da.** Abuztuaren bigarren astean jaioa. Ama border collie-a da. 663 91 12 61

### 704. BESTELAKOAK

**Katu persa galdu** zen abuztuaren 29 iluntzean Aretxabaletako Andra Mari auzoan. Persa txintxilla zuria da, arra, eta Roko du izena. Mesedez, ikusi edota topatu duenak dei dezala zenbaki honetara: 616 17 94 01.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoia salgai.** Akordeoia salgai. 120 baxu, b-14c. Murriztua. 647 51 52 80

**Arrue markako ume aulkia salgai.** Berri berria dago. 605 74 69 49

**Bajua salgai.** 10 orduan bakarrik erabilitako bajua saltzen dut. Funda, ¡anplifikadorea (20w), kablea eta hiru pua barne. 200 euro. Bidali mezua: *jbpetgarjo@hotmail.com*

**Bugaboo Cameleon** salgai. 2008koa. Kapazoa, negu eta udarako zakuak, euritarako burbuja, moskitera eta bi eguzkitako. Orain dela 5 hilabete aldatutako txasia. 500 euro. 618 19 10 96.

**Chico Trio aulkia,** kapazoa eta maxicosia salduko nituzke. Egoera onean. 120 euroan hiru gauzak. 678 59 47 71 edo 637 00 01 58.

**Fotokopiagailu** digitala salgai. Gestetner DSM615 markakoa da eta ADF DSM615 dokumentuen elikagailua dauka. 66.100 kopia aterata. 943 79 75 53 edo 637 83 18 07

**Haurrak eramateko** mendiko motxila salgai. 658 12 43 38

**Karabana** salgai. 2008 urtekoa. Scarlet markaduna. Hiru anbiente. 12.000 euro. Interesatuak deitu honako telefonora: 617 08 60 68.

**Karabana** salgai. Burstner 490. Prezio onean. Oso ondo zainduta. Sei pertsonendako. 635 74 17 37.

**Karro-denda** salgai. Raclet Minto modeloa. Bi ohe, bi arkoi eta abantzea. Sukaldeko denda opari. Bizikletak eramateko parrilla dauka. Oso egoera onean dago. 615 71 09 13.

**Klarinetea eta tronpeta** salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 80 87 85.

**Kotxe-kapota.** Hiru erroberako bebecar kotxe-kapota eta bere aulkia saltzen dira. Egoera oso ona. Urdina. Euriarendako plastikoa. 90 euro. 656 73 54 80

**Lowepro Primus AW motxila.** Mendira joateko oso egokia. Gutxi erabilita. Reflex argazki kamera eta zoom objektiboa (70-200 mm-raino) sartzen dira. Gainera, beste bi objektibo edo flasha ere sartzen dira. Tripodea edo mendiko bastoia eramatekoa du. 667 95 73 16

**Maclaren** aulki-aterkia eta Jane Slalon Pro kapazo-aulkia. 0 taldekoa, poltsa eta burbujarekin. Dena 500 euro. Erosketarekin, aulkirako 2 zaku opari. 657 77 91 74.

**Mahaiko ordenagailua** Asus P5GC-MX/1333 E2140 2GB 400GB" mahaiko ordenagailua saltzen dut. Guztiz ekipaturik (plasmako pantaila, altabozak...). 2 urte eta erdi ditu eta oso egoera onean dago. Prezioa 230 euro. 670 52 58 74.

**Matrix gorria.** Jane etxekoa. Kotxerako aulki moduan erabilgarria. 0+ taldekoa. Ia berria. 40 euro. 607 06 22 20

**Maclaren aulki-aterkia eta jane slalon pro kapazo-aulkia.** 0 taldekoa, poltsa eta burbujarekin. Dena 500 euro. Erosketarekin, aulkirako 2 zaku opari. 657 77 91 74

**Paseo aulkia salgai.** Bebe Confort markako paseorako aulkia saltzen da. Horrekin batera kotxearentzako homologatuta dagoen grupo 0, aulki bietako burbujak eta kapotak oparitzen dira. 100 euro. Deitu telefono honetara: 650 91 48 06

**Piraguarako anoraka** Piraguarako anoraka saltzen dut, berri berria dago, Artistic markakoa, Mikroporeskoa , M tailakoa eta semi-lehorra. 679 10 95 23.

**Umea eramateko** motxila. Baby Börjn etxekoa. Beltza eta gorria. Bizkarrarendako errefortzuarekin. Berria. 80 euro. 607 06 22 20

### 802. EROSI

**Bizikleta.** 6 urteko mutikoarentzat bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. Deitu 649 00 53 42 telefonora.

**Ineska Dakota** edo antzerako karro denda erosiko nuke. 696 40 82 19.

**Lursaila** Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. Deitu 669 17 09 51 zenbakira.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Automobileko giltza galdu dut. Renault Megane autokoa da. 680 60 94 74

**Eskoriatza.** Uztailaren 29an Nokia telefono mobil bat galdu nuen. Topatu baduzu utzi Udaltzaingoan (Eskoriatzako Udaletxean) edo deitu telefono honetara. Mila esker. 629 47 30 51.

**Poltsa beltza** galdu nuen irailaren 14an, San Prudentzioko biribilgunean. Aurkitu baduzu, deitu deitu zenbaki honetara, mesedez. Eskertuko da. 699 40 73 35.

**Pultsera galdu Bergaran.** Uztailaren 13an, martitzena, eskumuturrekoa galdu nuen Bergaran. Balio sentimental handikoa da, eta sarituko da. 943 76 03 73

**Urrezko katea galdu dut Zarautzen.** Aurkitu duenak (Oier 16-05-2001) jartzen du. Deitu telefono honetara: 615 76 11 98

### 807. AURKITU

**Sudadera aurkitu.** Uztailaren 15ean, eguena, Landatik Arrasatera autostopez etorri eta sudadera gris eta beltza autoan ahaztu bazenuen, bazen daukazu.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Gasteizera autoa konpartitu .** Goizeko 8retarako Gasteizen egoteko, gastuak edo autoa konpartitzen dira. Dagoeneko 2 lagun gara. Abuztuko azken astetik edo irailetik aurrera. Bueltarako ere aukera ematen da. 635 71 73 58

**Zarautza lanegunetan.** Tolosaldetik edota Goierritik Zarautza autoz joateko jende bila. Irten, 7etatik 8etarako tartean; handik, bueltan, 15etatik 16etara. 688 60 67 15.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin. Edo zure herriko jai edoikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. aldeza*harrekojoaldunak@gmail .com*

LAZKAO INMOBILIARIA
365 API

AZKEN PISUAK SALGAI
Bi logela eta duplexak
Irailean eskrituratzen dira
Jose Lasa, 4-behea - 20210 Lazkao • 943-88 37 39
www.lamylazkao.com

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96
www.inmosalbide.com

**Aizarnazabal.** 3 logelako etxebizitza. 10 metro koadroko trastelekuarekin. Oso prezio onean. 33.000.000 pezeta.

**Aizarnazabal.** AUKERA ONA. Etxebizitza eraiki berria. 2 logela. 30.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Azken Portu. Logela bateko etxe handia. Altua eta bista ederrak. Trastelekua eta igogailua. 47.000.000 pezeta.

**Zarautz.** Vista Alegren. 2 logela ditu. Terraza handia. Eguzkitsua. 49.500.000 pezeta.

**Zestoa.** Arroa behea. 2 logelako etxebizitza. 28.000.000 pezeta.

**Getaria.** Herrerieta kalea. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. Prezio onean: 42.500.000 pezeta.

**Aia.** Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127m2ko terraza. 46.588.000 pezeta.

**Aia.** Santio auzoa. AUKERA BIKAINA. 92 m2ko 3 logelako etxebizitza. 15m2ko tratelekuarekin. Erreforma behar du. 25.885.000 pezeta.

## gazte zerbitzua

BEKAK

**> Lankidetza bekak.** Eusko Jaurlaritza. 175 beka emango dira unibertsitateko ikasketekin batera lankidetzan jardun nahi dutenentzat. Epea: irailak 30.

**> Euskara.** HABE. Habe ikasleentzako dirulaguntzak 2010. Epea: urriaren 7a.

IKASTAROAK

**> DYA.** DYAren sorospen eta lehen sorospenetako ikastaroa Errenterian. Datak: irailaren 6tik 24ra.

**> Begiraleak eta zuzendariak.** Aisiolak antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko aukera duzu irailaren 21era arte. *aisiola@ikastola.net*

LANA

**> Eureseko lan eskaintzak.** Kontsultatu Euresek atzerrian lan egiteko dituen eskaintzak.

**> Lankidetza bekak.** Eusko Jaurlaritza. 175 beka emango dira unibertsitateko ikasketekin batera lankidetzan jardun nahi dutenentzat. Epea: irailak 30.

**> Gizarte hezitzailea.** Ostargi Gizarte elkartea. Ostargi Gizarte elkarteak gizarte hezitzaile bat behar du. Epea: azaro amaiera baino lehen.

LEHIAKETAK

**> Film laburrak.** Astialdi Foroa. Astialdi Foroko Film Laburren Lehiaketa. Epea: urriaren 29a.

**> Komikia.** Euskadi Bakea eta Elkartasuna Fundazioa. Globalizazioaz eta Lan Eskubideez Komiki Lehiaketa. Epea: azaroaren 1a.

gazte informazioa

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 25 20 65.
*gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net*

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
*gzerbitzua@euskalnet.net*

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
*gazteinformazioa@oinati.net*

## astea GOITBn

### Astelehena, 20



**> Gatzagako auto igoera, 'Harmailatik'-en**
**20:45, 22:30**

Zapatuko Gatzagako auto igoera luze eta zabal jorratuko du Xabier Urtzelaik. Lasterketako irudiak, automobil barrukoak eta beste emango ditu.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Estetika: Kolagenoa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Lekeitioko jaiak: Batelak.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** 28 Klik.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 21



**> Kantari musika lehiaketa berriz ikusgai**
**13:45, 19:15**

Ume eta gaztetxoak protagonista dituen *Kantari* musika saioa berriz ikusteko aukera dago; gaur, Aretxabaletako saioa izango da.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Erreportajea: Arraiotzeko jaiak.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Eskuokin.
**17:55** Kulturzulo.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:30** Goiena Magazinea.
**22:30** Iragana gogoratuz.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 22



**> Euskal Kulturgintzaren Transmisioa**
**19:45, 21:15**

Euskal Kulturgintzaren Transmisioan aditu titulu ikasketek 3. edizioa dute. Aurreko edizioko bi ikasle elkarrizketatuko ditu Arritxu Barrusok.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Estetika: Kolagenoa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Iragana gogoratuz.
**15:50** Onein.
**16:20** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Iragana gogoratuz.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Goiena Magazinea, tertulia.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Jazz jaialdia.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 23




**> Dantza Hirian jaialdiaren gainekoak**
**22:15**

*Gipuzkoakultura* saioan hainbat gai landuko ditu Goiena Telebistak, tartean Dantza Hirian jaialdia eta Antioko udako musikaldia.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Estetika: Permanentea.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Goiena Magazinea, tertulia.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Onein.
**18:15** Marrazki bizidunak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Animalia.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:00** Erloklip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 24



**> Oihan Vega aurkezlea, GOITBn gonbidatua**
**19:45, 21:15**

Oihan Vega bergararrak bost orduko magazinea aurkeztuko du Euskal Telebistan. Hura elkarrizketatuko dute *Goiena magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta lur.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Herriz-herri: Ezkurra.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Kantari.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Zaldi lasterketa.
**22:45** Zaldi probak.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Cool Circus eta Adi Holdenen diskoak eta Danbakako materiala**

Danbaka musika lehiaketaren 4. edizioa badator. Hori dela eta, Arrasate Irratiak aurreko edizioetako materiala dauka banatzeko: Danbakako kamisetak eta baita Cool Circus arrasatearren *More circus than ever* eta Adi Holden bergararren *Adi Holden* diskoak. Zozketan parte hartzeko: 943 25 05 05 / *irratia@goiena.com*.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Musika
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Donostiako Aquariumera bisita
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Inguruko igerilekuen berri
Udal Gazte Bulegoa bertatik bertara
Astearen errepasoa (GOIENKARIArekin)
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
Agenda hitzorduak
Musika
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Uda Giroan

## telealbisteak

**GOIENA TELEBISTA** > ESTREINALDIA

# Gurasoei zuzendutako tertulia saioa izango da hilero, eguaztenean hasita

Larraitz Zeberiok aurkeztuko du eta hainbat adituk hitz egingo dute; lehen saioan, eskolaz kanpoko jarduerez

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Etzi, eguaztena, gurasoendako tertulia saioa estreinatuko du Goiena Telebistak. 20:45ean emango dute eta Larraitz Zeberiok aurkeztuko du. Hilean behin batuko dira mahaiaren bueltan gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, psikologoak, terapeutak, pedagogoak, begiraleak… gurasoei interesa dakizkiekeen gaiez berba egiteko.

**LAU GONBIDATU**

Eskolaz kanpoko jarduerak izango dituzte hizpide lehenengo saioan. Hizlariak hauek izango dira: Rafael Cristobal, haur psikiatrian aditua; Eneko Barberena, Txatxilipurdi elkarteko zuzendaria; Gari Ibartzabal, Arizmendiko aisialdi arduraduna; eta Iñaki Kasares, gurasoa eta *guraso.com* webguneko kolaboratzailea. Lehen eskolaratzeaz, lana eta familia bateratzeaz, eskolaz kanpoko jardueren egokitasunaz, jolas librearen garrantziaz… jardungo dute.

**ASTERO, GAI BAT**

Astero, tertulia saio bat izango da Goiena Telebistan, eta lau gai orokor txandakatuko dira; hezkuntzarekin hasiko dira.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO…

SUAREN ZIENTZIA (ANIMAZIO BERRIA!)

Animazio berri honetan, hainbat esperimentuen bidez, sua lortzeko modu ezberdinak ikusiko ditugu. Lortzeko errezak eta amankomunak diren elementuak erabiliz, suaren konkista nolakoa izan den ulertuko dugu eta prozesu horretan zein elementu erabili diren ere ezagutuko dugu.



Informazio gehiago: www.miramon.org edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
Ordutegia
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



ARETXABALETA
**Jokin Larrañaga Madinabeitia**
Irailaren 14an, 4 urte. Zorionak, *txikitin*! Dagoeneko lau urtetxo! Nahi edo ez nahi, egun zoragarrixe pasa deizula etxekoen partetik. Muxuak!



OÑATI
**Markel Elorza San Miguel**
Irailaren 14an, 4 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi-handi bat Familiako guztion partetik.



BERGARA
**Iñaki Larrea Mendizabal**
Irailaren 16an, 40 urte. Zorionak, aitatxo! Muxu handi bat eta ondo pasa dezazula eguna.



ARETXABALETA
**Adoratriz Herrasti eta Joxe Miel Uribarren**
Irailaren 16an urtebetetzea. Amama, aittona, zorionak bixoi eta patxo potolo-potolo bat Ane eta Beñatek. Amama, badakigu uztailian bete zenituela urtiak, ezta inoiz berandu. Pa!



OÑATI
**Maialen Igartua**
Irailaren 16an, 17 urte. Zorionak Igar! Ondo-ondo pasatu zure eguna, merezi dozu ta! Muxu bat Nerea eta Ireneren partetik!



ARRASATE
**Oxel Arriaran Lagunilla**
Irailaren 16an, 7 urte. Zorionak, Oxel! Ondo pasatu zure egunean eta milaka muxu handi, familia guztiaren partetik. Maite zaitugu.



ARRASATE
**Irati Rodriguez Sanzberro**
Irailaren 17an, 2 urte. Zorionak, Naiaren, Maialenen eta familia guztiaren partetik!



OÑATI
**Amaia Dorleta Muruamendiaraz Goikoetxea**
Irailaren 17an, 16 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure egunean! 16 urte badira jada eta. Guztion partetik muxu pila bat eta zuk nahi ituzun opariak jaso ditzazun. Maite zaitugu. Lagunak.



ANTZUOLA
**Saioa Zabalo Lazkano**
Irailaren 18an, 8 urte. Zorionak, guapa! Ondo pasatu zure egunean. Muxu handia, etxekoen partetik.



OÑATI
**Maribel Alzelai**
Irailaren 19an, 62 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi-handi bat etxeko danan partetik.



OÑATI
**Ines del Amo**
Irailaren 19an, 28 urte. Zorionak, amatxo. Muxu asko-asko etxeko danen, eta bereziki, Marina eta aitatxoren partetik. Mua.



ARETXABALETA
**Jon Larrañaga Ormaetxea**
Irailaren 19an, 4 urte. Zorionak, pirata! Ederto pasatu eguna eta muxu pila-pila familia guztiaren partetik, bereziki Iraideren partetik.



ARETXABALETA
**Josu Txintxurreta**
Irailaren 20an, urtebetetzea. Zorionak, Txin! Finlandiatik gaztetuta etorri baza be, urtiek aurrera doiez. Ondo ospatu! Argazkiak eta tortillak zeure kontu, ezta? Lankidiak.



OÑATI
**Elene Agirrebalzategi Lizarralde**
Irailaren 20an, urtebete. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu potolo bat aittatxo eta amatxoren partetik.



ESKORIATZA
**Antton Salaberria Beitia**
Irailaren 20an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Ane Fernandez Alonso**
Irailaren 20an, 2 urte. Zorionak! Gure poxpolintxok bi urtetxo! Familixakuen eta bereziki lehengusu Beñat eta lehengusiña Marenen partetik, ondo pasatu eta marrubizko patxo handi-handi bi.



BERGARA
**Ane Larrañaga Zubizarreta**
Irailaren 21ean, 11 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Monika Beltran de Heredia Altube**
Irailaren 22an, 6 urte. Sorgintxo galanta zara eta benetan maitagarria, gure neskato "ertaina". Zorionak, MariMo! Eta patxo, patxo. Alaitz, Eñaut eta Manex.



ARETXABALETA
**Laura Unanue Iturricastillo**
Irailaren 22an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztion partetik.



BERGARA
**Elene Taboada Muruamendiaraz**
Irailaren 22an, 2 urte. Zorionak, Elene! Familiakoen partetik!



ARRASATE
**Jokin Bereziartua**
Irailaren 22an, urtebetetzea. Zuretako be urtiak aurrera doiazela, mutikote! Zorionak lankideen eta etxekoen partetik!



ARRASATE
**Elene Ormaetxea Artola**
Irailaren 22an, bi urtetxo etxeko sorgintxoak! Zorionak eta muxu goxo-goxuak, txikita!



ARRASATE
**Maddi Etxagibel Ruidiaz**
Irailaren 22an, 4 urte. Muxu handi-handi bat denon partetik.



ARAMAIO
**Aner de la Torre Urzelaiz eta Maitane Palomero Fernandez**
Maitanek abuztuaren 10ean eta Anerrek irailaren 22an, bost urte. Zuen familia eta lagunen partetik, zorionak.



BERGARA
**Iago Da silva Garcia**
Irailaren 23an, 4 urte. Zorionak, mutil handi! Ez aldatu inoiz.Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu pila bat zure lagunen partetik: Naia, Hugo, Andoni, Ander, Nora, Martin eta Ekiñe.



OÑATI
**Alazne Unzurrunzaga Arkauz**
Irailaren 24an, 7 urte. Zorionak, Alazne! Ondo-ondo pasatu eguna! Muxu bat zure familixian partetik.



ARETXABALETA
**Aimar Iturbe Murgiondo**
Irailaren 22an, urtebete! Zorionak eta muxu handi bat famili guztiaren eta, bereziki, Oinatzen partetik.



BERGARA
**Saioa Leturia**
Irailaren 24an, 6 urte. Zorionak, potxola! Txokolatezko muxuak aitatxo eta amatxoren partetik!

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

## asteburuko albuma




**Dantza Suelto Txapelketa.** Moisez Azpiazuren oroimenez, bariku iluntzean egin zuten XXVI. Dantza Suelto Txapelketa Bergarako Udal pilotalekuan. Lehen saria Hernanira joan zen. Bigarrena, berriz, herrian bertan geratu zen; Baseta eta Igartua bikoteak eraman zuen. Azken urteetan kostata lortu dira nagusien dantza suelto txapelketarako bikoteak, baina, aurten, bederatzi bikote izan dira eta maila paregabea erakutsi dute oholtza gainean. Pilotalekua beteta, arin-arinaz eta fandangoaz gozatzeko hitzordu aproposa izan da aurten ere Bergarako Dantza Suelto Txapelketa.



**Besaide Eguna.** Aurten, Aramaioko Orixol mendizale elkarteak izan du oroimen egun hau antolatzeko ardura. Eguraldi bikaina lagun, jende mordoa batu zen mendi istripuz aurten bizia galdu duten euskal mendizaleen oroimen egunean. Goizeko hamaiketan hasi ziren ekintzak tontorrean: txalaparta, meza eta bertsoak eta, ondoren, dantzarien lore eskaintza. Euskal Herriko Mendi Federazioko lehendakari ordea bertan izan zen eta hitz hunkigarriak egin zituen. Tartean, Joseba Iglesias gazte arrasatearra ere oroitu zuten atzo Besaiden izan ziren lagunek.

## jaiotakoak



**Nora Aranegi Etxebarria**
Arrasate > 2,630 kilo. Gurasoak: Alaitz (Arrasate) eta Gaizka (Arrasate). Argazkian, Nora jaioberria, sehaskan lo.



**Ekain Arruti Martin**
Arrasate > 4,000 kilo. Irailaren 15ean. Gurasoak: Ana (Basauri) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Ekain jaioberria, sehaskan lo.



**Haizea Galan Perez**
Aretxabaleta > 3,280 kilo. Irailaren 14an. Gurasoak: Rakel (Aretxabaleta) eta Kiko (Eskoriatza). Argazkian, Haizea jaioberria, amarekin.



**Ander Eizagirre Sanchez**
Arrasate > 3,670 kilo. Irailaren 16an. Gurasoak: Nuria (Bergara) eta Jon Ander (Arrasate). Argazkian, Ander jaioberria, aitarekin.



**Haizea Gracia Gomez**
Arrasate > 3,270 kilo. Irailaren 16an. Gurasoak: Izar (Eskoriatza) eta Ibai (Eskoriatza). Argazkian, Haizea jaioberria, sehaskan lo.



**Mireia Obeso Almeida**
Oñati > 3,480 kilo. Irailaren 15ean. Gurasoak: Maite (Oñati) eta Ion (Oñati). Argazkian, Mireia jaioberria, aitarekin.



**Aitor Sanchez Diaz**
Bergara > 2,120 kilo. Irailaren 15ean. Gurasoak: Esther (Bergara) eta Carlos (Bergara). Argazkian, Aitor jaioberria, amarekin.



**Iraia Prol Barbero**
Arrasate > 2,850 kilo. Abuztuaren 27an. Gurasoak: Soraya (Arrasate) eta Antonio (Arrasate). Argazkian, Iraia jaioberria, sehaskan lo.

## kuxkuxeroa



Lander Muñagorri

# Lertxundi, Fernandez eta Otxoa jarraituz

Baketik-en ikasturte berriaren hasiera ekitaldian, Anjel Lertxundi idazleak sarrera hitzaldia eskaini zuen. Inork oso gustura entzungo zuen bere hitzaldia nonbait. Izan ere, behin ekitaldia amaituta, bere jarraitzaile bat inguratu zen berarekin argazki bat ateratzeko. Jonan Fernandez ere bertan zegoen, eta biekin argazkia ateratzeko aprobetxatu zuen unea gizon honek. Ez dira Cristiano Ronaldo eta Messi, baina Lertxundi eta Fernandezek ere badakite euren jarraitzaileen gurariak

**"Ronaldo edo Messi izan barik jarraitzaileen gurariak bete zituzten Arantzazun"**

betetzen. Laster ikusiko al ditugu sinadurak ere banatzen?

Jarraitzaileekin jarraituz, Gatzagako igoeran bat baino gehiago bildu ziren zapatuan errepide bazterretan, ikuskizun egarriz. Eta izan zuten ikuskizuna, bai horixe! Mikel Otxoak sekulako erakustaldia eman zuen, eta ikusleek eskertu zioten. Hala ere, ezin izan zuen lasterketa guztia amaitu, erakustaldia emate nahi horretan "muxu" handiegia hartu baitzuen. Kontuan hartuz gero Otxoa bera Gatzagako igoeraren antolatzaileetako bat dela, ez dio bere patuaren errua antolakuntzari botako bederen!

Letren jarraitzaile sutsua bata, eta abiadurarenak beste hamaika, ikuskizunak ez duela bada genero eta esparruz ulertzen!

BABESLEA




HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



# UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan:** ***www.goiena.net/blogak/argazkiak***



**SENTSUALA.** Hollywoodeko Paseo de la faman jasotako irudia. /Argazkia: Ziortza Arizabaleta /Arrasate



**MUXUA.** Galizian ateratako argazki honetan, Finisterreko lurmuturra ikus daiteke atzean; maiteminduak, lehen planoan. /Argazkia: Xabier Larrea /Oñati



**AITA-ALABAK.** Iñigo Laspiur eta Ane Laspiur zulotik begira, Madrilen. /Argazkia: Xabier Elgezabal /Arrasate



**PIRINIOAK.** Midi d`Ossau mendia, Ayous aterpetik ikusita, ekaineko ilargi betea aurrean dugula. /Argazkia: Roberto Izagirre /Oñati



**AEB.** Hegalak astintzeko prest dago bele beltza, harrapakinaren norabidea antzeman nahian. Grand Canyon. /Argazkia: Segriz Belinchon /Arrasate



**CADIZ.** Conil de la Fronteran ateratako argazki honetan zerua infernu bihurtuta ikus dezakegu. /Argazkia: Oihan Vitoria /Arrasate



**SUITZA.** Aurten, abuztuan, Gimmelwald herrian ateratako argazkia. Egurrezko etxe hau ikusgarri atonduta zegoen, askotariko lore koloretsuekin. /Argazkia: Oier Landaburu /Elgeta



**GIPUZKOAKO KOSTA.** Mikel eta Saioa aita-alabak, Deba eta Zumaia artean, Sakonetan ateratako argazkian. /Argazkia: Nekane Gabilondo /Bergara



**LANZAROTE.** Urrunean, eguna jausten doan heinean, itsasontzi bat eta bikote bat –semearekin– agertzen dira. /Argazkia: Nerea Poyato /Arrasate

## Oinarriak:

- **Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.**
- **Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta nongoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak jasotzeko epea: uztaila - irailaren 17a.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31. BERGARA: Ibarra kalea 6 ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-O-5.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

## Sariak:



- **1. saria: Canon EOS 1000D** argazki kamera digitala eta KB photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa.
- **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne. Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

**BABESLEA:**

gizarte kutxa

**Laguntzaileak:**

kb photoestudio www.kbphotoestudio.com
Canon
GURE AMETSA JATETXEA
ARRASATE BIDAIAK

Goienkaria astelehenean, aste bukaera osoa
Goitb Goiena Telebista
Goienkaria DEBAGOIENEKO ASTEKARIA
Goiena.net
ARRASATE IRRATIA



# UDAKO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:



**GANADUA.** Untzillarako bidean nindoala aurkitutako behiak, gustura eta naturaltasun osoz kamara aurrean. /Argazkia: Nerea Gonzalez /Arrasate



**PARADISUA.** Amildegietatik buelta bat eman ostean, Mitjana kala ezkutuarekin topo egin genuen. /Argazkia: Nerea Barrenetxea /Bergara



**MALTA.** Luzzuak, Marsaxlokk herrian; horrela deitzen dira bertako arrantzuntziak. /Argazkia: Nagore Llodio /Arrasate



**MARRAZKIAK.** Arizmendi Ikastolako neska-mutikoek egindako lanak, iazko urrian ateratako argazki batean jasota. Horrela irudikatu dute uda gure txikiek. /Argazkia: Martín Uriarte /Arrasate



**ZELANDA BERRIA.** Markel eta Iker Elorza agertzen dira Roys Peak-eko gailurretik ateratako argazki honetan. Bistak, itzelak. /Argazkia: Markel Elorza /Debagoiena



**PATXADAN.** Irailean 5 lagun elkartu ginen Urdaibain piraguan ibiltzeko. Laidatik irten eta Gernikako itsasadarrean gora abiatu ginen. /Argazkia: M. Karmen Garrido /Arrasate



**BESALÚ.** Erdi arora bidaia bat egin nuela amestu eta honako hau agertu jaten argazki kameran. /Argazkia: Juanjo Domenech /Bergara



**DEBA.** Infinitura begira harrapatu nuen neska, Debako hondartzan, eskaileretan gora igota. /Argazkia: Juan Antonio Baena /Arrasate



**KUBA.** Itsasoaren berdea eta zeruaren urdina, paradisuan. /Argazkia: Julen Plazaola /Oñati



**KANADA.** Argazkia irailean ateratakoa da, Tofino-n. Kalatxoriak ageri dira dantzan, bertako hondartza amaiezinetan. /Argazkia: Julen Elorza /Debagoiena




**TAILANDIA.** Gustura edaten geben Chang tailandiar garagardua! Gabero, eguneko pasadizoak errepasatzen genituen, garagardo honen laguntzaz. /Argazkia: Iratxe Igartua /Oñati

# VI. GOIENA LEHIAKETA



*www.goiena.net/blogak/argazkiak*



**MAROKO.** Erg Chevi basamortuan aurkitutako haimak. /Argazkia: Mikel Martinez /Bergara



**HEGAN.** Norvegiako paisaiarik politenetakoa dela dioten Reine herrian hegan egiteko prestatzen. /Argazkia: Mikel Busto /Aretxabaleta



**ARTEA.** Nork bere mundua margotzeko ideia: koloreztatu eta bizitza sortu. /Argazkia: Miguel de Ganesha /Arrasate



**BADAJOZ.** Higuera de la Serena udalerrian zerua sututa ageri da abuztu honetako iluntze baten. /Argazkia: Iurgi Inda /Arrasate



**MALLORCA.** Michael Douglasen egoitzan ateratako argazki honetan, harresia islatzen da putzuan, arrainen artean. /Argazkia: Maite Elorza /Bergara



**EKUADOR.** Itsasgizonak arrantzan dauden bitartean, kaioak eta pelikanoak erne daude beraien aukeraren zain. /Argazkia: Jone Arregi/Bergara



**ZARAUTZ.** Bi hanka luze eta pausu bat. /Argazkia: Juama Agirre/Arrasate



**BURGOS.** Eguzki-lore panpoxa, okulistarenetik pasatu eta gero; sinpatikoa, inondik ere. /Argazkia: Jesus Mari Herrasti /Aretxabaleta



**MAROKO.** Abuztuko bidaian ateratako argazki honetan Erg Chebbi-ko dunak ikusi daitezke. /Argazkia: Josu Lete /Bergara



**NORVEGIA.** Giza-ondare izendapena duen Geirangerreko fiordoa, hegaztien begiradatik. 2009ko abuztua. /Argazkia: Laura Perez /Aretxabaleta



**JOLASEAN.** Almen gunea, 2010eko udan.Bertan Danka agertzen da, Golden Retriever arrazako txakur emea. /Argazkia: Leire Hernandez /Eskoriatza



**GALIZIA.** Bull laguna, ilunabarrean. /Argazkia: Josu Uribe-Etxebarria/Debagoiena

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
**EGOITZA NAGUSIA**
Ibarra kalea 6, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-09-20

**Patxi Huarte 'Zaldieroa'** > Marrazkilaria eta argazkilaria

# "Zurgina izanda lasaiago biziko nintzateke"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Euskal politika ulertzeko unibertso paralelo alternatibo umoretsu baten sortzailea da *Zaldieroa*. Hiru marrazki eta bi lerroko irridun hausnarketak dira bereak.**

**Eguneroko sorkuntzaren morrontza astunegia da?**

Zurgina izango banintz lasaiago ibiliko nintzateke: gaur aulki bat egin eta etzi aulki berbera beste bezero batentzat, baina marrazkietan egunero aldatu behar da eta alde horretatik nekosoa da.

**Aldatuko da zeozer *De Rerum Naturan* irailaren 5a eta gero?**

Ufa!!... ez dut uste. Gauzak ez dira sobera aldatu. Euskal politikaren gaiak eta pertsonaiak bertsuak dira, nahiz eta prozesu diferenteak bizi. Dena den, pentsatzen dut *Pelota Basquak* etorkizun oparoa izango duela nire zintetan eta *The organization*, aldiz, pentsatzen dut, egun batean desagertuko dela.

**Zure lana goizeroko irribarrea dela esan du batek baino gehiagok. Hitz goxoagorik?**

Bai noski: "mila esker" eta "maite zaitut" hori baino askoz goxoagoak dira! Bueno, pentsatzen jarrita, "goizeroko irribarrea" "mila esker" bat moduan da, ezta?

**Jarraitzaile asko dituzu.**

Ez da harritzekoa! Marrazkiz lagundutako bi esalditxo irakurtzea erreza da!

SOSLAIA

## "Gizonzentrista!"

Makina bat kolaborazio eta ilustrazio egin eta gero, Berria-ko orrietan egin du bere txoko ederra: *De Rerum Natura*. Zaldieroak dio (Faltzes, Nafarroa, 1966) gehien-gehien emakumeak marraztea kostatzen zaiola, oso "gizonzentrista" dela, bere esperientziatik abiatzen dela, agian. Horregatik, alardeko emakumeak oso gustura irudikatzen ditu. Garai berri baten atarian egonda ere, marrazteko aitzakiak eta pertsonaiak ez zizkiola faltako dio, lasai.

**Haserretu zaizkizunak ere egongo dira.**

Gutxi batzuk. Eta pentsatu nahi dut gero eta gutxiago direla. Gauzak benetan lasaitzen ari direla, alegia.

**Crazy Horse indioak, hain zuzen, zaldi basatiekin egiten zuen amets. Halako errebelaziorik izaten duzu zuk?**

Nik lehengoan ikusi nituen bi mika gabirai bat erasotzen, eta hiru ahate pasatu ziren San Cernin elizaren gainetik. Erromatarrek hegaztien hegaldietan etorkizuna nola zetorren igartzen zuten. Nik hegaztiak besterik ez ditut ikusten.

**Hara eta hona bizikletaz doan siouxa zaitugu, ezta?**

Egia esateko eta aitortzeko, motor bat erosi nahiko nuke etorkizunean baina orain arte, eta 44 urte ditut, sekula santan ez diot deposito bati gasolinarik bota. Birgin naiz. Nire zaldia benetako energia alternatiboarekin mugitzen da: nire giharreekin, hau da, arroza eta garagardoarekin, hain zuzen.



Patxi Huarte. LUISTXO FERNANDEZ

## ai, ene!



### Txerria, ardia...?

Zalantzak sortzen ditu argazkiko animaliak: ardi-ilearen kizkurra, txahalak duenaren kolorekoa eta txerriaren muturra... Zer den esatea ez da, inondik ere, erraza! Urdaia, gazta ala txahal txuleta... batek daki zer emango duen!

http://www.sarda.es

## biharamuna

Marijo Deogracias

### Aldaketen gobernua

**Felipe Juaristi** idazleak zuzenduko du aurrerantzean Euskadi Irratia. Ez du askorik iraun lan horretan **Rosa Diez Urrestarazuk**, Suriok EITBren zuzendaritza taldean zuen emakumezko bakarrak. Iazko maiatzaren 5ean aldaketaren (edo aldaketen) gobernua osatu zenetik hainbat izan dira, batean eta bestean, kargu-aldatzeak gobernuan; guztiak aukeraketa txarraren ondorioz izan direnik ezin go dugu esan, baina ez du itxura ona ematen hainbeste izendatze-kargu kentze horrek, bere lehenengo urtean 30 sailburuordetzen %15ek aldaketaren bat izan baitu.



Orain, berriz, euskarazko irrati publikoari tokatu zaio. Ikusteko daude idazle gipuzkoarrak irrati zuzendaritza kargutik egiten dituen ekarpenak, baita zuzendari ohiak euskarazko telebistaren eduki arduradun moduan ekarriko duena ere; izan ere, kargu hori sortuko omen dute berarentzako. Oraingoz dakiguna da 5 orduko zuzeneko saioa hasiko dela irailaren amaiera aldera ETB1-en.

Eta, bitartean, **Miguel Sanz**ek eta **Patxi Lopez**ek Nafarroan Euskal Telebista modu digitalean ikusteko sinatu zuten akordioarekin bete gabe segitzen dute.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +25 | +10 |

Eguraldi eguzkitsua espero da gaurko. Hego-ekialdeko haizeak tenperaturen igoera eragingo du. Iluntzean euria egin dezake.

www.euskalmet.net

**OGIZUN**
koop. elk.
**okindegia**




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13